

Jakin^{•eus} 217

herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2016

Euskal kultura 2016

Memoria zulatuak, memoria hesituak,
memoria ukatuak
GARBIÑE UBEDA

Hiltzeko tankera aurrerakoia
Europako kulturatik
IGNAZIO AIESTARAN

IÑIGO ASTIZ
MIREN RUBIO
ALBERTO BARANDIARAN
DANELE SARRIUGARTE
GARAZI ANSA
XABIER LANDABIDEA

LEIRE PALACIOS
ANE ZABALA
JOSU GOIKOETXEA
IZIBENE OÑEDERRA
H28

GURE IRITZIZ

Iritsi izana irismenaren izenean zigortzen denean

LIBURUAK

Euskal liburugintza 2015
JOAN MARI TORREALDAI

Jakin^{•eus}**217**
herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2016



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GURE IRITZIZ

9 Iritsi izana irismenaren izenean zigortzen denean

GAI NAGUSIA Euskal kultura 2016

15 Memoria zulatuak, memoria hesituak,
memoria ukatuak
Garbiñe Ubeda

Garbiñe Ubedak Memoriaren gaineko gogoeta egiten du, Memoria Historikoak azken urteotan hartu duen protagonismo-tik abiatuta. Memoria ukatu baten historia ez ofiziala da gurea: herriarena, hizkuntzarena, nortasunarena. Gaurkotasun erabatekotik epaitzen dira gertaerak, momentuan sortutako anekdotak balira bezala. Memoria aldarrikatzen duenari inposaketa leporatzen zaio, aurreko inposaketa guztiak ontzat emanda. Politikakeria deitzen diote bati, zilegitasuna besteari.

31 Hiltzeko tankera aurrerakoia Europako kulturatik
Ignazio Aiestaran

Ignazio Aiestaranek egun proiektaturiko kulturari buruzko hiru auzi aztertzen ditu: 1) kultura bizitza sailkatzeko gailu gisa ('Foucault-Aresti' auzia); 2) hiltzeko tankera aurrerakoia Europako marka kulturalaren ikuskizunean ('Anders-Sarrionandia' auzia); eta 3) faxismo eta liberalismoaren arteko subjektu erreaktiboaren kultura indibidualistaren zemaia ('Eribon-Borda' auzia). Hiru auzien harira, gure jendartearen ispilua eta arriskuak erakusten ditu egileak.

55 Iñigo Astiz • Miren Rubio • Alberto Barandiaran
Danele Sarriugarte • Garazi Ansa
Xabier Landabidea • Leire Palacios • Ane Zabala
Josu Goikoetxea • Izibene Oñederra • H28

Urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzea egiten dute hamar egilek. Iñigo Astizek Donostia 2016 kultur hiriburutzari buruzko hainbat iruzkin egiten ditu, besteak beste; Miren Rubiok, Bilboko kale izendegian barrena, euskal kulturgintzari lotutako zenbait gertakari eta ekimen aztertzen ditu; Alberto Barandiaranek euskara, zinema, arte eta literaturaren inguruko hainbat gogoeta egiten ditu; Danele Sarriugarte, Garazi Ansa, Xabier Landabidea, Leire Palacios, Ane Zabala, Josu Goikoetxea eta Izibene Oñederrak, hurrenez hurren, literatura, arte, komunikazioaren teknologia, musika, antzerki, bertsolaritza eta zinemaren eremuak jorratzen dituzte. Azkenik, H28 aldizkariko marrazkilarien begirada satirikoak biritzen du urtearen balantzea.

LIBURUAK

133 Euskal liburugintza 2015
Joan Mari Torrealdai

Joan Mari Torrealdaik, aurreko urteetan egindakoaren ildo beretik, 2015ean euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkezten du. Honako alderdi hauek landu ditu: lehenik, liburu produkzioaren zifren iturriak; bigarrenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen izaera eta aniztasuna, argitaletxe emankorrenen aipamena eta kanpoko eta bertoko argitaletxeen ekoizpenaren konparaketa; hirugarrenik, argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluaren zifra eta nobedadeak eta berrargitalpenak; eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa.

KONTRAZALA Unai Iturriaga

BASQUE CULTURE 2016

Perforated memories, enclosed memories, denied memories

The writer and journalist Garbiñe Ubeda reflects upon Memory, based on the protagonism that Historical Memory has been given in recent years. Ours is the unofficial story of a denied memory: of the people, of the language, of the identity. The facts are judged from an absolute 'presenteeism', as if they were anecdotes that arise at that very moment. Those who demand memory are accused of wanting to impose, validating all previous impositions. The former is called politicisation, the second legitimacy. **Garbiñe Ubeda**

A progressive way of dying from European culture

The writer and professor of philosophy Ignazio Aiestaran analyses three questions about the projected culture nowadays: 1) culture as the apparatus to classify life (the 'Foucault-Aresti' question); 2) the progressive way of dying in the spectacle of the European cultural brand (the 'Anders-Sarrionandia' question); and 3) the threat of the individualist culture of the reactive subject between fascism and liberalism (the 'Eribon-Borda' question). Through these three questions, the author shows the mirror and the risks of our society. **Ignazio Aiestaran**

Basque culture 2016

Ten authors, professionals and analysts from the world of Basque culture provide us with a critical comment about the cultural events that have taken place during 2016. Iñigo Astiz, among other topics, comments several aspects related to the Capital of Culture status of San Sebastian 2016; Miren Rubio, using a map of Bilbao, reflects upon several events and initiatives within Basque cultural activities; Alberto Barandiaran makes some comments on the Basque language, films, art and literature; Danele Sarriugarte, Garazi Ansa, Xabier Landabidea, Leire Palacios, Ane Zabala, Josu Goikoetxea and Izibene Oñederra provide an appraisal of the activity pursued in the fields of literature, art, music, communication technologies, music, theatre, verse improvisation and film respectively; lastly, a satirical view from eight cartoonists at the magazine *H28* illustrates this appraisal of Basque culture. **Various authors**

Basque bibliography 2015

Joan Mari Torrealdai, sociologist, writer and President of the Jakin Foundation, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2015. In this year, 2.353 books were published in the Basque language, 189 more than in 2014. Most of these publications are school books (42%), followed by children's and young people's literature (24,8%), books on human and social sciences (13%) and literature for adults (12%). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. **Joan Mari Torrealdai**

Bakea, elkarbizitza, memoria, indarkeriak, normaltasunaren monopolioa, merkatuaren agintea, desberdinkeria. Kulturaren bahitura eta gaur eta hemen burujabetza zer den ebazteko beharra. Horra, Jakin 217 honetan, urteko kultur errebasoak dakarrena, besteak beste, hogeituroen gogoeten –idatzizko eta grafiko– eskutik. Kultura, sormen artistikoaz harago, dena baita. Eta dena izate hori, Donostia 2016 kultur hiriburutza izan denarekin azaltzea ekidinezina izan da. Nola ba bestela.

Kultur hiriburutzak ‘Bakea eta bizikidetzak’ leloa izan du, eta Garbiñe Ubeda idazle eta kazetariak Memoriaren –letra larriz– talaiatik begiratu dio. Zer den, zer litzatekeen eta zer izan beharko lukeen memoriak, «familia istorio partikular eta negargarrien sorta» izateari uzteko. Presentismoak bahituran hartuko ez duen memoria aldarrikatzen du, hau da, kritikotasunik batera gabe gaurko, gaurtik eta gaurrerako begirada mugatu eta interesatutik askatu behar den memoria hori. Ez legeek ez botereak mugatu behar ez duten memoria hori, memoriaren ukazioak dakartzan indarkeriak hor baitaude, indarkeria linguistikoa, identitatearena eta herriarena, esate batera. Memoria etorkizun bezala. Memoria kolektiboa eta memoria politikoa. Alegia, «bizikidetzak ukaziorik gabeko Memoriaren onarpena besterik ez dela. Eta Bakea horren berorren ondorio logikoa».

Ignazio Aiestaran pentsalariak egungo gure gizartearen eta kulturaren minak sustraitik diagnostikatu ditu hiru pentsalari-idazle bikoterengogooetatik abiatuta. Lehenik, normaltasun jakin baten eraikuntza eta inposaketa azaleratzen du Michel Foucault eta Gabriel Aresti erkatuz, eta taxonomia berri baterako galderak azpimarratu: «Ba ote dago kontzentrazio-esparrurik egun? Lan bortxaturik ote? Bakean eta garai aurrerakoian bizi garela errepikatzen diguten bitartean, non? Europako txoko honetan ote, non ez garen baserriko gizabereak dagoeneko, baizik eta gizaz gaindiko hiritar lehiakor, kontsumitzaile modernizatu eta hautesle berdinduak? Ba al dago klase-sistematik gure kultur sistema hiritar berdinduan?».

Bigarrenik, Günther Anders eta Joseba Sarrionandiaren bitartez, Donostia 2016k antolatutako *Bakearen milia* erakusketaren azpian dagoena xehetzen du. Alegia, «fede oneko anabasa neutro bat»,

ondorioak baino agertzen ez dituen kausen aztarrenik gabe, indarkeria batzuk agerraraziz eta beste batzuk ezkutatu. «Halaxe eraikitzen dira gure bakea eta kultura», idatzi du Aiestaranek, «Europa demokratikoan arrazakeria, xenofobia, homofobia, matxismo, klasismo eta faxismoa zabaltzen diren bitartean, zergatirik jakin gabe». Eta, bukatzeko, Didier Eribon eta Itxaro Borda alderatuz eta lotuz, egun begien aurrean ikusten ari garen faxismoaren eta liberalismoaren arteko ezkontza perfektua dakar azalera.

Iñigo Astizek ere 2016a du aztergai, besteak beste, «merkatuak irentsi duen kulturgintza» eta «hiriaren zein kulturaren irudiaren bahiketaren aurrean» gaudelakoan. Miren Rubiok hiriaren –Bilbao-rena errealki eta Bilborena metafora hautsi gisan– plaza eta kaleetan barrena bidaia bat proposatzen digu, hizkuntzarekin ere kale eta plazak eraikitzen direla adierazteko. Alberto Barandiaranek ere espazioak ditu hizpide, hainbat, euskal kultur espazioena, eta zabaldu bai, baina txikitu eta ukatu ere egiten ditugula ohartarazteko. Danele Sarriugartek, bere gogoetaren azken lerroan, botatzen du galdera modura honen guztiaren erantzuna izan litekeena: «zer den, testuinguru zehatz honetan, burujabetza».

Garazi Ansak arteari begiratu dio, Xabier Landabideak komunikazioari, Leire Palacios musikari, Ane Zabalak antzerkiari, Josu Goikoetxeak bertsolariari eta Ibibene Oñederrak zinemari. Hori dena, artikulu idatziei dagokienez. Josevisky, Axi, Exprai, Ogaxo, Adur, Asisko, Patxi Gallego eta Aritz Irigoienek artikulu grafiko bannatan laburdildu dute urtea. Eta, jakina, kontrazalean, Unai Iturriagak ere amaitu den urtearen sintesi zorrotza egin du.

Joan Mari Torrealdai 2015ean euskaraz argitaratutako liburuen azterketa egin du, azken 40 urtetako ikerketa lerro oparoari segida emanaz. Dagoeneko 40 urte, ikerketa serio, jarraikor eta zentzuzkoa osatuz. Erraz esaten da. Ez da makala lanaren eta ekarpenaren neurria.

Iritsi izana irismenaren izenean zigortzen denean

Bi egitate azpimarragarri eta antagoniko gertatu dira urte bukaera honetan. Lehena: Jakinek 60 urte bete ditu. 1956an, Arantzazun jaulki zuen lehen zenbakia, oinarri eta helburu oso jakinekin: bat, zernahi euskaraz eta euskaratik eman beharra; bi, euskarak kultura behar duela aurrera egiteko, eta alderantziz; hiru, kulturak moderno, antidogmatiko eta irekia behar duela izan belaunaldi berriari transmitituko bazaie; lau, unibertsal izateko modu bakarra partikular izatea dela; eta bost, partikular izateko nork bere pentsamendu propioa garatu behar duela, eta mundua nork bere esperientziatik aztertzeke obligazioa duela. Horixe Jakinen dekalogoak. Eta hortan eman ditu sei hamarkada, euskara kultur bideetan jartzen eta euskarazko pentsamendua sortu eta zabaltzen. Jakinek euskal kulturgintza eta herrigintzaren historia zeharkatu du, berori elikatuz eta bertatik edanez.

Bigarren egitatea: Jakinek, aurten, azken hogeitau urteetako diru laguntza txikiena jaso du Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Alderaketa argi bat egitearren, mende berria hastearekin batera, 2000. urtean, 61.288 eurokoa izan zen jaso zuen diru laguntza. Hamasei urte geroago, aurten, 40.947 eurokoa izan da. Hau da, 20.341 euro gutxiagokoa. Bestela esanda, %33ko murrizketa pairatu du. Mende hasierako lehen hiru urtetan 182.657 euro jaso ziren, eta aurten, datozen hiru urteetarako uszteko egonkortasunaren izenean abian jarri den sistema berriarekin, 122.841 euro jasoko ditu, hau da, 59.816 gutxiago.

Paradoxa bat da Jakinen eskaintza eta kalitatea inoizko handiena denean, inoiz baino diru gutxiago jasotzea. Paradoxa bat da bi gertaera horiek aldi berean gertatzea. Lotura zuzenik duten, ezin jakin, baina euskarazko hedabideentzako politika serio eta egokiak aplikatuko balira, lotura zuzena beharko luke egon Jakin zer den eta erakunde publikoetatik behar duen sostenguaren artean.

Eta zer da, bada, Jakin? *Bigarren berpizkundea* deitu izan zen garaian sortu zen Jakin, frankismo bete-betean. Eta XXI. menderaino iritsi da. Tartean zentsura eta itxialdiak pairatu izanagatik, beti, hutsik egin gabe, egon da kalean, eta 60 urte eman ditu kultura sortzen eta transmititzen; kulturgintzan eragiten, ez Jakinen barruan bakarrik, baita euskalgintzako eta kulturgintzako beste hamaika erakunderekin lankidetzaz bultzatzen. Berori da *bigarren berpizkundan* sortutako argitalpenen artean bizirik dagoen bakarrenetakoa. Eta, agian, bakarra, erreleboa eta transmisioa egin, eta proiektua talde gazte eta berri baten esku utzi duena. Horretarako bihurtu da fundazio: ondare material eta immaterial guztia belaunaldi berrien eskura utzi ahal izateko. Ondare horretan esperientzia eta jakinduria metatu handia dago. 262 zenbakitan, 2.500 lankidetzaz bideratu dira eta 1.200 bat lankide eta idazlek hartu du parte. Aldizkariak eta atari digitalak gainera, aurten 40 urte bete dituen Liburu Behatokia du, hiru liburu bilduma, jardunaldi, solasaldi, lankidetzaz eta egitasmo estrategikoen parte izan da eta da.

Gaur egun orain 60 urte markatutako funtzio bera betetzen segitzen du: euskarazko pentsamendua sortzea eta zabaltzea eta euskal gizarteak dituen galdera eta erronka berriei erantzun bila laguntzea. Herria egitea.

Eta non dago orain Jakin? Jakin loratze fase bete-betean sartuta dago: aldizkariko gaitegia berritzen, pentsalari eta idazle berriei atea irekitzen –bereziki eta berriaz emakume aritu eta adituei–, jardunaldi eta hitzaldien bi-

dez oihartzun soziala areagotzen, edukiak paperean eta digitalean zabaltzen, ikusgarritasun maila eta gunee berriak iristen, irakurle gazte eta berriengana bidea egiten, liburu bilduma berriak abiatzen –pentsamendu feministako *Eskafandra* bilduma eta *Aleka* kronika bilduma, esate batera–, ikus-entzunezkoen alorra urratzen, kultur eragile eta erakundeekin elkarlana garatzen, eta *hirugarren berpizkunde* berri bati arnasa ematen.

Iristen ari da Jakin, hori da lorpena: eta, antza, irismenaren izenean etorri zaio zigorra. Hazkunde kuantitatibo eta kualitatiboa lantzeko bidea moztua ikusten dugu. Eta kontua da, ez dela egongo hedabide bat bakarria irismena jomugan ez duena, alegia, ahalik eta jende gehienarengana iristeko ahaleginak eta bi egiten ez dituenak. Baina irismena zenbaki kontua baino zerbait gehiago da, zerbait gehiago izan behar du, baldin eta komunikazio politika eraginkor eta jasangarriak aplikatu nahi badira, eta euskal hedabideen ekosistema, eta horrekin, herri honen trinkotzea eta egituratzea estrategikotzat jotzen badira. Irismenak kuantitaboa baino harago doan neurgailua izan behar du; izan ere, hedabideek gizartean duten eragina ezin neurtu daiteke zenbakiekin soilik. Are gutxiago edozein tankera, maiztasun eta kalitateko hedabideak denak zaku berean sartuta; are gutxiago, banatzen den diru kopurua gutxienekoa denean, eta alderantziz beharko lukeenean, hau da, hedabide ekosistemak hazi eta iristeko –kuantitatiboki eta kualitatiboki– behar duen diru poltsa emendatzea behar-beharrezko denean. Non geratzen da irismen kualitatiboa? Zer eduki sortzen den, zer lan dagoen eduki horren atzean, zer tradizio, zer pentsamendu sistema? Nola eta noren artean banatzen den? Eta hortik zertarako erabiltzen den eta noraino eta zertarako berzabaltzen den?

Hau da, irismena bera beste modu batera ulertu behar da; izan ere, Jakineko informazioa jasotzen duenak gorde egiten du kasu askotan, sakontasunezko lanak diren

Iritsi izana irismenaren izenean zigortzen denean

heinean, eta ondoren ustiatu eta sozializatu, dagokion eremuan. Jakinen kasuan, kantitateak baino kalitateak ematen dio ezinbestekotasuna, bai informazioaren edukietan, bai eduki horiek zabaltzen diren zirkuituen kalitatean, eta baita Jakinek lantzen dituen edukiak herrigintzan eta komunitategintzan duten garrantziagatik ere. Izan ere, Jakinen eragina euskalgintza eta kultur-gintzako preskriptoreengana iristen da bete-betean, iritzi sortzaileengana. Hori du bere misioa, besteak beste.

Bi egitate azpimarragarri: 60 urtera iristea emanez eta sortuz, eta iritsi izanagatik bidegabekeria eta zigor handi bat pairatzea. Horra gaur-gaurko paradoxa. Eta ataka. Ataka horretatik ateratzeko, hasi gara erakunde publiko batzuetan bestelako politikak ikusten, Gipuzkoako Foru Aldundian, esate batera. Eusko Jaurlaritza berria ere, azken urteetan egin ez bezala, hizkuntza eta kultur eremuan politika justuagoak, jasangarriagoak eta estrategikoagoak aplikatzeko moduan dela ere egitate bat da. Hori litzateke bidea. 🐼

EUSKAL KULTURA 2016

15 Memoria zulatuak, memoria
hesituak, memoria ukatuak
Garbiñe Ubeda

31 Hiltzeko tankera aurrerakoa
Europako kulturatik
Ignazio Aiestaran

55 Iñigo Astiz
Miren Rubio
Alberto Barandiaran
Danele Sarriugarte
Garazo Ansa
Xabier Landabidea
Leire Palacios
Ane Zabala
Josu Goikoetxea
Izibene Oñederra
Josevisky • Axpi • Exprai
Ogaxo • Adur • Asisko
Patxi Gallego • Aritz Irigoien

Memoria zulatuak, memoria hesituak, memoria ukatuak

DSS2016ko asmoek –instituzioetatik bideratutako kultur ekimen entzutetsuenetako bat aipatzearen– Bakeari eta Bizikidetzari eman nahi izan diete sona. Aro berri baten banderatzat joak izanik, bi kontzeptu horiek beroriek kulturalki indartzera joan dira sosak eta baliabideak. Baina ez lehena, ez eta bigarrena ere, hirugarren bat izan da, izatekotan, urtearen balantzean airosoen astindu den hitza: Memoria.

Azken boladan zentzua eman zaio kontzeptuari, mamitzen hasi da, gertaeren gaineko ikerketez zamatzen, krimen isilduen argiketez osatzen, eta azkenik, posizio politiko jakinen gainetik zilegitasunez plazaratzen, nagusiki 36ko Gerraren harira. Hots, Memoria Historikoa deritzonaz ari gara batik bat. Halaber, Mundu Gerren errepassoak ere ezagutu ditugu pare bat urte lehenago; urteurren seinalatuen aitzakian, garaiko euskaldunen patuaz mintzo diren erreferentzia lan oparoak eta literatur lan polifonikoak tarteko: Eneko Bidegainen *Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria* saiakera, Mikel Peruarenaren *Su zelaiak* nobela...

36kora etorrira, aspaldion, Urbasako hezurrek salatzen duten bidegabekeria harrotu zaigu gogotik. Eta Ezkabako saraskia. Eta bihotzik gogorrenak ere urrikalduko lituzkeena, Jose Mari Esparzak urtebete lehenago liburu batean aurreratu

zuen: Sagardia Goñi familiako kide gehienak, sei ume eta haien ama haurduna, ezin doilorrago suntsitu izanaren egiaztatzea. Batzu-batzuen ahaleginari esker, geure Memoria Historikoak emakume izena ere badu orain, elkar akabatze orokortua jasan behar izan zuten errugabeena, edota bando jakin batera lerrotutako ekintzaile edo soldatu ez izanagatik ere, irabazleek ezarritako zigor umiliagarriak pairatzera kondenatu zituztenena, emakumezko ala gizonezko izan.

Apurka eta kostata, 80 urtez honantz datorren Memoria duintzeko urratsak eman ditugu, beraz. Baina batez ere eta orobat, ulertu egin dugu. Konprenitzen hasi gara, Memoria ez dela familia istorio partikular eta negargarrien sorta. Historiari irrist egiten dioten lerroak direla Memoria, hain zuzen ere itsusienak, aztoragarrienak, askotan makurrenak, datu edo estatistika hutsez nahita ere adierazi ahal izango ez genituzkeenak. Memoria lerrook azaleratzen dituzten egiak ez direlako gerra baten halabeharrezko ondorio, edo albo kalte, edo ezustean harrapatutako inozente batzuen zorigaitz, edota patuaren apeta; geure izaera eta jokamoldea ongien definitzen dituzten frogaz zehatzak baizik. Humanitatea zer den esplika dezakete. Muturreko egoerak nagusitzen direnean, zertara hel gaitzkeen eta zein den horretara eraman gaitzakeen logika. Giltzarri dira. Eta ordaina eskatzen dute.

Amnesia behartuaren aurkako ariketa publikoa ez ezik, iraganaren kontzientzia justua ere bada Memoria. Hura lantzeak behinola gertatutakoa argitara atera eta bere testuinguruan aztertzea dakar; kota erosotik jaitsi eta behar den mailatik begiratu beharko litzaioke, gaurko egunean zuzentzat jo beharko genituzkeen irizpideen galbahetik pasarazi eta epaitu gabe. Hau da, *Presentismoan* erori gabe. Euskarazko itzulpen egokia zein lukeen ez dakit. Orainaren gaitza, beharbada. Edo oraindik orainean errotzen den itsukeria. Nolanahi dela ere, Carlos Taibo Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Zientzia Politikoetako irakasleari zor genioke ekarpena. Kontzeptu horren berri, EHUren Udako Ikastaroetan entzun nion estreinako, hain zuzen uztailan, *Tirabirak: euskal gatazka*

binetetan proiektuak gonbidatuta, Donostiako Miramar jauregian eskaini zuen hitzaldian.

Kritikotasunari argi izpirik eman gabe, *status quo*-a besterik gabe onartzea dakar Presentismoak. Tranpa horretan harrapatuta dagoenak gaurko moraletik epaitzen ditu iraganeko gertaerak, gauzen zergatiaz galdera handirik egin gabe, atzean leudekeen arrazoiez hausnartu gabe; sarri askotan, indar politiko, mugimendu sozial edo pertsonaia jakin batzuk kriminalizatzeko asmoz. Presentismoak ondorio larriak ditu, batez ere txikien memoriari ari garelarik. Tentsioa dakarte. Lehertzea ekar lezaket, izatea bera ukatzen dutelako.

Konprenitzen hasi gara Memoria ez dela familia istorio partikular eta negargarrien sorta. Historiari irrist egiten dioten lerroak direla, hain zuzen itsusienak, aztoragarrienak, askotan makurrenak

Presentismoa genuke, esate baterako, anarkistak hiltzaille zikoitz eta piromanoak zirela esatea, harrapatzen zuten guztiari su ematen ziotela azpimarratzea, eta jokamolde edo bortizkeria horren atzean leudekeen arrazoi sozialez txintik ere ez aipatzea. Alegia, ezberdinkeriaz jositako gizarte hartan –Gerraz eta gerra aurreko Errepublika garaiaz ari naiz– anarkista haietariko asko baztertuen artean baztertuenak zirela ahanzte, edo galtzeko ezer gutxi zeukatela kontuan ez hartzea. Beharbada ezjakintasunagatik, beharbada ezeroso dirudielako. Edo beharbada komeni ez delako, garai hura uste baino idealizatuago egon litekeelako.

Galdutzat emandako eremuari su ematea lur errearen politika omen da. Historia luzea du, ez zuten anarkistek asmatu. Gerra estrategia horrek aurkariari lagungarri gerta dakioken oro suntsitzea du helburu; eraikinak, azpiegiturak eta gainerakoak birrintzea, eremuaren jabe egingo denean, antzua gerta dakion, aurrerabide errazik topa ez dezan. Horixe bera egin zuten miliziano anarkistek Irunen, errepublikazaleek

posizioak galdu eta ihes egin behar izan zutenean. Euskal nazionalistek anarkisten asmoo errefusatzeko eta galarazteko ahalak egin arren, bazterrak kiskali zituzten.

36ko altxatuek eta frankistek, kurioski, sarritan baliatu zuten Irungo adibidea Errepublikaren alde borrokatu zirenen aurkako apologia egiteko; agintea errepublikazaleen esku utzi izan balitz, jende xumeak zer nolako etorkizuna izango zukeen iradokitzeke metafora beldurgarri gisa.

Presentismoa genuke, era berean, anarkistak errepublikazale definitzea eta Espainiako Bigarren Errepublikaren balioak defendatu zituztela argudiatzea, zenbaitetan, aurreko adibidean ez bezala, on beharrez egina izanagatik ere. Anarkista haiek, berez, faxismo ororen aurkako militante porrokatuak bai, baina Errepublikaren aldekoak ez zirelako izan, eta eskubide osoz, dena esaten hasita. Bereziki, Errepublikako gobernu hari burgesegia izatea edota askotan langile mugimenduaren oldarraldiak gogotik egurtzea lepora dakiokela kontuan hartzen bada. Bestela ere, anarkismoak muzin egiten zion estatuari, hierarkiari eta kontrolari, sortze beretik. Beste gisa bateko antolamendua hobetsi zuten, ez Errepublika.

* * *

Prozesu luzeetako kronologiak tamalez errazegi nahaspilatzten baitzaizkit, ez dakit justuki noiz hasi ote ginen Memoria Historikoaren gaiari serio heltzen. Zerk eraginda erabaki ote genuen, «gure aitona egoskorren aspaldiko kontu epiko horiek» edo «aukera eman orduko kontatzen zizkiguten *batallita* ilun horiek» ez zirela ardoz ondo bustitako otordu tzarren postrea –berriketarako ohitura sana dutenen kasuan, bederen–; giro epelean desinhibitzea baino askoz ere sakonagoa zela, adin batetik gorako batzuentzat, mihia askatu behar hori. Ez dakit, halaber, gure birramona eta amonek noiz nola galdu ote zuten lotsa, edo beldurra, edo mozala, behinola entzun, ikusi eta bizi izandako bidegabekeriak albait zintzoen azaltzeko erantzukizuna hartzen hasi

zirenean, urte luzetako mututasuna urratuta. Baina batik bat, noiz jabetu ote ginen gu, gerra urrun xamar sentitu dugunok, bidegabekeria horiek denek aitortza eta ordaina behar zituztela, bazela garaia isilarazitako nahigabeari behingoz dimentsioa ematen hastekoa, ohiko debekuak, zentsurak, oztopoak, aurreiritziak eta gainontzeko ezinak alboratuta.

Era berean, ezingo nuke zehazki adierazi noiz eta zeri esker hasi zen gutxi batzuen aldarri ausarta besteengana kutsakor hedatzen, Memoria Historikoa aintzakotzat jotzeko tradizioa sortzen, medioetan tokia hartzen, eta hala, apurka-apurka, ikuspegi orokortua mudatzen, auzi horrekiko kultura aldaketa gauzatzen. Beharbada, geure zaharren oinazea geure oinazea ere badela jabetu ginenean. Diagnostiko garbirik gabeko zauriak sendabidea nekez aurki dezakeela sentitu genuenean.

Izan ere, zer da Memoria. Zer-nolako ariketa bilatzen da Memoriaren izenean. Zer da, esate baterako, biktimen zuloa detektatu, gorpuzkinak atera, identifikatu, gertaeraren gorabeherak publikora azaldu eta tokian bertan jarritako oroitarri batez omentzean egiten dena, familiari bakea emateaz gainera. Izan Sagardia Goñitarra, izan Jose Miguel Etxeberria *Naparra*-ren senide edo lagun, funtsean gauza bat eta bera. Trakeski esanda, iragana orainera ekarri edo gaurkotu, etorkizuna izan dezan. Geure ondoren ere, denboraren lerroan iraun dezan. Ahanzturan deusezta ez dadin. Biharko belau-naldietako jendeen idiosinkrasian ager dadin.

Memoria geroa da, beraz. Ondotxo zekiten hori Francok eta bere sokakoek. Ondotxo daki hori diktadore orok. Agintemakila bere egin orduko ekingo dio totalitaristak Memoria zabala bere alde makurtzeari. Halaxe itxuraldatzen delako izena eta berorretara moldatzen izana. Halaxe fabrikatzen direlako intereseko irudia, beharrezkoa den prestigioa eta horren araberrako etorkizuna: Memoria jakin eta zurrun bat ezarriz eta legitimatuz; hori ez beste gainontzekoa galaraziz, lotsaraziz, ahanzturara behartuz, ukatuz, behin betiko lurperatuz.

Bide batez, mintza gaitzen garbi. Memoriaren ukazioa ez da sistema totalitarioei eksklusiboki leporatzen ahal zaien

okerra. Eta ez da soilik gerra ofizial eta deklaratuena testuinguruetara mugatzen den estrategia. Ezker muturretik hasi eta eskuin muturreraino, posizio politikoen gama osoak noiznahi praktikatzen duen kirola da, euskaldunok ondotoxodakigunez. Batzuek nagusikeriaz egiten dute. Beste batzuek biziraupenez, beren burua defendatzearen, edo konkurrentziari bidea zailtzearen. Eta gehiengo zabalak, gaur, asimilazio hutsez. Boterearekin eta ahal izatearekin du zerikusia. Eta presentismoarekin. Arrain handiak txikia jatea bezain ohikoa dirudi.

Memoria ukatua nortasunaren beraren parte dela, izateari atxikita dagoela eta, hain zuzen horregatik, egunerokoan ispilatua beharko lukeela sinesten duenari, alderdikeriaren lasta bizkarreratzen zaio beti, indarrean dagoen legedia lagun.

Ekar dezagun gogora uztailean lan-munduan gertatutako pasarte hura: enpresa txikietako sindikatu hauteskundeak zirela-eta, CGT sindikatu frantziarrak helegitea jarri

zior LAB euskal sindikatuari, eta aurkeztutako hautagaitza baztertzera behartu zuten. Sindikatu profesional estatua ez betetzea leporatu zitzaion Bordeleko epaitegian, batetik, euskarari garrantzia eman ez elebitasuna hobesteagatik, eta, bigarrenik, sindikatu independentista gisa agertzeagatik. Bestela esanda, Frantziako balio errepublikanoekin bat ez omen datorrelako. Hizkuntza hegemonikoari ez ezik bertako

Memoria ukatua nortasunaren parte dela eta, horregatik, egunerokoan ispilatua beharko lukeela sinesten duenari, alderdikeriaren lasta bizkarreratzen zaio beti, indarrean dagoen legedia lagun

hizkuntzari ere tokia egiteak berdintasun eza eta diskriminazioa sustatzen omen dituelako. Literalki.

CGT sindikatuaren arabera, proiektu politiko jakin baten alde katramilatzea ez omen da sindikatuari dagokion zeregina. Langileen eskubideak babestea omen dagokio, ez

besterik. Hala, CGTren argudioen arabera, LABek egindakoa ez da bidezkoa eta ez da legitimoa, politika hutsa delako. Estatu zentralista bat tokian tokiko kulturaren gainetik jartzea, eskusiboa izatea, edota hizkuntza hegemoniko bat eta bakarra ezartzea, naturak bere jakituria agorrezinari esker emandako fruitu garbia da, antza. Beste horrenbeste, langileen defentsa besterik egin ezin omen duen sindikatu batek estatu nazionalismoaren aldeko babes baldintzarik gabea epaitegiataraino eramatea ere.

Gaur, inoiz baino nabarmenago, memoria ukatuen gainetik ezarritako legeek ematen dute legitimitatea. Botereak. Ez zentzu komunak. Are gutxiago justiziak.

Memoria berreskuratzeko ahaleginen aurkariak gaurkotasun premiaz, modernizazio kutsuz edota ardura sozialez mozorrotzen dute haien mezu presentista: «ezin da beti atzera begira bizi», «munduan kokatzea da erronka, garai berrietara moldatzea», «gaurko gizarteak behar gorriagoak ditu, guztien intereserako diren helburuetara bideratu behar da diru publikoa». Era berean, demokraziaren balioak ahotan harturik, inposaketa eta indarkeria leporatzen diete gogoko ez dituzten estrategiei, zilegitasuna ebasten zaie, egoeraren benetako erruduna eta arrazoiak apropos ahantzita.

Hemen adibide bat, Jose Apezarenak *Navarra Confidencial* argitalpenean idatzia:

Gaur, abenduak 3, Nafarroaren Eguna da, San Frantzisko Xabier Deunaren jaia, alegia, eta hari erreguka ari natzaio, nafarro gaitik behera datorkigunaz babes gaitzan.

Montxo Armendariz zinegileari Francisco de Javier Saria eman-go zaiola-eta (Santu deitura kendu diote, bide batez esanda), ekitaldira joateko gonbita bidali berri dit Nafarroako Gobernuak, [...] eta horra sorpresa: gutunaren testua euskaraz emana da lehenik, eta gaztelaniaz ondoren. Egia esan, erabat ezegokia iruditzen zait, gehiegikeria dela ez esatearren, gutxiengoaren hizkuntza nafar guztiok mintzo dugunaren aurretik jartzea.

Nire abizena, jatorria eta famili historia tarteko, euskara errespetatzen dut, eta ezagutzen dut, nahiz eta ikasteko asko dudan. Unibertitateko nire lehen urteetan Iruñean hartu nituen esko-

lak datozkit akordura. Jakina, neure borondatez hartu nituen, ez baititut ezkutuko presioak onartzen.

[...] Hain zuzen, euskararen inposaketaz harago, zapalketa linguistiko molde berri bat heldu da Nafarroara, errealtate tematia-ri muzin egin nahi diona: geure lurrean hizkuntza hori ulertzen eta hitz egiten duten lagunen kopurua %14 ingurukoa da datu ofizialen arabera, eta ezagutzen ez dutenena, berriz, %86koa.

[...] Gogorarazi nahiko nieke indarrez inposatu nahi dutenei Nafarroan ez dugula gogoz kontra behartzea eta jazarraraztea errazki onartzen, sarritan erakutsi dugunez.

Seguruenik, zerbait ezartzeko metodorik txarrena indarrez saiatzea da: nik agintzen dudalako edo hemen nire esana egiten delako bezalako formulak baliatzea, esate baterako, edota «nire pistolengatik» lelo ezaguna aplikatzea.

CIS erakundearen arabera Espainia osoko politikaririk balioetsiena da Uxue Barkos. Eta gutuna berorrek sinatu duela kontuan hartuta, ez dakit nolakotasun hori Nafarroan aplikagarri ote den.

Jose Apezarena jaunak Espainiako biztanleen itsukeria (Nafarroako administrazioa gobernatzen duen politikaria balioesteagatik), euskararen inposaketa eta «pistolengatik» ondorioztatu ditu, gutun ofizial batean hizkuntzak agertzeko ordenari erreparatuta. Euskarak gaur Nafarroan duen egoera kaxkarraren zergatiaz edo errudunez, UPNren hizkuntza politika suntsitzaileaz edo frankismoak euskaldunei ezarritako zigor eta debekuez, txintik ere ez.

Memoriari ukoa edo presentismoa arrunt asaldagarri bihurtzen dira administrazio publikoan ardura eta erantzukizuna eduki dituen politikariaren ahotan. Zer esanik ez, gobernatzeko irizpideen artean «justizia, elkartasuna eta berdintasuna» fermuki aldarrikatutakoa baldin bada, eta gainera eta justuki, memoria berreskuratzeko ariketa defendatzen ari denean. Euskadiko Sozialisten idazkari nagusi Idoia Mendiak, kasura, esaldi antologikoak eskaini izan ditu azken urteetan, etorkizunerako zizelkatuta uzteko modukoak. Hainbat adibide, Radio Euskadin 2015ean egindako adierazpenetatik atereak: «PSE euskararen gaineko kontsentzu guztietan egon da. Hain zuzen, herri honetan, hizkuntzaren gaineko adostasunaren alde egin da beti, indarkeria

terrorista jasanagatik ere». «Hemen ez da sekula haustura sozialik gertatu, nahiz eta euskal hiztunak gutxiengoa izan garen; nahiz eta hezkuntzako irakasleek euskara ikasi behar izan, plazarik edo lanposturik ez galtzeko». «Gaztelania-hiztunak biziki eskuzabalak izan dira euskararekin». «Elebarkartasuna inposatu nahi dute, baita gaztelania-hiztunak beti egongo diren udaletan ere». «Euskara oso gauza intimoa da. Zuk aukeratzen duzu zein hizkuntzatan nahi duzun zeure burua adierazi. Hori horrela da».

Maria Chivite PSNko hautagaiak berehala eman zion segida alderdikideari: «Egia da, erdaldunak oso eskuzabalak gara euskaldunekin. Adibidez, hitza hartzen dudan guztietan *Egun on Buenos días* batekin hasten naiz, euskaldunak ere integraturik senti daitezten».

Presentismoak bide ezin oparoagoa aurkitu du euskararen arloan. Iraganaren zama alboratuta, urte luzetako debeku, gutxiespen eta desoreka demografikoak ahantzita, eskrupulu handirik gabe barreiatu izan da haren aurkako arbuioa. Zentzugabekeriaren taxua ematen zaio erabilera

berreskuratzeko saiakera orori, eta bere legea oldarka inposatu nahi duen arlotearena ahaleginean ari denari.

Euskarak bere Memoria landu beharra dauka, eta espektro zabal batera hedatzeko bidea egin, euskaldun kontzientziatuz gaindi. Garai makurragoak ezagutu ez dituzten gazteen-gana iritsi behar du, aurreko belaunaldiak egin behar izan zituzten ahaleginak ezagutu ez dituztenengana. Eta arbuioa eta distortsioa besterik jaso ez duten erdaldunengana.

Presentismoak bide ezin oparoagoa aurkitu du euskararen arloan. Iraganaren zama alboratuta, urte luzetako debeku, gutxiespen eta desoreka demografikoak ahantzita, eskrupulurik gabe barreiatu izan da haren aurkako arbuioa

Momentuz, Memoria Historikoa esan, eta 36ra jotzen dugu zuzenean, garaiari dagozkion denbora mugak orduantxe hasi eta bukatu izan balira bezala. Gerraren beroan pasarazitako basakeriak ekartzen dira gogora, gertaera ukatuak egiazta-tzeko eta argitara ekartzeko ahalak egiten dira, datuak alde-ratuz, testigantzak bilduz, argibide ofizialak falta direnean lekukoek usteak ere kontuan hartuz, urratsak dokumentatuz. Jakina, premia larrienari ematen zaio lehentasuna, nagusiki desagerraraziei, eta haien senideek behar duten ordainari.

Latza izan behar du desagertuak uzten duen zuloa. Eta are latzagoa ofizialki hil ez den horren hezurdura agerrarazteak senide eta ingurukoek buru-bihotzetan sortu behar duen emozio anabasa, aurkikuntza 80 urteko atzerapenez heldu bada ere. Norbere haragitan bizi izan duenak besterik ez dezake senti seguruen, erraietatik zer nolako leherketa dato-rreren holakoetan. Baina suma liteke. Antza hartzen ahal zaio, gorpuzkinak erreskatatu dituzten kasuetako irudiei begira, eta haietan bildutakoek aurpegi keinuei erreparatuta bere-ziki. Zintzurra estutzen duen korapiloa askatzea bezalatsu dela ikasten da, ezin biziaren amaiera dela. Eta ordu arteko guztiagatik amorrua. Eta ezinaren ezina. Eta dohakabetzen duen mina. Eta negar ezin eutsia. Eta era berean esker ona, espero ez denaren eskutik heldutako laguntzagatik, edo ez. Eta atsedena, zor bat gutxiago bizitzari, zor bat gutxiago norbere sustraiei. Eta arnasa sakon hartu beharra. Eta bakea. Bake arrotza eta iluna beharbada, baina batez ere bakea. Eta duintasuna. Eta zenbaitetan, tamalez, prozesua justifikatu beharra ere bai, honezkero eta ikusitakoak ikusita, halakorik beharko ez litzatekeen arren: «gertatutakoa argitu besterik ez dugu nahi, ez gara errudunaren bila ari», entzun izan da biktimen senideen ahotan.

Memoria ez baita mendekua, herraren aurkako antidotoa baizik. Errespeturako eta Bakerako bidea baizik.

Memoriak, baina, izenondoa eraman behar izaten du aldean. Deituratik beretik zehaztapenak eskatzen zaizkio usu, 'Memoria Kolektiboa' esatea baino definizio doituagoak,

orokortasunetik bereizteko, testuinguruan kokatzeko eta dimentsioaz jabetzeko, baldin eta bakoitzari berea behar bezala aitortuko badio. Anarkisten Memoriak eta Euskal Nazionalisten Memoriak errelatu ezberdinak osatuko lituzketen bezala, Familia Memoriak eta Memoria Politikoak ez dute zertan helburu bera izan. Lehenak zentzu pribatuagoa luke, Memoriaren bidez bilatu beharreko funtsak lagunarte jakin hori ase beharko luke. Hala, guztiz zilegi eta ulergarria da senitarte batek bere desagertua kosta ahala kosta aurkitu nahi izatea, baina iragana argitu behar hutsez, zer gertatu zen jakitea beste desiorik izan gabe, errudunik bilatu gabe. Norberaren erraietan astintzen denaz ari garelarik, zilegi eta errespetagarria halaber, aurrez esandakoaren aurkakoa ere: ezer mugitzeko premiarik ez sentitzea, hautsa harrotu nahi ez izatea, noizbait nola hala lortutako barealdia ez aztoratzearren.

Memoria Politikoak, ordea, urrunago heldu beharra dauka definizioz. Ezer gutxi da gertatutakoa argitzea, berorren erantzukizun politikorik eskatuko ez bada atzetik, eta Bakerako bidean, egia, justizia eta ordaina bilatuko ez badira. Memoria Politikoak Historia berridazteko lerroak erraztu behar ditu, Memoria guztien funtsa sintetizatu eta transmititu dadin. Eta halakorik, nekez eta ondo kostata.

Zentzu horretan, harrigarria egiten da Espainiako Memoria Historikoaren Legeak 36ko Gerrako nahiz frankismo garai-ko biktimen aitortza egitea, baina era berean, hobi komunak begirune horretatik albora uztea. Hain zuzen, hobiotan lurperatuta dauden biktimei gertatutakoa argitzea Memoria familiar eta pertsonalaren esparruko jotzen duelako esklusiboki, ez Memoria Politiko gisa, eta ondorioz, ez gizarte osoaren aurkako delitu gisa. Era honetan desagertutakoen familiek beren kasa edo elkarte pribatuen eskutik egin behar izaten dute egiarako eta justiziarako bidea.

Idoia Mendiak hizkuntza politikaz botatako esaldi sonatua gogorarazten du: «Euskara oso gauza intimoa da. Norberak erabakitzen du nola nahi duen bere burua adierazi».

Eta esparru pribatuan ebatzi behar omen denaz ari garela, intimitatean ondo baino hobeto gordetakoak, frankismoko azken fusilatzeen gaineko erantzukizuna. Angel Otaegi hil zuteneko 41. urteurrenean, haren sendiak garai hartako hainbat ministroren aurkako kereila jarri zuen Azpeitiko Auzitegian. Alferrik, ordea. Kasua preskribatuta dagoela argudiatuta eta Espainiako Amnistiaren Legearen babesean, epaitegietako bidea ukatu zitzaien; eta justizia eskatzeko aukera ez ezik, baita egia jakiteko modua ere, haren aurkako gerra kontseiluko sumarioa eskuratzen uzten ez zaienez.

* * *

Bestea mendean hartzeko borroka dagoenean, izan ageriko guda edo bake itxurako gatazka gordea, komeni ez den Memoria kondenatzea izaten da gakoa, aldez edo moldez bestelakotzea, eta asko dira helburua lortzeko baliatu ohi diren metodoak. Batzuk zinez nabarmenak eta suntsitzaileak. Komunikabideei esker munduan oihartzun zabala lortutakoan artean aipagarri, esate baterako, talibanek, 2001ean,

Bestea mendean hartzeko borroka dagoenean, izan ageriko guda edo bake itxurako gatazka gordea, komeni ez den Memoria kondenatzea da gakoa

harkaitzean zizelkatutako bu-da erraldoiak birrindu zituztenekoa, idoloak izaki Koranaren aurkako jotzen zituztelako, eta islama Afganistanera iritsi aurretiko garaia oroitarazten zutelako. 2015ean beste horrenbeste egin zuen Daesh-ek Sirian, Palmira kontrolpean hartu orduko: antzinako hiri greziar-erromatarra leherrarazi eta inguruko hainbat tenplutako aurriak txikitu. Unescok gerra krimenezat jo zuen ekintza.

Memoria guneak ez du, baina, Palmirako kasuak bezala turismoa barra-barra erakartzeko ahalmen eta ospe beharrik, suntsiketa pairatu behar izateko. Ezkaba aldean ere ederki

dakite zer den aurkariaren amorrua eta iraina, berorien aurkako errefusa eta ondorioak hain hedatuak ez izan arren. Orain hurrena, nazien ikurrak margotu zituzten fusilatuen omenezko monolitoan. Horren aurretiko pintadetan, «Arri-ba España», «Cristo Rey» eta beste.

Baina badira metodo askoz zibilizatuagoak ere; horren jokamolde belikoa agertu gabe, memoria ukatzeko langintzan biziki efektiboagoak gerta litezkeenak, ispilu-jokoz errealtatea alderantzikatzen dutelako. Esate baterako, kriminalizatzea. Legez debekatzea. Legitimitatea ebastea. Pertsona gisa ezdeustea.

Azken jokamolde horrek berak azalduko luke hobekien *Giltzapekoak: notas sobre la reclusión* erakusketa zela-eta Donostian 2016aren hondarrean gertatutakoa. Kartzela, psikiatriko eta babes-etxeetan barruratutako pertsonen obrak erakustea izanik asmoa, ETAko presoek egindakoak ere batu zituzten erakusketara, baina DSS2016 Fundazioak betoa ezarri zien, «terrorismoaren biktimak mindu zitzaketelako». Mingarri jotakoak ez ziren, ordea, lanak, egileak berak baik. Bizikidetzat gai nagusitzat daukan jardun batean, hain zuzen. Hala, terrorismoaren biktimaren oinazea, gainerako biktimena ez bezala, eterno, mugiezin eta politiko ageri da. Eta terrorismoan katramilatu izanagatik preso dagoenak gizartearekiko zorra kita dezan baino gehiago, hura behin bertiko desagerraraztea bilatzen da. Hil arte hil. Ez dezan bere existentziaren arrastorik inon utz.

Eta zer esan kulturaren bidez sortutako desorekaz edo hizkuntza bidezko inbasioaz, horiek ere asimilaziorako eta Memoriaren distortsiorako metodo ahaltzuak direla ez bada. Efektu motelekoak izan litezke, baina era berean gogorren jo dezaketanak. Indarkeria linguistikoaz ari bagara, ardi larruz beztitutako otsoaren parekoa da, inoiz ez agerian, beti sotil eta azeri, beti zibilizatuaren eta manera onekoaren maskarapean, noiz gertatzen ari den bereiz ez dadin, eta batez ere jazarria nahaspilatzeko artez. Eskubideen paradoxa du ezaugarri nagusia: guztiena bermatzeko, batzuen ukatu behar.

Edo, inor baztertua izan ez dadin, bazter ditzagun bazter-tzaileak. Haiek ez baitira inor. Haiek ez baitute tokirik inor baztertzen ez dutenen multzoan.

Zalantzarik gabe, denbora-pasa polita eskaintzen zaio bu-ru-hauste semantiko eta matematikoak maite dituenari. Bai-na jolasak jolas, indarkeria berbalak bide laua izaten du ho-rrelakoetan. Memoriaren berreskurapena disimulurik gabe aldarrikatu nahi izaten duenari kontzesiorik eskasena ere ez zaio egin nahi izaten nagusitasunetik, eta, makurrarazteko helburu horretan, edozer esatea libre, baita, alderantzira ba-litz, auzitegietara jotzeko aitzakia emango lukeena ere.

Horren ilustragarri genituzke Euskararen Nazioarteko Egu-naren kariatara Nafarroan abiarazitako kanpainari –«*Euskara gurea, denona! Sin el euskera, Navarra no se entiende*» zuen leloa, eta «*Tú ya hablas euskara cuando dices Osasuna, Txis-torra...*» esaldia lagungarri– atera zioten harrabotsa:

Aldaketarako gobernuaren lehentasunak, ikusten ari garen be-zala, honokoak dira: Gerra Zibileko hilotzak hobitik ateratzea, euskal hiztunak positiboki diskriminatuz gaztelania hiztunak negatiboki diskriminatzea (erreduntantziak erreduntantzia), okupatzaileei eta bizitza sozialaren animatzaile alaiiei diru nahiz espazio publikoak ematea, guardia zibilei eraso egiteagatik sus-mopean daudenen atxiloketak galaraztea, ingelesez ikasteko as-katasuna bertan behera uztea eta ezer gutxi gehiago. Testuinguru honetan, ez da harritzekoa euskararen balioa nabarmentzeko eta Nafarroako Foru Komunitatearen parte gisa aldarrikatzeko kan-paina martxan jarri izana.

[...] Jakina, inork ez du ukatzen euskara geure kulturaren parte denik. Kultur errealtate konplexu eta plurala interpretatzeko ga-raian sortzen dira arazoak. Zatiak ulertu gabe ezin da osotasuna ulertu, baina osotasuna ere ezin liteke zati bakarrarekin identifi-katu. Euskararik ezean zaila da ulertzea, adibidez, Leitza. Baina ederki asko uler daiteke Arguedas euskararik gabe. Bestalde, Na-farroa, Mendebaldeko kulturaren parte denez, ezingo litzateke kristautasunik gabe ulertu, baina nafar guztiak kristau izan eta mezetara joan behar dutela esango bagenu, kanpaina martxan jarri duten horiek berak aski urduri jarriko lirateke.

Espero zitekeen bezala, kanpainari luze zabal erantzun zaio sare sozialetan. Batzuek meme dibertigarriak jarri dituzte [«Tú

ya hablas árabe cuando dices alpargata», zioen batek, kanpainako leloaren ondoan zetorren esaldiari –«Tú ya hablas euskara cuando dices Osasuna»– kontra egiteko]. Beste zenbaitenak ez dira horren sinpatikoak izan [«Tú ya hablas euskera cuando dices Zulo», «Tú ya hablas euskera cuando dices Kale Borroka»], bai, ordea, aski deskriptiboak. Euskararen ustezko defendatzaile batzuek inposaketaren eta beldurraren bidez hizkuntza horri berorri egindako kaltearen erakusgarri dira. Bi gauza ezin hobeto etorriko litzaizkioke euskarari: askatasuna eta despolitizazioa (*Navarra Confidencial*, 2016-11-22).

* * *

Aterruna luzerik izan ez duen inguru honetan, bitxia egiten da krimen batzuek argia ikus dezaten lortzea, eta beste askok eta askok, berriz, oztopoa besterik ez aurkitzea, zirrikitu ziztrinik ere ez zabaltzea zor zaien bidea egin dezaten, gerra ofizial bateko testuinguruan izan edo halako izendapenik lortu ez duten gatazketan izan. Horixe bera bezain bitxia, bestalde, ahanzturara kondenatutako gertaera 80 urte luzeren ondoren behingoz berreskuratzea, baina isiltasun erabatekora behartu zuen garai amaigabeari, esan nahi baita frankismoari, ezikusia egite beharra. Legeak lege, horixe bera egiten baitzaio 40 urtez inposatutako sistemari, bizkarra eman, beste alde batera begiratu, gerran gertatutako bidegabekerien legitimagarri ez ezik, egungo gaitz larri askoren erantzule ere baden arren. Frankismoa parentesi huts eta antzua bailitzan azaltzen zaigu oro har, eta haren gainetik egiten da jauzi. Are. Frankismoa toles bat da espazio-denboran, isiltasun paktuak tarteko, ageriegia jarri ezin den zama astuna, eta ondorio kaltegarriak ditu gaurko eguneroko politikagintzan: gerra usaineko Memoria Historikoa aitortutzat emanik, gainerako gauza guztiei Trantsizioa deiturikoaren mugetatik aurrera bilatu behar zaie kausa eta zergatia, 1975.aren bueltan sortu eta hutsetik abiatu izan balira bezala, demokrazia jaio berriaren ustezko askatasunean. Ez dago mendetako jazarpenik. Ez dago aspaldian hasi, gerran gogortu, frankismoan gordindu, haren atzetik

lehertu eta azken boladan kamuflatuta jarraitu duen ukazio sistematikorik. Ez dago ezer harilkatzerik. Pentsatzen duenak ere ez dezake halakorik esan, apologia leporatuko zaion arriskuz. Horixe du neurria aplikatzen zaigun demokraziak.

Memoriari ez zaio aurrera egiten uzten. Garapena ukatzen zaio. Estatu legeek ezarritako itxituren barruan jardun beharra dauka ezinbestean, baldin eta nolabaiteko onespren ofizialik lortuko badu, baldin eta legitimitatea aitortuko bazaio, baldin eta Memoria izango bada. Langetatik at gelditzen den ezbehar, gertaera, indarkeria, ukazio, zauri eta min oro Ezmemoria da antza, beldurraren lengoaian mintzo direnen aberrazioa, inposaketa, eta hitz bakarrean, terrorismoa, batzuen sufrikarioa ohoratu eta besteen ukoa ezkutatzeko baliatzen den definizio zabaldu hori.

Eta halaxe heldu ginen zorioneko 2016.era, Donostiatik Euskal Herrian barrena lau haizeetara eta Mundura, Bakearen eta Bizikidetzaren izenean urte osoko etxafuegoak botatzera. Ezin protagonista hobeak aurkitu geure ipuina planeta minberatuan proiektatzeko. Kontakizun eredugarri eta bakana izan zitekeela sinestera heldu ginen. Artez jantzi nahi izan genuen, musikaz perfumatu, letrez dotoretu, ingurua intelektualki edertu eta goi mailako kulturaz sublimatu, apainketarik behar ez duen egia oinarritzko bat ahantzita: Bizikidetzaz ukaziorik gabeko Memoriaren onarpena besterik ez dela. Eta Bakea horren berorren ondorio logikoa. 🍌

Ignazio Aiestaran

Hiltzeko tankera aurrerakoia Europako kulturatik

Elhadji Ndiaye gogoan

Artikulu honetan kulturaren inguruko hiru auzi landuko dira: kultura bizitza sailkatzeko eta antolatzeko ordena gisa (hemen 'Foucault-Aresti' auzia deituko dena), ikuskizunaren gizartean hiltzeko tankera aurrerakoi eta modernoa –Europako kultura normalizatu baten barruan– (hemen 'Anders-Sarrionandia' auzia izanen da), eta faxismo eta liberalismoaren arteko subjektu erreaktiboaren kulturaren mehatxua ('Eribon-Borda' auzia izanen da testu honetan). Hiru atal izanik ere, ildo bati lotuta daude.

'Foucault-Aresti' auzia: kultura sailkapen gisa

Ziurki gorputzen adierazpena eta haien arteko harreman biziduna bertzerik ez da kultura. Soinu, hitz, irudi, forma, kolore, higiduraren bidez adierazitako ordena dira gure espeziaren kultura eta geure espazio sinbolikoa, mendeen poderioz saiatu, probatu eta findua. Egia hutsala da, denok jakina, baina, halaber, sakona. Datu sinple hori ahaztuagatik, kultura dela bide geure bizikidetzat antolatzen dugu planeta

sinbiotiko eta aldakor honetan. Aurten Joxe Azurmendiren azken liburua irakurtzeko aukera izan dut, *Gizabere kooperatiboaz* izenekoa (Azurmendi 2016). Abilezia handiz, Darwinen jitea eta ondorengo sozial-darwinismo politiko hedatuaren ideologia deseraiki dizkigu. Bizi(tz)a batzuetan lehia eta borroka da, baina bertze batzuetan kooperazioa eta elkarlaguntza ere bada hankabiko gizaberearen eboluzioan. Azurmendi aipatzearen (luzeagoz, ikus Aiestaran 2016), Piotr Kropotkinen *zôon koinônikón* ere bagara, eta ez soilik naturan galdutako izaki darwinista. Hala ere, ugaztun kooperatibo horrek bere espazio sinbolikoa antolatu eta kodifikatu izan behar du, hizkuntzatik politika eta estetikaraino, eta hemen hainbat aukera ezberdin dauzkagu gure sistema sozialaren aurrean. Maiz atzematen nauen erasana da mundu globalizatu honetan 'kultura' deitutako gailua handitu dugula, baina aldi berean pobretu egin garela, Walter Benjamin pentsalariak iragarri zuenez (Benjamin 2015).

Michel Foucault filosofoaren *Les mots et les choses* lanean Jorge Luis Borgesen kontu bat dugu, non azaltzen den animalien taxonomia inperio txinatarraren entziklopedia baten arabera. Sistema politiko eta kultural hartan,

... animaliak honelaxe sailkatzen dira: a) enperadorearen ondasunak direnak; b) baltsamatuak; c) bezatuak; d) txerrikumeak; e) uhandreak; f) alegiazkoak; g) txakur askeak; h) sailkapen honetan agertzen direnak; i) zoroen gisara aztoratzen direnak; j) kontaezinak; k) gamelu-ileko pintzel mehe-mehez marraztuak; l) eta abar; m) loreontzia apurtu berri dutenak; n) urrutitik eulien antza dutenak (Borges 1960: 142).

Les mots et les choses, berbak eta gauzak. Zelan elkartu multzo bi, nola adierazi errealitatea kulturaren bidez eta hitzen bitartez. Horixe izan da betiko erronka, gure sarea, gizabe-reon hutsunea eta ahalegina. Borgesen deskribapenean, adibidez, surrealista iruditu arren, inperio txinatarraren zenbait ezaugarri daukagu agerian: badakigu enperadorearen ondasunak garrantzitsuak direla sistema patriarkal hartan –ez dakigu deus herriko ondareez, ezta herria pobrea denik ere–;

badakigu margolanetan arte finolatua eskuratu dutela, gamelu-ileko pintzel mehe-mehea ekoizteko gai izan direlako; badakigu euliak eta txakurrak bezalako animalia arruntak ere bizi direla sistema ekologiko hartan, eta beraien kulturari animaliek munta dutela; badakigu inperio hartan alegiazko izakiak irudikatze beste ahalmen bat dela; eta h), j) eta l) atalekin dakigu multzo batean barneratze eta den-dena zenbatze ohitura dutela, guztia kontatu ezin badute ere, hots, sistem(at)ikoak izaten saiatzen direla. Bere 1966ko liburuan Foucaultek zenbait ideia gehiago gaineratu zituen: zein izan da gauza berdinen sistema baten arkeologia?, nola sortu zen historian zehar gure sailkapenak antolatzen eta ordezkatzeko dituen apriorizko ordena?, zelan bilbatu ziren bestelakotasuna eta berberatasuna ezberdintasunen artean?, zeintzuk ziren erabilitako analogiak, ordena eta osagai empirikoen kultura bat bete dezaten? Foucaultek barre egiten zuen Borgesen kontra horrekin, baina, aldi berean, ondoeza nabaritzen zuen hizkuntzaren ausiabantzaren aurrean (Foucault 1966: 10). Bide batez, ordea, filosofoak ediren zuen kultura orotan gauzak taxutzen dituen «barruko lege» (*ibid.*: 11) bat zabaltzen dela, gauzen eta hitzen artekoa. Barneko legedia horixe da ohartzen ez dugun kultura orokorra.

Foucaulten ikerketa agertu eta sei urte beranduago, Gabriel Arestik ‘Malgizon-en abenturismoa’ idazlana plazaratu zuen, 1972ko literatur liburu kolektibo batean. Zendu baino hiru urte lehenagoko testu horretan, ‘Malgizon’ edo gizon dongea Aresti bera da. Amorrutik handiz bere jendartearen errepaso bota zuen idazkian, batez ere ‘Malgizon eta lege berria’ atalean, non garaiko potret soziala topatzen dugun, sailkapen berezi bat dela medio. Erran gabe doa «gizon maltzurra eta lege berria» adieraziz Arestik «Jainkoa eta lege zaharra» lelo jeltzalea kritikatzeko zuela, tradiziozko jainko zaharrik gabeko ikuspegi materialista gizatiar berri batetik. Atal horretan klase eta kasten sistema bat deskribatzen digu gizabereon kultura politiko-ekonomikotik. Borgesekin Foucaultek esperimentatutako ezontsa hartzen dut Arestiren sistemaren barruko legea irakurtzen eta

konprenitzen dudan bakoitzean: hasieran barre, baina pittinka-pittinka zapore mingotsa jasotzen du zure irriak, amaieran gizabereen ordenaren ankerkeria desestali arte. Honakoa da Arestik asmatutako sailkapena (Aresti 1972: 159-160):

1) Deitura erdaldundun euskaldun berria, baldin eta Axular, Leizarraga eta Oihenarteren liburuak irakurtzen eta konprenitzen kapaz bada, eta baldin Lévi-Straussen liburuak buruz bada-kizki, eta judu-zale amorratua bada.

2) Deitura euskaldundun euskaldun berria, baldin lehen kastaren gainerako kondizioak konplitzen baditu. Hau, Lévi-Straussen liburuak buruz jakin gabe, Marx eta Engelsenak irakurri baditu, azken graduan klasifikatuko da.

3) Gainerako euskaldunak, baina Marx eta Engels irakurri eta konprenitu gabekoak.

4) Gainerako aberatsak.

5) Euskaldun baserritarra, honako bi kondizio hauek konplitzen baldin baditu: simaurra eta gorotza laudatu behar ditu, eta leitzen eta eskribitzen jakin behar ez du (euskaraz, behintzat; erdaraz ez dio inporta). Lehen kondizioa betetzen ez badu: hurrengo gradura iraganen da.

6) Nekazaritza indusiar bere bizi-bidea aldatu duen euskaldun baserritarra, baina bakarrik aberastu baldin ez bada; bestela hirugarren kastan klasifikatuko da.

7) Euskara galdutako baserritar enkartatu, arabar eta nafarrak.

8) Aljeriatik eta Marokotik etorritako pioiak.

9) Gaztelatik, Andaluziatik eta Galiziatik etorritako obreroak.

10) Pailardak.

11) Bugreak eta malguak.

12) Inpotenteak eta bukaninistak.

13) Ijitoak eta Navalcerrado del Carnero Castrado-n jaiok.

14) Malgizon Arestiar.

Lehen lau kastek klase bikaina osatzen dute, Gabriel Arestiren aburuz, sistema horretan. Hurrengo hirurak bigarren mailako klasea dira. Zortzigarrenetik hamahirugarrenera, aldiz, klase filipikoak, sailkapenaren terminologia horren arabera.

Idazle bilbotarrak salatutako kasta-sisteman, klase bikain horrek eskubide guztiak izaten ditu, eta obligaziorik, berriz, bat ere ez. Honakoak dira klase bikainari emandako eskubi-deak (*ibid.*: 161-162):

Langostak eta lanpernak jatea, xanpaina eta whiskia edatea eta montediosak erretzea, haiei bakarrik izanen zaie zilegi.

Sopelanako eta Bakioko xaletak haien jabetzakoak izaten segituko dute. Berdin yateak eta fabrikak. Eta gogo-girlak. Eta zerbitzuko neskameak. Eta caddyak. Eta eskeko pobreak. Eta eskeko fraileak. Eta meza emateko fraileak. Eta aita priora. Eta goardia-na. Eta aita goardianaren izeba Jaxinta, oraindik baserrian bizi dena. Eta yateko marinela. Eta marinelaren ama-ginarreba, beti erreumaren dabilana. Eta marinelaren ama-ginarrebaren konfeso-rea, apaiz zahar eta beneragarri hori, hain miope bera, sotana bakarra dadukana, Aita Santuaren entziklikak irakurtzeko antio-juak erosteko dirurik aski oraindik ezin irabazi ukan duena. Hitz batetan, kristau-herri guztia eta Kristo bera.

Zeren jabetza pribatua sakratua da, eta Legeko ez-dakit-zein-batgarren manamenduak (dotrina erdi-ahazturik dugu), hala baitiotsue: «Ez diguzue lapurtuko, guk zuei lapurtu dizueguna» (edo holako zerbit).»

Bikaina ez den bigarren klaseak hurrengo aukera eta biki-menak izaten ditu, idazle bilbotarrari jarraiki (*ibid.*: 162):

Bigarren klasekoek lan egiteko esku-bidea ukanen dute, eta emanen zaien alokairu apurratik ez protestatzeko obligazioa. Mutil onak baldin badira, urbanizatu gabeko barriadetako lau koartoko etsesketan bizi izatea permitituko zaie; gerra handirik ematen ez badute, haien umeak hamalau urtekin lanean hasi arte eskola batetara joatea utziko zaie (ba dakizue, leitzen eta eskribatzen, lau erregelak justu-justu, erlijioa eta formazio politikoa), eta poluzio sozialaren kontrako gerra santuan soldadu-kide borogatuak gertatzen baldin badira, igandero footballera joatea izanen zaie zilegi.

Hirugarren klase-motaz hurrengo atala diosku Gabriel Arestik (*ibidem*):

Klase filipikoek gure sozietatea poluitzen dute. Poluzio sozial honen kontra, kontzentrazio-kanpoetan sartuko dira, lan bortxatuetara. Nola lur santurik merezituko ez duten, haien hilotzekin jaboia fabrikatuko da.

Foucaulten taxonomia arraroarekin gertatzen zaigun bezala, Arestiren sailkapenarekin antzeko sententzia hartzen dugu. Alde batetik, ongi datorkigu gure jendartea bestelako

ikuspegitik azter dezagun (eta horretarako ere balio du kulturak, kasu honetan literaturak). Bertzetik, lurralde honetan gizabereen legedia ezkutua ikuskatzeko aproposa da. Baten batek erranen digu hori literatura dela, egile baten gehiegi-keria baizik ez dela; baina horixe da, hain zuzen, gauzen eta hitzen arteko erronka, *les mots et les choses* berriro. Hala ere, ba ote dago kontzentrazio-esparrurik egun? Lan bortxaturik ba ote? Bakean eta garai aurrerakoian bizi garela errepikatzen diguten bitartean, non? Europako txoko honetan ote, non ez garen baserriko gizabereak dagoeneko, baizik eta gizaz gaindiko hiritar lehiakor, kontsumitzaile modernizatu eta hautesle berdinduak? Ba al dago klase-sistematik gure kultur sistema hiritar berdinduan?

‘Anders-Sarrionandia’ auzia: hiltzeko tankera aurrerakoia bakean

Europako Kultur Hiriburutzaren barne, Donostian *Bakearen milia* eraldatu zuten: milia bateko edo 1.609 metroko erakusketa-ibilaldian bizipen artistiko berezia erakusten saiatu zitzaizkigun. Antolatzaileen eletan: «bakearen eta haren ifrentzua inguruan hausnartzeko eta parte hartzeko» espazio irekia, «bakearen eraikuntzari eta bere atzealdeari buruzko esperientzia bat, Urumean barrena egindako ibilbide baten bitartez». Horretarako hiru ardatz hartu zituzten gaketat: gerra, indarkeria eta gatazka armatuak. Erakusketan Urumea ibaia «metafora» bat izan zen, «ibaia muga natural bat bezala eta zubiak banaketa hori gainditzeko eraikitako elementuak bezala» (Askoren artean 2016).

Arte-milia jendaurrekoa izan baino lehen, polemika piztu zen udan, hainbat argazki-kazetariren kexuengatik, euren irudiak ordaindu gabe erabili nahi izan zituelako. Donostia 2016ko *Bakearen milia* erakusketa eta «bakearen inguruko hausnarketa» antolatu zituen K6 Gestión Cultural enpresak gutun bat bidali zien argazkilariei, euren lanak doan erabil zitzan, «irabazi asmorik gabeko» proiektua zelako. Pep Bonet,

Manu Bravo eta Gervasio Sánchez bezalako hamasei argazkilari profesionalen artean kexua zabaldu zen, erakustaldi horretarako 245.000 euro netoko aurrekontua jakin ondoren. Bukaeran, «gaizki-ulertua» izan zela esatera eta akordio batera heltzera bultzatu zuen polemika publikoak, baina zenbait sintoma agerian geratu ziren gatazka honekin: 1) kultur marka baten aurrean egileek euren lanaren jabetza galtzeko arriskua izaten dute naro; 2) goi-kulturaren eremuan sartuta jarraitzen dute ekintza artistiko-kulturalek, bitartekarien eskuen menpe, non prekaritatea eta diru-banaketa elitista nagusitzen baitira; 3) gai gorenak (bakea, gerra, indarkeria...) aipatu arren, kulturaren ikuskizuna gainbalio sinboliko-ekonomikoaren zirkuituan mantentzen da.

Polemikak bere bakea hartuta ere, azaroaren egun batean argazki-erakustaldia behatzea erabaki nuen. «Bakean bizitzen ikasi egiten da» esaldia irakur zitekeen panel erraldoi batean. Gero, neodarwinismo bakezale batetik justifikatzen zen erakusketa: «desberdinen arteko gizarte-harremanen gertakari naturala» dela gatazka, «giza harremani atxikita» dagoela, «eta aurrera egiten laguntzen» digula; «indarkeriak, berriz, bestea mendea jartzeko indarra erabiltzea eskatzen du». Ele preziosisten azpian, arima ederren bihotz oneko ideologia kontraesankorra ezkutatzen zen: 1) naturala da bizirauteko gatazka, ez, ordea, indarkeria (bide batez, non hasten da animalia naturala eta non gizaberea?); 2) bestea menderatzeko era bat da indarkeria oro, baina ideologia neutral horrek ez digu ezer esaten 'beste' horretaz, ezta indarkerien historiaz ere. Eta itsumustuan hurrengo nahaste-borrastea idatzita:

Eta zer da bakea? Umhhh... indarkeria ez egotea baino zerbait gehiago da. Bakea izan daiteke gizarte justuago baten bila dabilen gizarte osoaren egoera aktibo bat.

Baina hori ez da utopia? Bai, baina utopiak beti heldu beharreko helmugak dira. Eta bidean beste arazo batzuk konpondu behar ditugu: justizia, askatasuna, demokrazia, tolerantzia eta garapena.

Honela, hiritar onaren hiztegi aurrerakoa daukagu prest: bakea, justizia, askatasuna, demokrazia, tolerantzia eta

garapena. Halaber, hiritarkeriaren ideologia hori azkendu nahian, John Lenonen esaldi bat agertu zitzaidan, grafia handiz eta testuingururik gabe: «Gerra amaitu egiten da... zuk nahi baduzu». Gero, sarraski- eta kontzentrazio-esparruetan eta II. Mundu Gerraren ondorioz 40.000.000 hildako baino gehiago kausatu zirela irakurtzeko aukera izan nuen alboko testu batean, eta Europa askatzen tanke USAmerikar baten argazki erraldoia ikusteko ere bai, salbazio modura; ez zegoen aztarnarik, ostera, Berlinen nazismoa garaitu zuen Sobietar

Antza, gerra oren aurkako bake-ideologia-erakusketa-ez-dakit-zer selektibo honetan gerrak eta indarkeriak hautetsi eta bereizi egiten dira

Batasuneko armadaz. Dirudienez, zenbait guda eta armadak garrantzi handiagoa dute beste batzuek baino. Hiroshima eta Nagasakiko bonbardaketa atomikoei buruzko argazkirik ez. Halaber, gaur USAko gerraren metodorik eraginkorrena, droneena, jakitera emateko fitsik ere ez. Antza, gerra oren

aurkako bake-ideologia-erakusketa-ez-dakit-zer selektibo honetan gerrak eta indarkeriak hautetsi eta bereizi ere egiten dira.

Sarri Günther Anders filosofoak salatutako moral-mota (ikus Anders 2015) bat antzematen zaie halako erakusketei. Hainbat indarkeriadunen aburuz, lehiarako gai diren gailu batzuk baizik ez dira aintzat hartu behar, fintasun tekniko gorenaren lortu duten armak direla bide:

Jende horren aburuz, hiltzeko era modernoena akasgabeena da, ezinbestez, bai eta errugabeena ere. Alderantziz esanda: manifestari baten labankadak zauritua suertatzea (ez, ordea, neutroi bonba berri-berri batek eraso suertatzea) nahiko kontu zatarrak genuke, hau da, norberaren ohorearen kontrakoa (*ibid.*: 35).

Andersen ustez, indarkeriadun horien ideologia hurrengoan laburbiltzen da: «berria den guztia moralagoa omen da». Edo agintera erabiliz: «Hil zaitez tankera aurrerakoian!».

Erakusketa honetan, bonba atomikoen, bonbardaketa masiboen eta droneen triskantzak moderno-modernoak ziren, edo modernoegiak. Irudi-multzoan ere abagunea desagertu zen munduaren eta Europaren aurrean Durango eta Gernikako bonbardaketak bezalako krimenak sakon azal eta azter daitezzen (hori bai, haurrentzako 'Kid's Gernika' gune picas-siarra zegoen). Erakusketa kosmopolita neukan bistan, baina tokian tokiko baldintzak eta historia gehiegi miatu barik, ikuskizun bat unibertsaltasun globalaren bila sakontasunik ezean. Ildo horretatik, taula batean naziek besoan markatutako zenbaki bat eta Primo Leviren aipamen bat zeuden ikusgai, ez, aldiz, Miranda de Ebro eta Gurseko kontzentrazio-esparruak. Horiexek ez ziren kosmopolitak ikuskizun globalean ager zitezten. Eta afixa bakar batean, «Memoria» hitzarekin, frankismoaren eta demokrazia espainiarraren menpean duela gutxi arte ireki gabeko hobi komuna geneukan agerian, bakar bat soilik, azaltzeke nola izan zen genozidio hori Europako txoko honetan, non geratu diren erantzukizunak Europa demokratiko honetan, zergatik ez den gerra-krimenik epaitu giza eskubideen aldeko Europa amnesiko honetan. Modernotasun honetan, ikuskizunaren memoria arras meharra da. Hori bai, keinu kitsch posmodernoz, tanke bati aurre eginiko txinatar bat Maria Cristina zubian zutik zegoelako argazki-muntaia geneukan erakusketaren hasierako taula erraldoi batean, Txinan giza eskubideak eskatzea ultrademokratikoa eta modernoa delako, hemengo historia antidemokratikoa ahanzturan geratzen den bitartean. Halaxe funtzionatzen du ikuskizunaren gailuak garai teknologiko-estetiko hauetan.

Bakearen milian barrena ere, ETaren gizagabetzeaz bertze panel bat aurkitu nuen nire ibilaldian. Eta zoruan idatzita-ko informazioa, hori koloreko lauki batean, itzalen artean:

ETak eta Euskal Herriarekin erlazionatutako beste terrorismo batzuek 914 lagun hil zituzten. Horietatik, ETak eta horri lotutako erakundeek 845 lagun hil zituzten; eskuin muturreko erakundeek eta erakunde parapolizialek 62 lagun hil zituzten. Beste 7

lagun ere hil zituzten baina inork ez zuen haien hilketa bere gain hartu (Foronda txostena).

Hurran, Monbar hoteleko atentatuaren argazkia topatu nuen beste taula batean, «Demokraziaren aurkako erasoak» izenburua zuelarik. Behean, zolan, bertze aipamen zuzen bat:

Terrorismoaren aurkako borrokan badira egin behar ez diren gauzak; egiten badira, ez dira esan behar; eta esaten badira ukatu egin behar dira. Uste dut erantzun dizudala. (José Antonio Sáenz de Santamaría. Teniente Jeneral ohia. Elkarrizketa *El País*-en. 1995).

Idea eta irudi horiek gertakizun politikoak izan ez balira bezala, geroago «Motibazio politikoko indarkeria» gaiarekin Miguel Ángel Blanco zinegotzi gaztearen kasuarekin jende mordo baten argazkia atera zitzaidan pasealekuan, esku irekiak goi-goian. Eta bertze batean, José Antonio Ortega Lara, bonba-automobil bat eta aipamen luze bat: «Askok ikusi ditugu pertsonak lurtean hilda. Pertsona bakoitzaren istorioa ezagutzea beharrezkoa da. Ezinbestekoa, sufrimendu guzti hori alferrik gal ez dadin». Alboan, zenbait ertzainek atxilotutako gazte bat lurtean, burua bota baten azpian, izenik gabe. Eta hurrengo esaldia kakotx artean: «Aldamenean egokitzen ez bazitzaie, herritarrek pasibotasunez jokatzeko zuten». Eta argazki gehiago: ezkerrean presoek etxeratze eta eskubideen aldeko agerraldia, eskuinean Guardia Zibila etxe bateko atarian ekintza ofizial baten erdian. Beste alde batean, Aiete-Donostiako adierazpenaren zati bat, biktimez eta zauri pertsonal eta sozialez. Gero, letra handi-handiz, «Bakea lor daiteke» esaldia, euskal jendarteari igorritako azalpenarekin batera: «Hainbat urtez terrorismoa, indarkeria, giza eskubideen urraketa eta banaketak bizi ondoren, euskal gizarteak bakea eta bizikidetzaren sendotzeko erronkari ekiten dio».

Urrats batzuk aurrerago, askatu zuten eguna gogoraraziz, «1996ko urtarrilaren 17an bahitutako kartzeletako funtzionarioak 532 egun igaro zituen ETaren zulo txiki batean» zioen bertze mezu batek argazki baten azpian, «Guztiak balio du» esakunea letra samar handiz irakur zitekeelarik. Burua

jaitsiz gero, zoruan aipamen zuzen bat, lauzen gainean atxikita, George W. Bush presidente USAmerikarrarena, «Nazio guztiek eskualde guztietan erabaki bat hartu behar dute: edo gure alde daude edo terroristen alde daude», *Global War on Terrorism* kanpainaren egun latzenetako oihartzuna. Eta bertze panel batean inprimatutako datua, Amnesty International erakundearen eskutik: «Guantanamo dauden ia 800 presoetatik zortzi baino ez dituzte errudun deklaratu».

Guztion begi-bistan, hasieran mezu garbi eta zuzena ere jarri zuten milia honetan, ikuslearen parte-hartzea bultzatzeko asmoz-edo, Agora deituriko lekuan: «Indarkeria-eszenak estaltzen lagundu gizarte bakesu bat lortzeko. Aukeratu zure

konpromisoa non itsatsi». Dei hori irakurri eta zenbait egun gutxi geroago, *Lekurik gabe, denborarik gabe. Giltzapekoak* erakusketako hiru artelan zentsuratu zituen Donostia 2016k Koldo Mitxelena Kulturunean, egon behar zuten tokian zatar paperaz estaliz, preso egile eta antolatzaileen kezkarako. Obra debekatuen artean duela hogeituro urteko lana zegoen, emakumeek Frantziako espetxe batean bizi duten egoerari buruzko bideo bat: so ere egin gabe ikusmiratik kendu zuten gizarte baketsu eta moderno honetan. Elkarrizketa batean Dario Malventi antropologo eta erakusketa debekatuaren zuzendariak bakegintza, bizikidetzeta eta zubigintza kritikatu zituen, ezkututzen den falaziagatik:

Bizikidetzaren kontua falazia handi bat da, edukiei erreparatuz gero. Bizikidetzeta ahotan hainbeste darabiltenek irakurri izan balute Ivan Illichen *Tools for Conviviality* (1973), akaso beste debata mota batean geundeke. Horiek elkarbizitza aipatzen dutenean aipatzen dute betiko boterea aztoratuko ez duen elementu mo-

DSS2016k
zentsuratutako presoen
lan batzuk Txantxarreka
gaztetxean geratu
ziren ikusgai, berriro
kulturaren marra gorria
desestali eta azaleratuz:
kultura ofiziala versus
kultura alternatiboa

dura; elkarbizitza modu horretan planteatzea oso erraza da, ez dakar inolako aldaketarik. Botere horien baldintzak aldatu nahi dituzunean sortzen dira elkarbizitza kontzeptuarekin arazoak (Erostarbe 2016).

Azkenekoz, DSS2016k zentsuratutako presoen lan batzuk Txantxarreka gaztetxean geratu ziren ikusgai, berriro kulturaren marra gorria desestali eta azaleratuz: kultura ofiziala versus kultura alternatiboa, goi-kultura versus behe-kultura, marka kulturala versus kalteberatasun kulturala. Mundu ezberdin bi, jendarte berean.

Miliako azken ehun metroetan, hainbeste taula, hainbeste irudi behatuz gero, erakusketak laburpena finkatu nahi izan balu bezala, ikurriz bat begien aurrean: «Indarkeriaren amaiera». Eta goiburua horrekin batera, horri zegokion argazkia: egunkarietako argitaratutako berri berezia, ETAk armak utzi izana. Dirudienez, horretan gauzatzen zen erakusketaren xede nagusia, ETaren indarkeriaren bukaera indarkeriaren amaiera izanen balitz bezala.

Egia da erakusketan beste indarkeria-mota batzuk irudikatzen zirela, baina garbi dago horixe zela helburu garrantzitsuenetako bat. Emakumeen aurkako indarkeriarekin alderatuz, funtsezko kasu baterako, ibilbidean bi panel geneuzkan. Batean, Guatemalako argazkia, «Sexu-indarkeria: gerra-arma» goiburuarekin, eta hurrengo afixan, «Hurbileko amesgaiztoa» zelako ideari lotuta, Madrilgo emakumezko agerraldiari buruzko irudia, euren eskuetan pankartatxo bat espainolez: «Nos están matando» [«Gu hiltzen ari dira»]. Behealdean zenbait datu, baina hizki txikiagotan: «2015. urtean, genero-indarkeriaren ondorioz, Espainian 60 emakume hil zituzten, Euskadin 3». Horrez gain, bakearen milian zehar zenbait aipu guti gehiago. Haatik, bukaeran, beste batean ezagutarazten ziguten emakumea bakea lortzeko «aktibo» bat dela –management-hizkuntzaren terminologia aurrerakoi eta modernoaz baliatuz–, eta, lagin gisa, euskal andreak sortutako Ahotsoa ekimena aipatzen zen ildo horretatik. Eta, beti bezala, grafia txikiagotan, kontatzen zitzaigun Euskadin

pobrezia emakumeen artean handiagoa dela: pobreen %60 emakumeak dira eta %40 gizonak, Eusko Jaurlaritzaren arabera. Horren ostean, Rigoberta Menchúren esaldiren bat eta Mercedes Hernández Guatemalako Emakumeen Elkarteke presidenteak hunkitu ninduen esapidea: «Gerrako paradigmak 'lurralde-gorputza' beste bataila-eremu bihurtu du borrokalariantzat».

Emakumeak biztanleen erdia direlarik, argazki-erakusketa honetan ez ziren datu guztiak kontatu. Informazio gehiago falta zen emakumeen aurkako indarkeriaz. Errate baterako, lau emakumetik batek indarkeria zein tratatu txarrak jaso ditu genero-zioarengatik Europar Batasunean 15 urteko adinetik aurrera, eta Frantzian bost emakumetik bik, Europako Parlamentuaren datuen arabera. Beraz, nazioarteko arazo larria da, arreta handiagoa merezi duena: emakumeak ez dira bakean bizi, ez gure kontinentean, ez munduan. Halako ikuskizunetan ematen du emakumeak ikuspuntu exotikoa bertzerik ez direla, eta ez eguneroko errealitatea. Elfriede Jelinek idazlearen narrazio batean bezala (Jelinek 2013), ongi bizi gara hemen, gizonaren bakean, emakumea zapaldu eta baztertu ondoren:

hemen zoriontasuna ondo hazten da, hori bistan da.

[...]

norbaitek patu bat biziko badu, ez da hemen izango.

norbaitek patu bat izango badu, gizon bat izango da. norbaitek patu bat jasoko badu, emakume bat izango da (*ibidem*).

Ikuskizun estetiko orotan exotismoa beti arrisku eta kaltea izaten da, batez ere gure inguruko indarkeria soberan nabarmentzen ez dugunean. Bertze kasu baterako: iruzkindu dudan azken taulatik oso hurbil, bertze batean mezuak zioskun: «Nire etxean bizi nahi dut», Madrilgo argazki batekin, karrikan neskatoa ohean, etxegabetze krudelean kaleratua izan ondoren. Eszena horren oinean, Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalaren 25. artikulua: «gizaki guztiek, baita haurrek ere, etxebizitza duin eta egoki bat edukitzeko

eskubidea dute». Non zeuden Euskadiko etxegabetuak erakustaldi honetan? Non zeuden beraien argazkiak eta estatistikak? Zergatik Madrilgo etxegabetua eszenan eta ez hurbilagoa? Zergatik ez gogorarazi 2016ko urtarrilean Danborradaren erdian Bulebarreko banketxe bateko kutzazain automatikoan hilda aurkitu zuten emakume etxegabea, Europako Kultur Hiriburutzaren hasiera ospatzen ari zelarik? Hori galdetzen edo esaten bada, demagogia hutsa da; baina, bitartean, hobe da arazoak urruntzea eta irudi exotiko bilakatzea ikuskizunaren gizarte hiritardun kosmopolitan. Kanpoko miseria eta heriotza estetizatu, alboko lazeria eta hiltzea isilarazi. Halaxe da oroimenik gabeko ikuskizunaren mekanismoa.

Bakearen milia ikusi nuen eguna bukatu ondoren, gauez Bilbon langile bat hil izanaren berria entzun nuen, sabai-leiho batetik eroria, 10 metro inguruko jauskera. Soilik 2016ko urtarriletik irailera, 15 langile hil ziren Euskal Autonomia Erkidegoan eta 5 Nafarroako Foru Erkidegoan (eta Espainiako Erresuman bertze 330 denboraldi horretan). Baina bakearen milian ez zegoen lekurik hildako horientzat. Ez zen nehon aurkitzen lanean zauritu edo hil direnendako oroimenik. Horretan ere gutxienez bizpahiru klase sozial daude ikuskizunaren jendartearen, Gabriel Arestik aurreikusi zuen eran. Erakusketan Eleanor Roosevelten go-goeta bat irakurri nuen: «Bakeaz hitz egitea ez da nahikoa. Norberak bakean sinetsi behar du eta hori lortzeko lan egin behar du». Bakerako lan egin behar. Ondoan errotuladoren norbaitek idatzita utzi zuen letra larritan: «*Kapitalari gerra!*».

Kanpoko miseria eta heriotza estetizatu, alboko lazeria eta hiltzea isilarazi. Halaxe da oroimenik gabeko ikuskizunaren mekanismoa

Baina, antza, lana ez da gerra, baizik eta bake horren beharra, estetizarik gabeko normaltasuna.

Lapur banden etikaz Joseba Sarrionandiak idatzitako saioan, gure kapitalismo harraparian espektakuluarekin

«normalitate efektua» gauzaten dela ohartarazi digu. Honelaxe azaldu digu:

Normalitate efektu horrek denok integratzen gaitu eszenan. Eman dezagun langile bat bizi baldintza oso txarretan dagoena, eta protesta manifestazio batera doana: manifestazioa handia da, kontsigna iraultzaileak aldarrikatzen dira, poliziarekin arazoak dituzte, iluntzean ja etxera erretiratzen da langile haserretu hori, eta apartamentura sartzearrekin batera, besaulkian eseri eta telebista pizten du. Eman dezagun telebistan diotela polizia gehiago ipini behar dutela. Gure borroka armatuak ere, nire ustez, medioetan oso funtzionala bihurtu zelako irauin zuen hainbeste, antzerki horretan ezarri zitzaigun papera geure gain hartu genuelako. Guk paper horri uko eginda ere, urteak dira horren mamua biziarazi nahi dutela etengabe. Edozer bihurtzen da funtzionala nagusi den kontsumo eta antzerki sistemaren barruan (Sarrionandia 2015: 101-102).

Sarrionandiaren abisua ikuskizunaren aurrean pentsatzen duguna baino sakonagoa da. Ikuskizuna kritikatzeko badugu ere, bereganatu eta digeritu egiten gaituelako, eskandalu edo berritasunaren ondoren normalizatuz zein isilaraziz (eta publikoki komunikabideetan agertzean Joseba Sarrionandiak ere adierazi du¹). Antzekoa gertatu zitzaidan *Bakearen milia* ikuskizunarekin. Indarkeria, gatazka, gerra... dena irentsi eta erakutsi zuen erakusketak: baliabide naturalak munduan, txirotzea, oinarritzko beharrak betetzeko egunean dolar bat baino gutxiago duten 836 milioi pertsona, migratzaileen egoera Europa Gotorlekuan, defentsarako urtean mundu osoan 1,63 bilioi dolarreko negozio-kalkulua, eta orrialde hauetan azaldu ditudan argazki eta mezu guztiak, dena elkarrekin baina norabiderik gabe (Foucault-Borgesena taxonomia erotuan bezala), fede oneko anabasa neutro batean efektuak agertzen zirelako, ez, ordea, benetako kausak eta bideak. Halaxe eraikitzen dira gure bakea eta gure kultura. Bigarren eskuko kosmopolitismoa, kultur aniztasun tragiko baina exotikoa, eraginik gabeko sentipen hiritarrak lanerako edo etxerako bidean, barneko kontzientzia burgestuen kontsolamendua atzerriko edo kanpoko basakeriaren aurrean, hiltzeko tankera aurrerakoia estetizatuz eta normalizatuz,

nahi dugun indarkeria salatuz eta bertze motatakoak salduz, gure Europa demokratikoan arrazakeria, xenofobia, homofobia, matxismo, klasismo eta faxismoa zabaltzen diren bitartean, zergatirik jakin gabe. Klima-aldaketa globalarekin gertatzen zaigun bezala, argazki eta irudi anitz ikusteko gai gara, katastrofea gure atean joka entzuteke.

‘Eribon-Borda’ auzia: faxismo eta liberalismoaren arteko erauntsi perfektua

Orain arte artikulua honetan kulturaren bi premiazko arazo izan dira aztertuak: bizitzan ezberdintasunak eta normaltasuna sailkatzeko eta antolatzeke indarra (nik ‘Foucault-Aresti’ deitutako auzia) eta ikuskizunaren gizartetik hiltzeko tankera aurrerakoia Europa bakezale honetan (‘Anders-Sarrionandia’ auzia). Memento honexetatik aurrera hirugarren batez mintzatu nahi nuke (‘Eribon-Borda’ auzia deituko dut): faxismo eta liberalismoaren arteko erauntsi perfektua, Europan barrena hedatzen ari den indibidualismoaren subjektu erreaktibo iluna, kultura hegemonikoan zein antzerki politikoan inposatzen ari dena.

Didier Eribon filosofo eta gay ekintzailea Reims hirian jinen mundura. Langile-klasearen giroan jaioa, bere familiak homosexualitatea ulertzen ez zuenez, egun batean bere jaio-terria uztea erabaki zuen, eta Parisera bertaratzea. Han bete zituen bere ibilbide pertsonala eta bere karrera profesionala (ospetsua izatera heldu zen bere Foucaulten biografia, kasu). Bere aita hil ostean Reimsera itzuli zen, eta laster topatu zuen berriro «honte sexuelle» eta «honte sociale» nahasten zirela bere biografian, beranduago *Retour à Reims* liburuan (Eribon 2010) idatziko zuen moduan. Han kontatzen digu nola entzun zuen bere amak lehen aldiz Fronte Nazionala bozkatu izana, bere familiaren jaidura politikoa komunista zen arren. Bere haurtzaroan, bere sendian, bere *milieu* sozialean botoa komunista izan eta izaten zen, baina zerbait aldatua zen bere hirian. Nola? Zeintzuk izan ziren kanbiamendu horren zioak?

Eribonek nabarmentzen du Front National bozkatzean bere hirikideek klase-identitatea baieztatu eta isilpean defendatzen zutela: ENA erakunde nazionalaren hierarkiek mespretxatutako eta gutxietsitako identitatea, Parti Socialiste alderdiak trizionatu eta saldutako identitatea, Parti Communiste Français alderdiak ukatutako eta baztertutako klase-borroka eta identitatea (*ibid.*: 133-135). Langileen klasea idealizatu barik, klase/talde erdeinatuak iraindu eta hitz publikotik bereiziz gero, bertze era batetik adierazi zituzten beraien hira eta amorrua. Miaketa paralelotik, Didier Eribonek bere «honte sexuelle» edo ahalke sexuala harrotasun bilakatu zuen bezala, bere amaren klaseak «honte sociale» edo ahalke soziala amorrutako boto bihurtu zuen, baina oraingo honetan (langile) etorkin eta homosexualen aurka. Horrela elikatzen da faxismoaren subjektu ilun erreaktibo xenofobiaz eta arrazakeriaz, ezkerak mitifikatu duen herritik kanpo. Reimserako itzulaldi hura Frantziako Errepublikan ikusitako Fronte Nazionalaren bihurrrera ere bazen. Hori dela-eta, Eribonen ustez, ez dugu «multiplicité des luttes» (Eribon 2011: 52) edo borroka-ugaritasuna ahaztu behar, ezta desberdintasun errealak ere.

Eribonen 'introspektio soziologikoa' bat dator bertze zenbait azterketa eta lanekin. Errate baterako, François Durpaire historialariaren gidoia eta Farid Boudjellal marrazkilariaren irudiak direla bide, 2015aren bukaeran *La Présidente* komikia (Durpaire eta Boudjellal 2015; orain 'eleberri grafikoa' deitzen zaio genero horri) argitaratu zen, non deskribatzen duten Marine Le Pen politikariaren garaipena 2017ko hauteskundeetan François Hollande presidentearen aurka. Egileek

'Eribon-Borda'
auzia: faxismo eta
liberalismoaren arteko
erauntsi perfektua,
Europar hedatzen ari
den indibidualismoaren
subjektu erreaktibo iluna,
kultura hegemonikoan
zein antzerki politikoan
inposatzen ari dena

eguneroko parlamentuko sisteman gerta litekeen ukronia erakusten digute, Fronte Nazionalaren ideologiak sozialdemokraten liberalismoa gainditu ondotik. Bineta batean, Hollande galtzaile baten aurrean Le Pen presidente berriak egoeraren diagnosis laburtzen dio: «Pendant cinq ans, vous avez enfoncé notre pays dans la crise, accru les inégalités, injurié les vrais Français. Vous avez œuvré avec vos amis eurocrates pour les intérêts des grandes institutions financières et mondialistes» («Bost urteren buruan, gure herria krisian sartu duzu, desberdintasunak areagotu, egiazko frantziarrak laidoztatu. Zure lagun eurokratekin jardun duzu erakunde finantzario eta global handien interesetarako»). Halako diskurtsoa erraz uler eta barreia daiteke, eta edozein fobia sar daiteke chauvinismoarekin batera, xenofobia eta islamofobiatik arrazakeria eta homofobiara. Eskuin-muturra eta zentro-muturra gauza bera dira subjektu errektiboa martxan jartzen denean, hots, arazo ekonomiko eta sozialik konpondu ez dituen liberalismo indibidualista eta oldarkorraren azken emaitza. Eta berdin da zein izanen den irabazlea katastrofe honetan.

Ez gara maiz ohartzen nola deuseztatu diren kultura eta jendarteak ideologia sozio-ekonomiko horrekin. Itxaro Borda idazlearen *Post mortem scripta volant* eleberrian, ostera, primerako narrazioa dugu. Afari batean elkartutako pertsonaien ahotan dario egiazko ideologia ezkutua gai honen inguruan. Pasarte honetan, Patxik dio: «Ni zerbitzu publikoen alde nago. Baina ezkerreko abertzale gisa, uste dut erabiltzaleak behar duela zerbitzu publikoaren gastua ordaindu» (Borda 2011: 193). Kulturaren ezkerreko abertzalea izan arren, ekonomian publikoaren aurkako liberala da Patxi hori, eta gainera liberala muturreraino, konplexurik gabeko adorez:

Kaka zaharra. Ederra da defendiatzen duzuen zerbitzu publikoa! Beti greban, beti zinkurinaka, beti negarrez, egunero jasaten dituzuen laidoak ontsa merezituak dituzue! [...] Ulertzen dut arras zenbait jende onek fusila hartu eta berri txarrak ekartzen baizik ez dizkien pietun zabarra edo lan inspekzioko arduraduna kalitzea. Edo bere zuzenean dagoen ikasle batek irakasle funtziona-

rio bat nabalkatzea. Hori da gizartearen garbiketa, egiazko zerbitzu publikoa. Estatuak egiten ez duen funtzionarioen lekutze zereginak herritar pruntek beraiek obratzea (*ibid.*: 193).

Patxiren liberalismo ekonomikoari Joshua pertsonaiak biztanle «arabiar eta beltzen» aurkako arrazakeria eta xenofobia gehituko dizkio, Günther Andersek salatutako moral aurre-rakoiaren lagina izanen balitz bezala. Joshuaren xenofobia automobilaren zibilizazioan laburbilduko da, betiko gorroto modernoa, aztarna kolonialistez zipriztindua:

Bai hori da, [...] bakoitzak paga dezala baliatzen duen zerbitzua: medikua adibidez eritzen denak beregain hartu dezala Atik Zra, gu ez gara sekula eritzen beraz ez dugu usu eritzen denarentzat pagatzerik, berdin erretretentzat, zergatik ordaindugo dugu lanean arizan nahi ez duten alfer-saldoentzat? Eskolei dagokienez halaber, aski dute gure ikastolen eredia segitzea, guk gure haurren heziketa euskalduna ordaintzen dugu eta borondatezko lan ugari egiten horretarako, egia da estatuak ez baldin badu euskarentzat pilik pagatzen zertako pagatuko dugu guk hiri-bazterrak sutan datxizkaten arabe eta beltz mukizu horien eskolatze-ko? Ikusi duzue barda zenbat auto erre zuten? Autoa delarik gure zibilizazioaren ikurrik baliosena (*ibid.*: 194).

Solasaldi honetan, Patxiren liberalismoa eta Joshuaren xenofobia aurkeztu ondoren, Itxaro Bordak Aitor Ekidazu pertsonaiaren jarrera gaineratuko du: ekonomizismo-mota batetik ezker politikoari zuzendutako kritika, errentagarritasunaren ideologiatik:

Nahikoa atzeratua zara zure ezkerreko ideiekin. Ez dute funtzionatzen. Estatu batek ezin du gehiengoarentzat plantatu zerbitzurik ordaindu. Hautuak egin behar ditu. Zer da emankorrena gure gizartearen? Xeheeriak ala nagusigoa? Nagusigoa bistan dena. Jendeak badakizu zenbat kotatzen duen burukal: hemezortzi mila euro eta ez du mozkinik ematen. Ekonomia ministroaren gus-tuko estatu honetako hiritarra ez da errentagarria. Ez da horrela segitzen ahal. Bankarrotara goaz (*ibidem*).

Abertzale ezkertiarra euskaldunen artean, liberal porrokatua bertze hiritarren aurrean, Aitor Ekidazuren aitorpe-naren arabera:

Ni teorian abertzale izanez ezkerrekoa naiz, baina praktikan liberala naiz, libertatearen alde naizelako orokorki, libertate ekonomia barne. Gainera etsaiaren arazoekiko urrikirik ez dut. Estatua baliatzen dut ene helburuen lortzeko. Gaitzesten dut ene zerbitzuko ez denean. Erraza da ez? (*ibid.*: 195).

Primeran deskribaturiko berbeta horietan azaltzen digu Bordak nola datozen bat liberalismoa eta faxismoa eguneroko giroan. Ez dira kontrajarriak, baizik eta txanponaren bi aldeak kapitalismo harrapari eta gorrotatzailean, etengabe totalitarismoaren egarri: *Post mortem scripta volant* eleberriaren protagonista nagusia izenik gabeko emakumea da. Bera ez dator bat afalkideen ideologia ekonomizista, liberal eta xenofobo horrekin, totalitarismo ekonomiko batean estalitako faxismo politikoa atzematen duelako. Hona hemen bere salaketa:

Totalitarismo ekonomikoa aldarrikatzen duzue orduan? Fazismo forma bat, zeinetan ahulak, apalak eta ezberdinak baztertu litezkeen? Zuen artean nahi duzue? Zergatik etorri zarete honara afaritera? Baduzue burutik! Ulertzen dut nik nola bermatzen diren diktadurak: gizartearen zati txiki aberatsenak deliberatzen du gizarte beraren zatirik handienak ez duela ezer egiterik gizarteari dagozkien urratsetan, eskubideak ukatzen zaizkio, betekizunak biderkatzen. Fazismoa, hori baita azkenean, gehiengoaren konplizitatearekin aurrera eraman estatuaren pribatizazioa (*ibid.*: 196).

Klase ertaineko ideologia faxista burgestu horretatik alden-
du egingo da protagonista hori eleberrian. Zenbait urte jin
eta Baionako manifestaldi batean parte hartzeaz aurkituko
dugu berriro izenik gabeko emakumea. Sentimenduak bor-
borka, bere kolkorako hausnartzuz, Internazionala abestera-
koan kontraesan bat nabaritu zuen:

CPEaren aurkako manifestaldira abiatu nintzen, Santizpiritu zubi
gainean Santa Ursula plazara mila kide lehiatzen ikusteak oilo-la-
rrua ernarazten zidan eta nion, neurekiko, hauek denek solda-
ta-eguna galtzen baldin badute, Aitoren oharrengatik, nik zer
arriskatzen dut, hauekin bat nago. Aturri ibaian iltzatu nituen be-
giak eta ur handitan zebilan Donau azkorri hartako zerua bezain
urdina irudikatu nuen: buklea buklatua zen. CGTaren kamioiaren
papera heltzearekin askatasunaren *zapi gorriak* ahaidea hauteman

nuen eta handik laster internazionala: bitxiki ez nuen lortzen internazionala euskaraz abestea, ideologikoki ezinezkoa zitzaidan, eta halatan *du passé faisons table rase* murmuratzen nuen, *debout les damnés de la terre* auhenkatuz. Hizkuntzen arteko gataska nire baitan oinarritzko klase-borroka seinalea zen (*ibid.*: 210).

Hizkuntzen arteko gataska honetan bi munduk egin zuten topo, bi errealitate adierazi ziren. Edo, agerraldira joan baino lehen emakume protagonista horrek dioenez, bi borroka: nazio-borroka eta klase-borroka.

Aitoren, euskaldun liberal ahozabalen itzaletik ez zituen lan uzteak ulertzen, nola ez zituen langile herexen baldintza hobea goetarako aldarrikapenak onartzen: alabaina, kontent behar zuten nagusiek lan egiteko ahalmena zilegitzen zitelakoan: milesker eta burua ezkel. Euskaldunek sobera ontsa aztertu zuten nazio-borroka eta klase-borroka baztertu, eskola nazionalaren eraikuntzaren atal bat baino ez zela kontsideratzeraino (*ibid.*: 209).

Fikziozko literatura izanik ere, Bordak kontraesanak eta barruko gatatzak muturreraino eramane dituen arren, Eribonen oharpenarekin dator bat: ez dugu borroka-ugaritasuna ahaztu behar. Borroka-aniztasun hori kontuan, Bordak *Herria non grata* poeman dioenez, «duplizitatea» gure akatsik larriena da («Euskal gizarteak duplizitatez / duplikatzeaz beste axolarik ez du», dio idazleak –Borda 2014: 69–). Duplizitatean bizi garen heinean, betiko oztopoak mantentzen dira, familia, lana, aberria aldatu barik («Ez dira aldatzen Familia Lana / Aberria nehoiz ez» –*ibidem*–). Eta bitartean, faxismo eta liberalismoaren arteko kurrikek harrapatzen gaituzte (*ibid.*: 69-70):

Etxekalte
Segi aurrera
Abesten dute Miranderen faxismo
Probokatzailearen eta Friedmanen
Neoliberalismo mendekariaren
Artean aukeratu ezinean
Biez bat egiten dutela hain maite
Duten herriaren geroa
Finkatzeko nehoiz ez
Etxekalte.

Miranderen faxismoaren eta Friedmanen liberalismoaren arteko kurrikak gainditzeko ez dago lasterbiderik. Maiz entzuten eta irakurtzen ditugun azterketak sinpleegiak izaten

Miranderen faxismoaren eta Friedmanen liberalismoaren arteko kurrikak gainditzeko ez dago lasterbiderik. Eta Angela Davis euskaratzen hasi dela aprobetxatuz, «intersekzionalitate» gehiago behar dugu

dira, baina ahalegin honetan ez dago bidezidorrik, ikuskizunak kontrakoa sinetsarazi nahi digun arren. Eta Angela Davis euskaratzen hasi dela aprobetxatuz, «intersekzionalitate» gehiago behar dugula erratera ausartuko naiz. Berak dioenez, arrazaren, klasearen, generoaren eta sexualitatearen arteko loturak ezarriz pentsatzeko, analizatzeko eta antolatzeke ahaleginak beharrezkoak dira (Davis 2016a: 48), askatasuna etengabeko borroka

intersekzionala delako. Davisen *Emakumeak, arraza eta klasea* liburuaren hitzaurrean Lorea Agirre Dorronsorok dioen modura (Agirre Dorronsoro 2016: 6), menderakuntzek batak bestea areagotzen dute, eta horrenbestez elkarrekin borrokatu behar dira. Eta, ildo horretatik, bertze hausnarketa bat gaineratuko dut: intersekzionalitatea materialista den bitartean, zeharkakotasuna idealista izan da sarri, eta egun nehoiz baino gehiago premiazkoa da materialismo-mota hori ikuskizunaren ispilatzeen aurka.

Azken burutazioa bukatu baino lehen. Artikulu hau idazten hasi nintzen astean Elhadji Ndiaye hiritar senegaldarra hil zen atxilotuta Iruñeko polizia-etxe batean. Testua bukatu dudana astean bere jaioterrian lurperatu dute bere lagunak eta senideek. Oraindik argitzeke daude erantzukizunak heriotza horretan. Azalpenak eta laguntza eskatzeko asmoz bere lagunak, senideak eta SOS Racismo Nafarroak antolatuta zuten lehenengo manifestaldira bertaratu nintzenean, 200 lagun bertzerik ez ginen izan (Angela Davisen *Askatasun*,

etengabeko borroka bat liburuaren hitzaurrean Katakarak argitaletxeak ere badihardu etorkin beltzaren kasu honetaz). Egiantan erran behar dut hasieran dezepzio apur bat sentitu nuela, baina gero ez: baikortasun ezkorra da nire gogo, 'bai' horrek 'ez' baten aurrean joan behar izaten duelako beti. Pankartan irakurtzen zen bezala, azken buruan, «bizitza da handiena». Testu hau hiritar horri eskainia da. 🍷

Oharrak

1. Joseba Sarrionandiak bere agerpen publikoarekin hurrengoia bota zuen: «Aterako didazun argazkiarekin, espero dut espektakuluaren gizarteari zor diodan zerga ordaintzea, ez dezatela esan ez dagoela nire argazkirik eta kito, ea lan egiten uzten didaten. Hiru behintzat atera; bestela, txotxoloren bat etorriko da hogeita hamar egitera». Tamalez, ikuskizunaren gizartearekiko zorpean gaude beti, horrexegatik asimilatzen gaitu espektakuluak, nahi duen moduan, nahi duen unean. Ikus Jose Goitia: 'Joseba Sarrionandia: «Nire liburuak arreta apur batekin irakurtzen dituen ohartuko da non ibili naizen»', *Berria*, 2016-11-20 (www.berria.eus/albisteak/128873/nire_liburuak_arreta_apur_batekin_irakurtzen_dituen_ohartuko_da_non_ibili_naizen.htm).

Bibliografia

- Agirre Dorronsoro, Lorea (2016): 'Beste bat loturik deino, ez gara libre izango', in Angela Davis (2016b), 5-7.
- Aiestaran, Ignazio (2016): 'Gizabere kooperatiboa elkarrekiko historian', *Komunzki*, 2016ko ekaina (www.argia.eus/blogak/ignazio-aiestaran/2016/06/21/gizabere-kooperatiboa-elkarrekiko-historian).
- Anders, Günther (2015): 'Nahikoa al da bortxarik gabeko protesta?', euskaratua in Elena Martinez Rubio (2015), 33-38.
- Aresti, Gabriel (1972): 'Malgizon-en abenturismoa', in Askoren Artean; *Euskal Literatura* 72, Lur, Donostia, 157-180.
- Argia (2016): 'Hainbat fotokazetari kexu, 2016ak ordaindu gabe erabili nahi izan dituelako euren argazkiak', *Donostiaren 2016 ertzak*,

- 2016-06-23(www.argia.eus/blogak/donostia-2016/2016/06/23/hainbat-fotokazetari-kexu-2016ak-ordaindu-gabe-erabili-nahi-izan-di-tuelako-euren-argazkiak).
- Askoren artean (2016): 'Bakearen milia', *Donostia San Sebastián 2016 - Europako Kultur Hiriburua*, Donostia (www.bakearenmilia.eu/era-kusketa).
- Azurmendi, Joxe (2016): *Gizabere kooperatiboaz*. Jakin, Donostia.
- Benjamin, Walter (2015): 'Esperientzia eta pobrezia', in *Denbora, historia eta artearen inguruko testuak*, Sans Soleil, Gasteiz, 87-93. Itzulpena: Teresa Pradera Goikoetxea.
- Borda, Itxaro (2011): *Post mortem scripta volant*. Maiatz, Baiona.
- (2014): *Zure hatzaren ez galtzeko*. Elkar, Donostia.
- Borges, Jorge Luis (1960): *Otras inquisiciones*. Emecé, Buenos Aires.
- Davis, Angela (2016a): *Askatasuna, etengabeko borroka bat. Ferguson, Palestina eta mugimendu baterako oinarriak*. Katakarak, Iruñea. Itzulpena: Amaia Apaulaza Ollo, Iñigo Roque Eguzkitza, Garazi Ugalde Pikabea.
- (2016b): *Emakumeak, arraza eta klasea*. Itzulpena: Danele Sarriugar-te Mochales. Elkar eta Jakin, Donostia.
- Durpaire, François eta Boudjellal, Farid (2015): *La Présidente*. Les Arènes, Paris.
- Eribon, Didier (2010): *Retour à Reims*. Flammarion, Paris.
- (2011): *Retours sur Retour à Reims*. Cartouche, Paris.
- Erostarbe, Gorka (2016): 'Dario Malventi: «Ikusi ere egin gabe zentsuratu zuten obretako bat»', *Berria*, 2016-11-22 (www.berria.eus/paperekoa/1954/030/001/2016-11-22/ikusi_ere_egin_gabe_zentsuratu_zuten_obretako_bat.htm).
- Foucault, Michel (1966): *Les mots et les choses. Une archéologie des sciences humaines*. Gallimard, Paris.
- Goitia, Jose (2016): 'Sarrionandia, Joseba: «Nire liburuak arreta apur batekin irakurtzen dituen ohartuko da non ibili naizen»', *Berria*, 2016-11-20 (www.berria.eus/albisteak/128873/nire_liburuak_arreta_apur_batekin_irakurtzen_dituen_ohartuko_da_non_ibili_naizen.htm).
- Jelinek, Elfriede (2013): 'Emakume maitaleak (hitzaurrea)', *Elearazi*. Itzulpena: Danele Sarriugar-te Mochales (<http://elearazi.eizie.eus/2013/05/21/autoreak-plazara-elfriede-jelinek>).
- Martinez Rubio, Elena (2015): *Bidaia filosofikoak*. Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Sarrionandia, Joseba (2015): *Lapur banden etika ala politika*. Pamiela, Iruñea.

Donostia 2016ren porrota

Eta azkenean 2016a. Polemikarekin hasi eta polemikarekin bukatu da Donostiaren kultur hiriburutza, zer, eta asmoa, paradoxikoki, kultura bizikidetzaren lantzeko tresna izan litekeela demostratu nahi zutenean. Urtarrilaren 23an bertan hasi zen gerra, Hansel Cereza artistak sortutako inaugurazioarekin. Ez zuen inor konbentzitu proposamen hark, eta zorrotz ziren labanak emanaldia amaitzerako. Ordaina: 800.052 euro. Horrekin hasi, eta Koldo Mitxelena Kulturuneko *Lekurik gabe, denborarik gabe. Giltzapekoak* erakusketako zentsura kasuekin amaitu da urtea. Erakusketaren kasuan, espetsuan, kartzela psikiatrikoetan edota adingabeentzako kartzeletan preso diren pertsonen sortutako artelanak biltzea zen ideia. Baina bi euskal presoaren artelanak erakusketatik kentzea erabaki dute Donostia 2016ko arduradunek. Zehaztu dutenez, ordea, arazoa ez da izan piezetan zer ikusten den, baizik eta irudien egileak nor diren. Zer diren. Hots: euskal presoek egindakoak direlako zentsuratu dituztela. Egilea zaie iraingarri, ez pieza. Bi sinadura horiek bertan utziz gero, ETaren biktimak mindu zitzaketela pentsatu du Pablo Berastegik zuzendutako taldeak, eta horregatik erabaki dute artelanak zentsuratzea. Donostia 2016ko arduradunek azaldu dute gatazkaren biktimak mindu ditzaketen egileen lanak erakutsiz nekez egin litekeela bizikidetzaren alde. Baina azaldu gabe utzi dute nola egin litekeen bizikidetzaren alde gatazkaren parte bati eztabaida publikoan parte hartzerik naifena ere ukatuz. Larria da kontua. Erakusketa zentsuratuz, preso izaera ere ukatu diete euskal preso horiei, eta haien presentziari uko eginez, uko egiten diote preso horiek kartzelaraino

eraman dituen gatazkaren konponente politikoari ere. Nekez, Donostia 2016ren proiektuaren porrota irudikatu dezakeen adibide argiagorik.

Gerra ez da amaitu

«The war is over!». Gerra bukatu da. Esaldi hori irakur daiteke Txomin Badiola artistaren artelanetariko batean. Argazki bat da, eta bost mutil ikus daitezke bertan aldagela moduko batean. Atzealdean kartel bat, uso txuriz inguratutako emakume batekin, eta aipatutako leloa hor: «Gerra amaitu da». 1996koa da artelana, baina 2010ean berreskuratu zuen haren aipamena Rikardo Arregi Diez de Heredia poetak Artium museoan emandako hitzaldirako.

[Artelanean] propaganda ofizialak gerra amaitu dela aldarrikatzen duen bitartean gorputz errealek oihukatzen digute gerra ez dela amaitu, are gehiago, gerra ez dela inoiz amaituko [...]. Gerra amaitu da, baina gorputzetan ez da gerra amaitu, ez da inoiz amaituko. Gerra handia amaitu da orbanak, malenkonía eta antsietatea utzi ondoren, baina gerra txikiak, gorputzetan gertatzen direnak, hor daude.

ETA oraindik aktibo zen Arregik hitzok idatzi zituenean, baina berdín balio du bere gogoetak ETAk armak utzi dituenetik bost urte betetzen direneko erronka identifikatzeko. Gatazka ez da amaituko.

Izan ere, definizioan dago gakoa. Gerra egoera nork izendatzen duen da kontua, eta nork erabakitzen duen bakea heldu dela esatea. Mundua izendatzen duenarena da mundua. Eta azken urteetan gatazka birdefinitu eta problematizatzeke saio garrantzitsuak egon dira horregatik. Nabarmen, esaterako, feminismoaren esparrutik. Kasurik muturrenekoenean hor daude, adibidez, emakumeen aurkako bortizkeria ere gatazkaren definizioaren barrura txertatzeko egindako saioak; eta, kasu kulturalagoei erreparatuz gero, hor daude artearen historia berridazteke aldarrikapen historikoak ere.

Ez da Euskal Herriko kontua bakarrik, noski, baina baditu berezitasunak Euskal Herrian ere. Eta esango nuke ETAre jardun armatuaren amaierak ere erraztu egin duela orain arte ezkutuago izan diren gorputz eta aldarrikapen batzuk azaleratzea, eta mugimendu horiek lagungarri direla gatazkaren ulermena aberasteko. Eta, hain justu, gatazkaren definizioa aberasten laguntzea da, nire ustez, gatazka egoera batean kulturak egin dezakeen ekarpen nagusietariko bat, nahiz eta, tamalez, zentsura kasuak agerian uzten duenez, Donostia 2016 egitasmoak ez duen halakorik lortu, zeren eta, zabaldu beharrean, murriztu egin baitu eztabaida.

Apur bat molestatzeari

«Une honetan artistak ez du [gizarteak behar dituen kohesiorako] ikurrak sortzeko gaitasunik». Bereziki urte emankorra izan du 2016koa Txomin Badiola artistak: atzera begirakoa eskaini diote Madrilgo Reina Sofía museoan, erakusketa zabaldu du Bilboko Carreras Mugica galerian, Oteizaren katalogo arrazoitua kaleratu du, eta Donostiako San Telmo museoan Gaur taldeari eskainitako erakusketan ere hartu du parte. Ez da itxaropentsuegia, ordea, erakusketa horien harira eskaini dituen elkarrizketetan egindako diagnostia.

Merkatua da ikur handiak sortzeko gaitasuna duen bakarra. Haien sortzen dituzte gobernuak erorarazteko gai diren ikurrak. Artistoi ezin zaigu eskatu sinbolo handirik eraikitzeko, eskatzen ahal zaiguna da zalantzan jartzeko existitzen diren sinboloak. Horretara hel gaitzke asko jota.

Eta, beraz, kritiko bera ere Donostia 2016ko inaugurazio ekitaldiarekin, eta proiektuaren kultura bizikidetzarako tresna bilakatzeko asmo orokorrarekin.

Jendeari ikur handiak sortzeko eskatzen zaionean sortzen dena baldin bada Donostia 2016ko inaugurazio ekitaldiko zubiaren eta bizikidetzaren kontu hori, hori da *kitsch* hutsa eta lotsaga-

rria. Baina lotsa hori jendeak duen ikur behar horren sintoma ere bada. Jendea ez da ohartzen hain justu ere potroetatik harra-patuta dituztenek soilik dutela ikur horiek sortzeko gaitasuna. Guk egin dezakegun bakarra, apur bat molestatzea da.

Merkatuak irentsi du kulturgintza. Haizea Barcenilla kritikariak argi azaldu du kulturaren merkantilizatorako joera hori Jakinek eta Udako Euskal Unibertsitateak uztailean Baionan antolatutako saioetan. Eta, neurri handi batean, hori da arazoaren funtsetariko bat. Ekonomiaren esparruan jokatzeko da definizioen lehia. Barcenilla:

Esan genezake hiriaren zein kulturaren irudiaren bahiketaren aurrean gaudela, hori dela egungo paradigma berria: turismoari zuzendutako irudi homogeneoa sortu nahi da, aisiarekin lotutakoa, izaera kritikorik gabekoa eta kontestualizazio gehiegirik behar ez duena. Irudi horrekin bat ez datozen eta irabazi ekonomikoak ez dakartzaten publikoak baztertzen dira (okupak, kasu) eta autogestioa eta herri sareak zokoratzen dira. Identitatea, euskal identitatea geure kasuan, banalizatu eta komertzializatzen da [...]. Euskal kultura gero eta gehiago da bazkari onez hornitutako opor lasai eta erosoaren elementu osagarrietako bat, hondo kontzeptualik gabeko irudi hutsa (Jakin 215-216: 42-43).

Disidentziaren kostua

«Arteak dena aldatzen du». Bilboko Guggenheim museoak lelo hori hautatu du bere promozio kanpainetarako, 2017an ateak ireki zituenetik 20 urte beteko direla ospatzeko. Ezaguna da mitoa: Bilboren eraberritzearen motor nagusia izan da Frank Gehry arkitektoak diseinatutako eraikina. Hortik leloa, eta, gainera, museoaren kasuan ez da erabat gezurra ere. Munduaren aurrean Bilboren irudia birdefinitu du museoak. Telebistako teledenda saio horietako batean bezala, badago Guggenheim aurreko Bilboren argazki itsusi bat, eta badago Guggenheim osteko Bilboren argazki postaleko bat. Hori zuten buruan euskal erakundeetako agintariek

museoari lurrak eta sosak utzi zizkiotenean, hori bilatu dutte promozioarekin, eta horixe da lortu dutena. ETAk tiroz hildako Txema Aguirre Larraona ertzainaren heriotzarekin abiatu zen museoaren historia, eta barbarie hartatik zibilizazio honetara igaro den hiri baten ikur da egun eraikina. Hori da saldu nahi duten postala, behintzat. Lehen: gatazka sozial, identitario eta politikoak. Orain: turismorako gune lasai, garbi eta adeitsua. Baina nabarmen ikusi zaizkio josturak aurten maskara horri. Teorian bizikidetza eta bake sozialaren alde hainbesteko lana egin duen museoak arrakala soziala elikatzen baitu praktikan.

41 egun eman ditu atek itxita Bilboko Arte Ederren museoak aurten. Manpower Group Solutions enpresarentzat azpikontratatuta zebiltzan 34 langileek greba egin, eta atek ezin ireki egon da museoa. Bi eskari nagusi zituzten langileek. Bata: enpresak lan baldintzak hobetu ditzala. Eta bestea: museoaren jabe diren erakundeek hurrengo lehiaketa publikoa egitean egungo langileak kontratatzeke baldintza ezartzea. Eutsi egin zuten 41 egunez beharginek, eta, azkenean, lortu zuten akordioa. Baina justu kontrakoa gertatu zen Guggenheim museoan. Orduka lan egiteko azpikontrataturako 18 hezitzailek hasi zuten greba han, eta, azkenean, lanik gabe utzi ditu museoak. Kalera denak. Berez, irailean amaitzen zen Manpower Group Solutions enpresaren eta Guggenheim museoaren arteko hitzarmena, eta akordio berria egiterakoan lan baldintzak hobetzeko eskaria egiten zieten grebalariek museoari eta euskal erakundeei. Horregatik protestak. Eta protesta horiengatik gero kaleratzeak, azkenean, gogor zigortu baitute disidentzia. Kontratua amaitu baino egun gutxi batzuk lehenago jakinarazi zuen museoak 18 azpikontratazioak eten eta hiru lanaldi osoko langile kontratatuko zituela. Kitto gatazka, eta, noski, kitto gatazka azaleratu duten langileak. Bakea. Hiru postu horiekin lana finkoago bilakatu nahi izan dutela azaldu dute museoko arduradunek, baina argi dago titaniozko postalaren orbanak azaleratzea garesti ordaintzen dela. Molestatzen du, ezabatzen dute. Kito. Eta berriz dena da postal.

Ez dena bada

Kantuan amaitu nahi nuke urtearen errepassoa, halere: 2016ko urriaren 30a, Anariren kontzertua Ondarroako Portuko Rampa gune autogestionatuan. Anari mikrofonoan: «Parean eseri zaidan neska horrek ez daki / berak daraman jertsea erantzi niola behin beste bati. / Barrurantz begiratzan du berak leihotik / halako kotxe gorri baten maitatu zuen aspaldi». Eta ozen berarekin batera publikoa ere mikrofono beharrik gabe. «Kotxe gorrikoak ikusi du kalea gurutzatzen, / bihotzak salto egin dio jiratu da, eskerrak bera ez den. / Ez dena bada, beste norbaitentzat norbait ordea: / nahi gabe ukitzen diogu elkarri efemeridea». Eta bat-batean inpresioa, kanta intimista horiek ahoz gora kantatzean ez ote ginen ari kantuan 30 urte lehenago Kortaturen *Zu atrapatu arte* ahoz gora kantatzen zutenen antzera, 50 urte lehenago Lourdes Iriondoren *Ez gaude konforme* abesten zutenen antzera. Beste gorputz batzuetatik, beste doinu batzuekin, baina antzera. Inpresioa, alegia, ez ote ginen ari maitasun kanta intimista horiek gatazka kantak abesten diren bezala ere abesten. Hots: propaganda ofizialak gerra amaitu dela aldarrikatzen duen bitartean, ez ote ginen ari gu ere geure gorputzez gerra ez dela amaitu oihukatzen. Gerra ez dela amaituko kantatzen. Asko baitira bake ofizialak kanpoan uzten dituen gorputzak, eta gorputz horiek ere merezi dituztelako beren kantak. Eta gorputz horiek ziren kantuan zirenak. Lehen esan dut: definizioak zabaltzea da orain erronka, nire ustez, eta azpiegitura eta egitasmo ofizial handiek huts egiten duten puntu horretan asmatzen dute batzuetan kultur ekimen txikiek eta sortzaileek. Zirrara hori sentitu nuen nik Ondarroan, eta hain justu horregatik bukatu nahi nuke urtearen errepassoa ezpainenetan doinu horrekin. Gerra amaitu baita, ados, baina gerra ez baita sekula amaituko. «Efemerideak gugan zauriak direlako, / nor berak bakarrik minez ospatzen ditugulako. / Ez gaude egunkarietan; tabernan, autobusetan gaude, / eta elkarri ukitzen diogu efemeridea nahi gabe». 🍷

Oinez ibilitako plazak eta kaleak

George Steinerren hitzak gogoan egin dut ariketa. «Europako gizon, emakume eta hurrek oinez ibilitako plaza eta kaleek hainbatetan dituzte estadista, militar, poeta, artista, konpositore, zientzialari eta filosofoen izenak», zioen pentsalariak *Europaren ideiaz* saiakeran jasotako hitzaldian. Parisko Descartes, Auguste Comte, Racine, Corneille, Molière eta Boileau kaleak zituen adibidetzat. «Alemaniar hiztunentzako ere balio du, zenbat *Goetheplatz* (Goethe plaza), *Schillerstrasse* (Schiller kalea), edo Mozart eta Beethoven izenak dituzten plazak». Hitz horiek buruan ditudala atera naiz kalera. Atari pareko plakak hala dio: San Frantzisko kalea. Eskubian daukat Mirasol Kondearena, eta alboan Mariaren Bihotza plaza. Ezkerrerago beherantz San Anton zubia. Hau Bilbo da. 911 kale, eta beste hainbeste plaza, eraikin, zubi eta eskultura.

Alondegitik Azkunara

Alondegiazi Azkuna Zentroa izena paratu zion orain bi urte Bilboko Udalak, Iñaki Azkuna alkate ohiaren omenez. Seigarren urteurrena bete du 2016an, eta urtemugaren aitzakian Bilboko eta Madrilgo kazetariak gosaritara gonbidatu zituzten. Kafea, croissantak, eta Lourdes Fernandez zentrokotuzendariaren azalpenak. «Hiru ildo estrategiko dauzkagu: genero kultura garaikideari babesa, euskararen sustatzea, eta sorkuntza garaikideari laguntza». Kazetariak ikusi du hainbat proiektutan generoarekiko eta sorkuntza garaikidearekiko konpromisoa. Euskararena, aldiz, nola gauzatuko den galdetu

dio. «Euskara bera estrategikotzat jotzea da estrategikoa», erantzun dio Fernandezek euskaraz, ordura arte ez bezala. Azaldu dio gero adeikor euskarazko eskaintzari eusten nahiko lan duela zentroak, ezin baita gaztelerazkoarekin alderatu. Hori dio Bilboko udaletik sei milioi euro inguru jasotzen dituen erakundeko buruak. Hori da euskara estrategikotzat jotzea. Euskara estrategikoa dela esatea.

Esatea ere bada Txantxangorriaren irudia paratzea, esatea besterik ez. Bilboko Arte Ederren Museoak hitzaldietarako aretoko mahaian du itsatsita euskararen erabilera sustatzeko Jaurlaritzaren ikurra. Uso pasaren pare ikusi dugu 2016an, urtarrilean aurkeztu baitzuten irudia Jaurlaritzak, EAEko aldundi eta hiriburuetakoko ordezkariak, EUDELEk eta 90 eragilek Donostiako San Telmo museoan. Arte Ederren Museoak mahai horretan, ordea, nekez entzungo du inork euskarazko azalpenik. Hartu 2016ko museoaren argitalpenak. Bostetik bi daude euskaraz: *Maisuak*. *Bilboko Arte Ederren Museoa* eta *Bilboko Arte Ederren Museoaren buletina*. Eskultura hiperrealistari, Susana Talayerori eta Carmelo Ortiz de Elgeari eskainitako katalogoak euskaraz irakurri nahi izatera, baina, sarera jo beharko duzu. *Berria* egunkariako kazetariaren temagatik zintzilikatzen baitituzte web atarian 2015az geroztik. Segi paseoan Guggenheim museotik. Ezta hori ere. Iritsiko zara gero Bizkaiko Foru Aldundira. Txantxangorriaren irudia zintzilik duela, Euskara eta Kultura sailaren aurrekontua %11 murriztuko du Aldundiak 2017rako, proportzioan jaitsiera handiena izango duen saila. Eta horra Patxi Baztarrika Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen hitzak Txantxangorriaren kanpainaren hari-
ra: «Herritarren borondatean sinesten dugu. Ez dugu inor behartu nahi. Ez dugu nahi inor inoren gainetik egoterik». Kukua kabian izanda ere.

Planoa handitzerakoan, hala ere, esatetik egiterako biderik bada. Egiteko aukerak egon badaudela ikusi dugu 2016an. Maule, Donostia, Bilbo, Gasteiz eta Iruñeko udal agintariak elkartu ziren martxoan Mondragon Unibertsitatean. Bostak

euskaldunak, eta bostak ados euskara sustatzeko premiaren larriaz. Joseba Asiron Iruñeko alkateak (Conde Rodezno plaza zioen plakaren ordez Askatasunaren plaza paratu zue-nak) bota zuen datua: lau dira Iruñean orain euskarazko haur eskola publikoak. Guraso askorentzat eskas, baina hala ere aurreko ikasturtean baino bi gehiago. Nafarroan lehen aldiz ere D eredia hedatu da Tafalla, Lodosa eta Caparrosora. Eta 2016an pausoa eman duen Iparraldeko Lurralde Elkargoa euskararen onarpenerako bidea izan litekeela uste duenik bada. Estrata berri batzuk, Baztarrikarentzat Txantxangorria bezala «txikia eta hauskorra» ei den euskararentzat.

Eulalia Abaitua kalea

Euskal Herriko lehenengo emakume argazkilariak badu ka-lea Bilbon. Txurdinagan dago Eulalia Abaitua, hirigunetik aparte. Getxo Photok eta Euskal Museoak, ordea, erdigunera ekarri dute 2016an erakusketa banarekin. Eta ezezagunaren liluraz ikusi ditu bisitariak bere argazkiak, Euskal Museoak eskaintzen dion zazpigarrena bada ere. Periferia baita, ezezaguna. Emakumea baita, periferia. Ez da 2016an bazterretik berreskuratu den emakume izen bakarra. Enkarterrietako museoak, esaterako, Mari Dapena Balmasedako margola-riari eskaini dio erakusketa. Frankismoan komunista eta emakumea izaki «bi aldiz ahaztua izan den artista», Xabier Gantzarain arte kritikoaren hitzetan. (Berreskuratu, eta ka-learen ordez lorategia izango du aurrerantzean Mari Dapenak Balmasedan). Edo 200 urte pasatxo behar izan dira jatorri euskalduneko Rita Barrenechea idazlearen *Catalina* antzez-lana estreinatzeko Bilboko Arriaga antzokian.

Plazaratuta ere ikusgarri izan behar da erdigunean, ordea. Ekimen txiki bezain adierazgarriak ikusi ditugu horregatik 2016an, txikirik bada. Ikus-entzunezko arloko emakume profesionalek (H)emen Her(e) elkarteak sortu dute, esatera-ko. «Hemen gaudelako, existitzen garelako», zioen Izaskun

Arandia elkarteko buruak. Susa argitaletxeak Lisipe bilduma sortu du, eta Jakinek eta Elkarrek pentsamendu feministari eskainitako Eskafandra argitalpen bilduma paratu dute marxan. Kale propioa. Eta plazan ahoz gora hitz egin du Maite Berrogainek, adibidez. *Katalina de Erauso* pastoralara idatzi eta zuzendu du, inork ez zuelako moja alferezaren istorioa kontatu nahi. «Izan nintzen pastoral idazleen ate joka, baina esaten zidaten: ez, ez, hori emazte batek behar du idatzi. Nik ez nuen nire burua mementuan sentitu, baina hara». Ekainean estreinatu zuen pastoralara Baionan, irailean ostera Donostian eskaintzeko.

Euskal Herritik kanpo, Angulemako Komiki jaialdiko boikotak gurean ere izan zuen oihartzunik. Sarietarako 30 hautagaien artean emakumerik ez. Jaialdiaren 43 urteko ibilbidean, Florence Cestac zen saritutako emakume bakarra. Salaketaren aurrean, gizon hautagaien herenak uko egin zion hautagaitzari, atzera eginez aurrera egiteko. Ordu eskasetara barkamena eskatu zuen antolakuntzak, baina «jaialdiak ezin zuela komikiaren historia berregin», zioen oharrak, gizonen irakurri eta gizonen marraztu eta idatzitakoa zelako komikigintzaren historia.

Kulturaren belarri eta begiak, baina, emakumeenak dira. Durangoko Azokak erakutsi du bisitariaren profila, kultura arloro orokortu litekeen argazkia: emakumezkoak dira %54. Fidelak, batez beste 13 aldiz gerturatu direlako azokara. Deustuko Unibertsitateak, Siadeco ikerketa taldeak eta Gerediaga elkarteak 2016an plazaratutako ikerketaren emaitzak dira. Eta balio dute kulturaren emakumearen garrantzia agerian uzteko. Zuzeneko kontzertuetan izan ezik, emakumearen aurpegia duelako kultur kontsumitzaileak, bereziki literaturan eta arte eszenikoetan. Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Behatokiak kultura kontsumo eta ohituren 2008ko ikerketak hala baieztatu zuen. Bada historia *berregiteko* nahiko argumentu, eta ahalegin horren seinale dira adibide horiek. 2016ko batzuk besterik ez. Ez diezaiozun ezezagunaren liluraz begiratu zortzigarrenez Eulalia Abaituari.

John Adamsen eskultura

Jarraitu dezagun ibilian 2016ko izenak gogoan. Bilboko periferiatik, halabeharrez. Orain 80 urte hil zen Txirritaren kalea Txurdinagan baitago. Irteerarik gabeko aparkatzeko kale laburra da. Xalbadorrena, bere heriotzaren 40. urteurrena den honetan, Rekalde auzoan. Zorionekoagoak dira Gaur taldekoak, mende erdi bete duen taldeko Txillidak behintzat baduelako plaza erdigunean. Erakusketa ere izan dute Arte Ederren Museoa, Donostiako San Telmo museoko *Gaur konstelazioa* erakusketa nagusiaren adarretako bat. Eta Oteizak kalerik ez, baina eskultura du udaletxearen aurrean. Beste hainbeste urte bete ditu Ez Dok Amairu taldeak, baina ez eskulturarik ezta kalerik ere.

John Adams Ameriketako Estatu Batuetako bigarren presidentearen eskultura topatuko du, ordea, Kale Nagusira jotzen duenak, non eta Bizkaiko Foru Jauregiaren alboan. «Aparteko jende honek bere hizkuntza zaharra, talentua, legeak, gobernu eta aldaketa bako ohiturak gorde dauz, Europako edozein herrik baino gehiago». Bizkaira XVIII. mendean egindako bisitaren ostean Adamsek idatzitakoak jasotzen ditu eskulturak. Hitz horiengatik du eskultura erdigunean amerikarrak. *Amerikanuak* esaten badu, garrantzitsua delako. Eta amerikarrek zer esango ere izan dira 2016an Jaurlaritza eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko aldundiak. Euskal kultura izan baitzen Washingtongo Smithsonian jaialdiko kultura gonbidatua. 12.000 metro koadrotan irudikatu zuten euskal kulturaren 'esentzia': ostatua, baserria, portua, lantegia, euskaltegia eta frontoia ziren guñeak. Hori prentsaren aurrean aurkezten eta defendatzen buru Arantxa Tapia. Bai, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburua. «Euskal enpresen potentzialitatea erakutsiko dugu, euskal identitatearen parte baitira». Enpresari saldoa zihoan berarekin. Kulturaren erakusleihoak ekonomiari mesede egitea baitzen lehentasuna. Ekonomiaren mesederako baita kultura.

Horregatik aurkeztu zuen urrian BIME musika azoka eta jaialdia Imanol Pradales Bizkaiko Ekonomia eta Lurralde

Garapenerako diputatuak. «Musika ez da bakarrik soinua, irudia. Musika ekonomia ere bada». Horregatik du aldi berean Gipuzkoako Kultura eta Turismo diputatuaren kargua Denis Itxasok. Horregatik da garrantzitsua *Donostia 2016*. Ekitaldi programaren berri emateko Bordeleko So Good gastronomia jaialdia, eta Londresko World Travel Market, Madrilgo Fitur eta Berlingo ITB turismo azokak aukeratu zituen hiriburutzak. Eta horregatik da zilegi Gipuzkoako Diputazioak 700.000 euro bideratzea Smithsonian jaialdirako, oposizioak salatu zuenez. Durangoko Azokako 2016ko aurrekontu osoa baino 30.000 euro gehiago. Balantza duen aldera erortzen baita arbola, esaera zaharrak dioen bezala.

Zer hartu aintzakotzat, zeini non kalea eskaini, balantza horren baitan egiten du dantza erabakiak. Horregatik, John Adamsen laudorioak erdigunean dauden bitartean, Gabriel Arestiren hitzei entzungor egiten zaie. «Jainkoak eztezala nahi Bilboko karrika bati / Nire izenik eman dezaiotela», dio *Nire izena* poemak. Gabriel Arestik, baina, etorbidea du Txurdinaga auzoan. Eta Bilbotik ibiltzen denak ere zapalduko ditu *Bilbaoko kaleak* olerkian «higuinez» deskribatzen dituen Urkijo, Gardoki, Mazarredo edo Egia kaleak. Ariketa egina baitzuen Arestik. «Gorbeiara joateko gutizia sortzen zait barrenean / bertan organizatzeko euskeraren salbazioa», dio olerkiaren azken ahapaldiak. «Baina hemen geratzen naiz / kale arte honetan / milagro baten zai / egunero bizarrira kentzeari uzteko / naikoa kurajerik / ez baitdut». Hau Bilbao da, Steiner. 🍷

Garbi, dotore, batua

«Nire ikasle batzuek *kudeatu*, *bermatu* eta *sustatu* zer diren badakite, baina *elurbusti* hitzaren berririk ez», bota zuen Mikel Elosegik Twitterren azaro aldera, eta krak egin zidan barrenak. Zenbat aldiz egokitu zaigun txosten ofizial edo ez hain ofizialetan hizkuntza administratibo horren aurka egitea; zenbat aldiz korapilatu zaizkigun eskuak, idazten hasi eta suge bat bezala ateratzen zaigun hizkera mordoi-lo horren aurka egiteko unean; zenbat aldiz sentitu garen soka batek harrapatuta bezala. Eta akordatu nintzen David Attenborough dibulgatzaile handiarekin, aurten *Earth Nature* telesaio famatuaren azken atalak pantailan jarri dituen, oso hautu garbia egin baitzuen hizkuntza xaloaren alde, urrunduz artifizio, pellokeria eta akademizismo orotatik. Ahozko hizkeratik gertuko esamolde garbi, jantzi, dotore, batua. Akordatu, behin eta berriro entzuten dudanean euskalkien eta batuaren arteko nolabaiteko xextra, gure Iruñea honetan inondik inora ulertzen ez dena, baina, nonbait, herrietako gazteen artean bizitzen ari dena.

Hizkera xalo, hurbil eta oso benetako hori baduela iruditzen zait *Koaderno*a zuri antzezlanak, nahi baino isilago pasa dela uste dudana. Testu sotil baina oso sakona, antzezle onak, dekoratu soil eta eraginkorra. Iruñean zienta bat lagun egongo ginen bakarrik, pena. Arazo bat daukagu, maiz, aretoekin: kosta egiten zaigu neurria hartzea, eta maiz gaizki transmititutako agenda paraleloetan bizi garela iruditzen zait. Uste dut aurtengo lanik borobilenetakoa dela hala ere. Aldiz, histrioniko samarra egin zitzaidan, hainbat pasartetan, *Francoren bilobari gutuna* lana. Pisuegia. Gauza gehiegi batu eta kontatu nahia.

Zuzendariaren sadismoaz

Astinaldia izan da, bestalde, Tippi Hedren aktorearen salaketa Alfred Hitchcock handiaren kontra, abusuak leporatzen baitizkio aurten kaleratu duen memoria liburuan. Astinaldia, ez berria edo ezezaguna delako salaketa hori, aktoreak behin baino gehiagotan esana baitu oso gaizki tratatua sentitu zela hainbat filmetan, ezpada datu eta xehetasun gehiago eman dituelako, jazarpena larriagotu egiten dutenak, eta Woody Allenen kontra bere alabak duela ez asko kontatu zituenak gogorarazi zizkidatelako.

Hedren *The Birds* (Txoriak) filmean egin zuen lanagatik egin zen ezaguna, baina Hitchcocken film gehiagotan parte hartu zuen. Lan hartarako, zuzendariaren obsesio etengabea izan zen txorien sadismoa ondo irudikatzea; ondo kontatzea nola tematzen diren txori moko luze eta zorrotzekoak herri txiki bateko bizilagunekin eta, zehazki, herrira iritsi berri den emakume dotorearekin. Emakumeak erakarmen gaizto samarra duela iradokitzen du gidoiak, txorientzako jasangaitza den zerbait, erotzera eramaten dituen. Eszena gorenak, non beleak eskola inguratu eta erasotzen hasten diren, hirurogei korte zituen, eta filmatze taldeak sei hilabete behar izan zituen amaitzeko. Ganbarako eszenarako, esaterako, benetako kaio eta beleak erabili zituzten, Hedrenen ustekaberako, berak ere uste baitzuen, taldeko askok bezala, txori mekanikoak baliatuko zituztela. Bada ez, benetako txoriak izan zituen inguruan aktoreak, hegazti handi izutuak, bestela zuzendariarentzat nahikoa efektista izango ez zelakoan. Zazpi egun behar izan zituzten bakarrik eszena horretarako, benetan ikaragarria. Zazpi egun, bi minutu eta hamar segundo filmatzeko. Hedrenek esan zuen bere bizitzako asterik gogorrena izan zela.

Hurbildu dezagun kamera.

Platoaren inguruan kaiola bat eraiki dute, txoriek alde egin ez dezaten. Laguntzaileek txoriak aktorearengana xaxatzen dituzte etengabe, besoraino babesten dituzten eskularrien

laguntzarekin. Filmean Hedrenen eskuan ageri den kaioak gomaz estalia dauka mokoak, baina aktorea benetan izututa dago. «Lurrean etzatera behartu ninduten, hegaztiak lotuta nituela soinekoan, eta hegaztietako batek begia harrapatu zidan. Eseri eta negar egin nuen. Ikaragarria izan zen». Kaio batek zauria egin zion ezkerreko betazalean, odolez utzi zion. Camille Paglia idazleak, filmaren inguruan idatzitako saiakeran, gogoeta egin zuen Hitchcockek bere izarra tratatzeko modu horren inguruan, eta sadismoaz hitz egin zuen. «Tortura ditzagun emakumeak» esana zuen zuzendaria, erdi txantxetan.

Espazioa nola besarkatu

Denbora askoan zehar, mitoak berak ilundutako artista izan da Oteiza (1908-2003). Haren nortasunaren eta haren hitzaren pisuaren eragin izugarria neurritz kanpo egon dira egin zuen eskultura-lanarekiko.

Txomin Badiolak aurtengo otsailean aurkeztu zuen *Oteiza. Eskultura katalogo arrazoitua* lan monumentalaren lehen esalditik ulertzen da Badiolaren afana: Oteizaren eskulturrei balioa ematea, daukatena, hainbeste txinparta sortu zituen pertsonalitate konplexu eta poliedrikoaren interferentziak albo batera utzita. Orioko artistaren lanaren «potentzia formala, espaziala, diskurtsozkoa, are espirituzkoa ere ikusteko eta sentitzeko».

Interesgarria da Oteiza pertsonaiaren eraginarena. Nolako indarra zeukan, ze puntutaraino gai zen ingurukoa estali, desitxuratu eta suntsitzeko. Baita argitu eta birsortzeko ere. Lan bat dago egiteke: prentsaren bidez transmititu zituen irudien arteko kontraesanak aztertu eta azaleratuko dituen ikerketa, edo erreportajea. Sorgin hutsa baitzen. Begirada eta hitzarekin edonor liluratu eta lokarrarazteko gai zen azti bizartsua. Egun batean gauza bat eta hurrengoan bestea esanez gozatua hartzen zuen ahobero atorrantea. Distantzia txikian, maitagarria. Begitan hartuz gero, gorrotagarria.

Horregatik hain zuzen ere, azti, sorgin, totem eta ikonoa izatera iritsi zelako dena batera, horregatik da garrantzitsua Badiolaren lana. Artistaren benetako neurria ematen duelako, oihartzun eta bozgorailuetatik urrun.

Badiolak lau etapa bereizten ditu Oteizaren sorkuntza ibilbidean. Lehenak 1955era arte irauten du, eta eskultore konbentzionalaren emaitza da, lan baldintza prekarioetan egingandako bidea, Euskal Herrian ez ezik Ameriketara ere burutua. 1955ean, produkzio lana nabarmen aldatu zuen Oteizak, eta produkzio txikiko ehunka modelo egin zituen. Han egongo zen artistarentzat, aurrerantzean, harrobi amaiezina ez bakarrik berarentzat, baita hurrengo artisten belaunaldientzat ere, ze, Badiolak azaltzen duen bezala, maketa eta klarion txiki horien atzean zegoen esperimendazio gogoaren azken muturrean, arte-operazioaren benetako produktua artista bera baitzen, artista bat bere eskulturari uko egin eta gizartean zuzenean –politikoki, sozialki edo pedagogikoki– esku hartzeko prest dagoena.

Hirugarren fasea Oteiza idaztera eraman zuten urteek osatzen dute, bere ikerkuntza estetikutik ondorioztatuko metodoak erabiliz. Azken etapa, berriz, arrakastarena da, La Caixa finantza etxeak 1988an antolatutako atzera begirako handiaren ondorioz sortutako prestigioarena. Ordurako, Oteizaren emaria amatatua zen, eta pertsonaia nagusitu zen oroz gain.

Eta orain, obra guztiak bilduta elkarren ondoan bi liburukitan, den-denak inbentario zehatz batekin lagunduta, kronologikoki sailkatuta, oso garbi antzematen zaio kaskazuriaren lanak lotzen dituen hariari. Orriak azkar pasatzean bizitza hartzen zuten marrazkien liburuekin nola, Oteizaren eskulturen artean etengabe dagoen korrontearen ibilbidea inoiz ez bezain argia begitantzen zaigu: Balentziaga pintorearen bustoaren eta Sainz de Oizaren omenez Nafarroako Unibertsitate Publikoan dagoen *Bi diedroen oposizioa* izeneko eraikuntzaren arteko asmo ia berdina, koherentea 70 urte igarota ere: ideia edo asmo bat espazioan atxiki nahi, eta, era berean, libre uzteko gogo; espazioa bera besarkatzeko bulkada.

Koherenteak izan dira Txillidatarrak ere EAEko administrazioarekin izan duten tirabiran, eskultorearen ondarea bil-tzen duen museoaren finantziazioa edo salerosketa dela eta. Kopurua izan omen zen ustez egina zegoen akordioa azken unean hankaz gora bota zuena. Baina artearen merkatuaz zerbait dakien edonork daki Txillidatarrek gordetzen duten funtsen balioa merkatuan administrazioek jarri behar zuten diru hori baino askoz handiagoa dela. Zergatik orduan operazioari Gipuzkoako agintariek jarri zioten betoa? Merkatuaren legeen arabera operazio handi eta delikatuarekin lotuta agertzeko erreparo etiko edo moral guztiz ulergarriengatik? Ala bertigoa, hauteskundeak begi bistan zituztela, horrelako zenbaki potoloek, murrizketen garaian, utz zezaketen irudi eskasa zela eta?

Izuaz eta amore emateaz

Aurten argitaratu diren liburuen artean, bat: Arantxa Urretabizkaiak Hondarribiko alardearen inguruan idatzi duen *Bidean ikasia. 1993-2016* (Pamiela). Beldurra zer den herriko alardean deskubritu zuela kontatzen dueneko. «Ezta-rria lehor», horra izuaren definizioa. Sinatuko luke trantze horretan egon den edonork. Kale Nagusiaren goialdera iri-tsitakoan, plastiko beltzen artean igaro ondoren, sentsazio horrek laburbiltzen duelako gorputzak inekibokoki bidaltzen zizun mezu argia: kontuz. Urretabizkaiaren gogoeta interes-garria da teorizatzen duenean Bidasoako bi herri nagusietan gertatutakoa, eta gure herri osora zabaltzen duenean: bera sinetsita baitago gurean oso konbentzimendu sustraitua dela bortizkeria txiki bat erabiltzea nahikoa dela bestea beldurtu, isildu, menperatzeko. Hori ikasia dugula. Hori ez dela desa-gertu, eta kosta egingo dela desagertzea, ETAren bortizkeria pasatu eta urte askotara ere.

Durangoko Azokaren urteroko uholdearen aurrean, gerta-kari harrigarri bat. Aurtengo liburu izarretako bat, Kirmen

Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* (Susa), gaztelaniaz aurkeztu da lehendabizi, eta Madrilen aurkeztu azaroaren erdialdean. Bai, izan liteke ñabardura txiki bat, izan liteke detailea. Baina esanguratsua egin zait oso. Sortu euskaraz sortu den liburua, idazlearen eskuetatik euskaraz jaio eta editoreen borragomatik euskaraz pasatu den testua, gaztelaniazko bertsiora ere euskararen bidez iritsi den kontakizuna, noiz eta Durangoko Azokaren bezperan, Madrilen aurkeztu da lehendabizi gaztelaniazko edizioa. Gure esparruaren ukazioa iruditu zait. Espazio txikia, txikiegia agian, ados. Baina espazio bat, hain zuzen ere liburu hori eta beste asko posible egin duen espazio bat, jende bat, ahalegin bat, ukatu edo zailantzan jarri duena. Izan litezke argitaletxeen erritmoak, izan litezke prozedurak, izan litezke konpromisoak. Baina amore emate triste antzeko bat iruditu zait. 🍷

Harri-txintzar bat gurpil zoroari

Urtea ahitzear dela, ezagun da, errepassoa egin behar, argitaratutako liburuak zerrendatu, sailkatu, zorrak kitatu burua garbi egin ahal izateko abegia datorrenari. Mugarriak bete. Ekaina eta iraila garrantzitsuak dira baina abenduaren hogeita hamaikagarrena da zinetan inportantea; arbitrarioa, noski, baina horren arabera antolatzen ditugu uztak, nolabait antolatu behar. Urtarrilaren lehenetik aurrera etorriko dira liburu gehiago, ezin gara entretenitu, badoa mundua aurrera, 15 minutuko ospea, 140 karaktereko fama, erabili eta bota: mundua presaka dabil, kapitala zer esan. Zein izan da aurtengo freskoena? Zein aurtengo gazteena? Zeinek ekarri du lehen aldiz aurrez jorratu gabeko gai bat gure literaturara? Zer autore daukagu lehenengoz euskaraz? Irakurle-taldeen irakurriena? Salduena? Bertxiotuena? Zeinek eskuratu ditu bekak?

Baina hori guztia badakizue. Neure defentsan kontatu dizuet, ez besterik. Azaldu beharra neukan zergatik ez dudan hori egin nahi, zergatik nahi ditudan hona ekarri gaurkoak barik atzokoak ere badiren zenbait gai, eta biharrari begiratu, artikulu batez behintzat eten presa hori, ez jarraitu (neuk) halabeharrez aurrera.

Iragan hurbila

Abiadura handiko digestioaren gaitzak bortitz dagio eraso literatur kazetaritzari (bada salbuespenik). Honelakoxea da sarri horretan gabiltzanon martxa, neurea bai behintzat:

Prentsaurrekoa kubritu → Kronika idatzi → Igual elkarrizketa egin → Aio. Durangoko Azokak areagotzen ditu abaila eta joera, eta horren ataritan ari natzaizue idazten, horren eraginpean: azaroko azken asteetan orotariko lagunak baino puskaz sarriago ikusten dituzu beste hedabideetako kazetariak eta argazkilariak, zer esanik ez editoreak, hortxe elkartzen zarete jakak bustita Donostiako Alde Zaharreko aretoetan, sotoan, liburutegi zaharrean, Elkarren.

Zorionez, irakurleen hesteak bestela dabilta. Zorionez, irakurleak irakurtzen du liburu bat epez kanpo, demagun, ero haizeak jota, 2013ko bat 2016an, edo 2008koa, edo 1900etako inkluo! Batzuetan irakurri ostean ere geratzen zaio bueltaka istorioaren ertz bat, eta supituan burura etortzen, tokiz kanpo, behar ez duen sasoian. Noizbait ere gertatzen zaio: ohartzen da orain ulertzen duela benetan liburu haren muina, garai batean arrapaladan edo buru-belarri lotu gabe irakurri zuena. Batzuetan, berrirakurri ere berrirakurriko du.

Zorionez, literatur/kultur kazetaria batzuetan bada irakurle ere. Liburu hura irakurri zuen, eta halako autoreri elkarrizketa egin; estu zebilen epearekin eta ez zion eskaini nahi beste patxada, autorea hizketan aditu bitartean pentsatu zuen gauza interesgarriak esaten ari zitzaizela, titular on batzuk aterako zituela, milaka jarraitzaile dituzten intelligentsiako batzuei gustatuko zitzaizela. Kazetariak badaki egolatriaren aitortza horrek toki txarrean utz dezakeela bere jarduna, twitterren burbuila erdi-ustelean bete-betean erortzen dela gainera, baina eragin eragiten digun gaitz bat ezkutatuko luke egoaren ausikia eta garrantzia ukatuko balitu.

Edonola ere, kazetaria batzuetan bada irakurle, eta buruan beste gauza batzuk zituela irakurri zuen liburu hura eta elkarrizketatu zuen autorearen hitzak datozkio burura, tupustean baina ez alferrik:

Egunkarien ekoizpen-egituren barruan dauden kritikari erregularrak arazo larria dute, diru-sarreren mende baitaude, eta hilerro edo astero helarazi behar baitute ale bat. Nik neuk uko egin diot dinamika horri, izan ere, eskariaren jopu bilakatzen zara, eta

aktualitatearen logikan sartzen. [...] berritasunari zerbitzu egitea merkatuari zerbitzu egitea da. Horregatik aldarrikatzen dut iragan hurbila.

Peio Agirre arte kritikari eta komisarioak esan zizkidan hitzok, bai eta beste makina bat hausnarketa bota ere. Literaturari buruzko artikulu batera artearen esparruko hausnarketak ekartzeko zuribidea ere eskaini zidan; izan ere, ez-espezializazio espezializatuaren alde egiten du Agirrek, akademizismoaren aurka. Jakin-mina aldarrikatzen du, pasioa. Ez duzu zertan geratu zuri dagokizun kritika-esparruaren mugen barruan, txintxo demonio.

Literatura eta politika

Arte pentsalarien artean geratuko naiz, beraz, tartetxo batean, eta Hito Steyerlen artikulu bati egingo diot tira orain, literaturaz eta politikaz aritzeko. Horiek biak juntatzen direnean galderak antzekoak dira beti bazterrotan, halakori edo besteri egozten zaio nahikoa hitz egin ez izana euskal zeraz, aipatu izana soilik gatazkaren bando bat.

Bi eremuak lotzeko beste ikuspegi bat ekarri nahi nuke. Steyerlek kontatuko dizue zuzenean, zehatzago:

Politika eta artea lotzeko ohiko ikuskera bat da ondorioztatzea arteak gai politikoak islatzen dituela, modu batean edo bestean. Baina badago bestelako ikuspegi bat ere, askoz interesgarriagoa: zeintzuk dira artearen esparruko politikak, artea lantoki gisa hartuta? Ez erreparatu arteak erakusten duenari, baizik eta egiten duenari.

Artea jartzen duen tokian literatura jartzeko eskatuko dizuet, jakina. Iaz ere egokitu zitzaidan urteari errepasso bat egitea: esanekoago jardun nintzen orduko hartan, langintzari zorrotzago lotu. Baina, hara non orduan kezkatzen ninduen gai berak kezkatzen nauen oraindik ere. Diruak kezkatzen ninduen orduan, motzean esanda. Gaizki-ulertuak saiheste

aldera, kezkatzen ninduen sorkuntza eta bereziki idazketa sustatzeko darraigun ereduak, kultur politikak. Iaz Mikel Pe-ruarenak Euskadi saria eman ziotela-eta bidali zuen uko-gu-tunak laga zituen agerian zenbait gabezia.

Argialetxeak ekimen pribatuak dira, jakina, eta ez dute, inondik ere, instituzioen pareko ardurarik; hala ere, aipatu nahi nuke horietan ere ikusi dugula sari txiki ugari eman beharrean sari handi bakarra emateko joera, Joseba Jaka beka berritua dugu horren adibide (Alaine Agirrek eskuratu du aurtengoa, etapa berriko lehena): bospasei sari ematen zituzten lehen, sari handi bat orain. Edonola den, Elkarren jarduna, kritikatzekoa baino, eskertzekoa da, ez du lan ma-kala egin idazle hasiberriak hauspotzeko bidean, argialetxe horrek eskaintzen dituen beken bidez argitaratu dute estrei-nako liburua askok. Gazteek batez ere.

Gazteak, ai, gazteak. Zergatik ez ote dira libururik argi-taratzera animatzen tartean bekarik ez bada? Gazte antola-kundeez eta estatistika-institutuek behin eta berriro kontatu digute prekario direla gazteak oro har, neoliberalismoaren erauntsi honetan. Seguru asko, ez daukate gela bat norbera-rena, eta, orduan, nola idatzi, noiz, zertarako?

Ezin dugu ipini literatura heliozko atmosfera isolatu ba-tean, eta galdetu, xalo, zergatik ez ote duten publikatzen be-karik gabe gazteek (ez da guztiz egia, bestalde); zergatik ez ote duten hainbeste idazten emakumeek, sektore batzuetako langileek. Barnean hartzen duen egoera historiko eta poli-tikoarekin (zentzu zabalenean) lotu behar dugu literatura; begiratu zer dagien, zer-nolako industria den, ez hainbeste zer darakutsan.

Ikuskizunaren gizarte

Errepaso bitxi honetan aurtengo gertakari bat behintzat ai-patzeko ordua iritsi zait, nahiz eta, literatur gertakari bat baino, gertakari espektakularra izan areago. Urtea amaitzeko

hilabete inguru falta zela jakin genuen, twitter bidez: hainbat hedabidek (*Berria*, *Gara*, *Zuzeug*, *Noticias*) Joseba Sarrionandiari elkarrizketa argitaratuko zuten biharamunean; baita, adi!, argazki gaurkotua ere. Ikusmina piztu zuen iragarpenak eta, gerora, erretratuak berak komentario-oldea, bai publikoki bai lagunartean. Analisi interesgarriak argitaratu ziren egunean bertan eta hurrengo asteetako askotariko zutabeetan ere; tokiko hedabideetan, nazionaletan.

Sarrionandiak elkarrizketan esandako bik harrapatu ninduten ni:

Idaztea hartu dudanez zeregintzat, nahikoa dut horretarako gela bazter bat lasai esertzeko, eta ja, idatz dezaket. Gustura egoten naiz idazten, [...] baina ez dakit zertarako azaldu behar dudan nik prentsan, ez bada liburu bat azaltzeko edo.

Aterako didazun argazkiarekin, espero dut espektakuluaren gizaritari zor diodan zerga ordaintzea, ez dezatela esan ez dagoela nire argazkirik eta kito, ea lan egiten uzten didaten.

Eta gero, atzo bertan irakurri nuen beste honek, *Lardaska* izeneko liburua kaleratu duen autore anonimoak:

Geure buruari garrantzi handiegia ematen diogu, pertsonalizoietara jotzen dugu beti. Horrela ezin dugu aske izan. Sortzailak sortu duena, benetan gainerakoentzako sortu badu, ez luke trabarik egin behar eta desagertzen jakin behar luke: artista nartzisista egolatra horiek argazkietan egunero ikusten baditugu, ongizate komunaz ahaztu direlako da, publikoa beren zerbitzura jarri dutelako, alderantziz izan beharko lukeenean.

Eta, gero, literaturaz ez, baizik eta kazetaritzaz ari, June Fernandezek azaldu zidan beste honek:

Uste dut oreka bat lortu behar dugula: alde batetik oso ona da proiektio handia duten komunikatzaile feministak existitzea, baina pertsonalismoetan eta egolatrietan erori gabe. Gainera, uste dut dinamika arriskutsuak sortzen direla. Adibidez, Itziar Ziga datorkit burura: komunikatzaile feminista bat modan jartzten dugu, amodio eta gorroto dinamikak sortzen dira, eta gero, halako 'huts egin didazu' fenomenoak piztu. [...] Sare sozialak direla-eta, kazetarion proiektioa lehen baino handiagoa da, eta

hori geuk ere esplotatu behar izan dugu, baina bestetik ni horrekin ez nago oso eroso, nahiago dut kontaktzen ditudan istorioak egotea aurrean, eta neu bidea izatea.

Espektakuluaren gizaratean bizi gara, zertan uka. Izutu, ezetzatu baino, gizarte horrek literaturaren arloan zer sortzen duen eta zer dakarren begiratzea ez al da hobeto, itsuan aritu baino; galderak botatzea, bakoitzak geurean: nola kokatzen garen hor, nola eragiten digun, zer egin nahi dugun. Zer den, testuinguru zehatz honetan, burujabetza. 🍷

Erreferentziak

- Agirre, Peio: *La línea de producción de la crítica*. 2014. Bilbo: Consonni.
- Erostarbe, Gorka: 'Pentsamendu hutsaren alde, autoretzarik ez', *Berria*, 2016-11-27 (www.berria.eus/paperekoa/1944/047/001/2016-11-27/pentsamendu_hutsaren_alde_autoretzarik_ez.htm).
- Goitia, Jose: 'Joseba Sarrionandia. «Nire liburuak arreta apur batekin irakurtzen dituen ohartuko da non ibili naizen»', *Berria*, 2016-11-20 (www.berria.eus/albisteak/128873/nire_liburuak_arreta_apur_batekin_irakurtzen_dituen_ohartuko_da_non_ibili_naizen.htm).
- Sarriugarte, Danele: 'Peio Agirre. «Kritikaria ezin da inolaz ere xaloa izan»', *Argia* 2.497, 2016-02-28 (www.argia.eus/argia-astekaria/2497/peio-agirre).
- : 'June Fernandez: «Heroi perfektuak sortu ordez, haien kontraesanak azaleratu nahi nituen»', *Argia* 2.532, 2016-12-04 (www.argia.eus/argia-astekaria/2532/june-fernandez-kazetaria).
- Steyerl, Hito: 'Politics of Art: Contemporary Art and the Transition to Post-Democracy', *E-flux Journal* 21, 2010eko abendua (www.e-flux.com/journal/21/67696/politics-of-art-contemporary-art-and-the-transition-to-post-democracy).

Kronika baten idazketa –hasiera–

Urtebeteen artearen esparruan gertatutakoari buruzko kronika labur hau osatzen hasita, urtean zehar Euskal Herriko arte proiektuetan lan egin duten pertsonen izenekin soilik bete nezake artikulua, eta agian ez litzateke aukerarik txarrena izango. Arte proiektuen izenekin ere bete nezake, erakusketen tituluekin; eta horrela, agian, emango nukeen ikuspegia zabalagoa izango zatekeen. Beste aukera bat, berriz, hiruzpalau erakusketa hautatzean zetzan, agian nire gustukoena izateagatik edo agian zer esana eman dutelako –Donostia 2016k *Lekurik gabe. Denborarik gabe. Giltzapekoak* erakusketan egindako zentsura ekintzarena, adibidez–. Aukera horiek albo batera utzirik, ordea, honako hiru eremu hauetara zuzentzea izan da nire hautua: arte hezitzaileen lan egoera euskal museoetan, Tabakalera egitasmoaren lehen urtea eta Donostia 2016k arteari egindako ekarpena.

Arteak artistak eta obrak baino gehiago biltzen du

Arteaz hitz egiten dugunean, erakusketa, artista eta obrez hitz egiten dugu normalean. Beste batzuetan, tarteka, komisarioen izenak eta kritikariak ere aipatzen dira. Baina artearen inguruan biltzen diren eta proiektuak gauzatzea ahalbidetzen duten profesionalen gehiengo anonimatuan galdu ohi da, ikusgarritasunik ia izan gabe, existituko ez balira bezala. Eta, hain zuzen ere, posizio horretan aurkitzen den talde bat arte hezitzaileena da, paradoxaz beteriko harian zintzilik jarduten dutenak. Paradoxaz beterik, hain zuzen ere,

itzalpean izanik, beraienak baitira era berean erakusketetako aurpegi ikusgarri bakarrak. Zoritxarrez, ordea, beren lana egiten ekilibrista onenak baino trebeago ibili beharra dute, lurrera eror ez daitezen, maiz jasan behar dituzten baliabide eskasia eta ezegonkortasuna direla eta.

Espainiar estatuan, 70eko hamarkadan hezitzaileen irudia sortu eta horien jarduera martxan jarri zenetik, beren lana sinesgarritasun eta aitoren faltaz inguraturik egon da. Hori horrela, beren ekintza esparrua ongi definitu gabekoa izan da, adin eta ezaugarri guztiz ezberdinetako publikoekin jarduerara oso ugariak burutuz, horretarako lan baldintza egokienak izan gabe, gainera. 2008ko krisi ekonomikoaren ondoren, eta lanaldi baterako azpikontratuak bideratzen dituzten enpresa bitartekarien ezartze masiboarekin, egoerak okerrera besterik ez zuen egin. Eta horren aurkako lehenengo erreakzioak urte gutxira sumatu ziren: 2010ean MUSACeko hezitzaileen salaketa izan zen, 2014an Artiumekoena; eta azken urte honetan, berriz, Euskal Herrian txinpartak lehertu dira, Bilboko bi museo garrantzitsuenetako hezitzaileen lan uzteekin: Bilboko Arte Ederren Museokoak lehenak, eta Guggenheimekoak jarraian.

Museoak ilustrazio garaian sortu zireneko helburu nagusietariko bat, nahiz eta utopikoa iruditu, gizartea heztean zetzan. Museoak gizartea hezteko sorturiko instituzio berriak ziren. Egun badirudi, ordea, heziketaren ideia horrek oraindik guztiz errotu gabe darraiela, eta horren ondorio da jarduera hori burutzen duten profesionalen itzaleratzea, profesional espezializatuak izanik, beren kontratuetan –burutzen duten lan pedagogikoa alde batera utziz– monitore gisa definiturik ageri direnak, eta horretan ordua sei euro kobratzen badute kontent.

Egoera hori salatzea ez da erraza izaten sarri, gauzak aldatzen hasi nahi eta lehenengo mugimenduak egin orduko jasaten diren presioak ez baitira txikiak. Eta pausoa eman ostean egun batzuetako ikusgarritasuna lortzeko zortzerik badute ere, egun horiek pasa ostean, gehienetan berriz ere atzera, prekarietate eta itzalpera itzultzera kondnaturik daudela dirudi. Batzuetan, zortez, egoerak onera egin dezan lortzen

dute, aurten, Bilboko Arte Ederren Museoko hezitzaileen kasuan bezala; bestetan, ordea, egoerak txarrera besterik ez du egiten: Guggenheimek lan uzteak burututako 18 hezitzaileak kaleratu egin zituen zigorgabetasun osoz.

Euskal Herriko urteko artearen panoramari begirada bat bota eta gertakizun horiek aipatu gabe gelditzea bezalako zinismorik ez legoke. Kanpotik begiratzuz itxura hain perfektu eta aratzezko artearen errealitatea bestelakoa baita, ikusten dena, maiz, kanpoko errezela besterik ez izanik. Tartean-tartean, gortina baztertu eta atzean zer dagoen ikusi behar da, ordea.

Proposamen instituzional berria

Hau da Guggenheim bezalako makroinstituzioen politika eta lan ereduak: erakusketa blockbusterren bidez ahalik eta publiko gehien erakartzea, kontsumoaren gizartea are eta gehiago bultzatuz eta kapitalismoaren legeei gogor eutsiz, lanaren prekaritatea bultzatzen duena, izen handiko arkitektoek diseinaturiko eta hiriaren ikono bilakatu nahi duten eraikinen bidez.

Eredu bertsuari tiraka, hurrengo hamarkadan, Artiumen sorkuntza izan genuen Euskal Herrian, Gasteizen, 2002an. Azken hamarkada honetan, beraz, Donostiaren txanda zertorren, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroarekin; eta, hala, inaugurazioa 2015eko irailean izan genuen. Oraingoan, ordea, haustura bat ikusi dugu 1998tik jorratuz zihoan ildoan, Guggenheim efektuaren ideia eta instituzio eredu zaharrak alde batera utziz, proiektu berri horrek haize berriak ekarri baititu: lan politika eta lan harreman berri eta duinagoak, tokiko testuingurura eta publiko ezberdinetara egokituriko programazio freskoa eta bertako kultur ekosistema indartzeko nahia agertuz.

Proiektuaren berri eman zenean, hasieran, hala-nolako itzaropena sortu zuen; baina aldaketa politikoak tartean, errezeloz eta mesfidantzaz inguraturiko itzaropena izan zen hori, eraberritzen zirauten beste makroeraikin eta instituzio

honen patua zurrumurrus inguraturikoa izan baita hasiera-hasieratik, eta azken urteraino zehaztasun gutxi izan baitugu. Irekiera gauzatu zenetik urtea pasa da, ordea, eta bere izate eta identitatea definitzen hasi da instituzioa.

Arteari dagokionez, kanpora begiratzen ohituak gaude, kanpoko artistei, kanpoko erakusketei, kanpoko komisario eta kritikariei... Eta, hori dela eta, gizartean oro har, Txillida eta Oteizaren belaunalditik honaino Euskal Herrian beste ezer interesgarririk gertatu ez delako pertzepzioa dago oraindik zoritxarrez. Eta nahiz eta pertzepzio hori fikziozkoa izan, bertako instituzio handiek ere ez dirudi egoera hori aldatzeko lan handiegirik egin dutenik.

Tabakalerak, berriz, foku nagusia atzera Euskal Herrian ipintzea erabaki du, bertako eragile, artista eta agenteekin elkarlana, kolaborazioa eta sinergia bultzatuz, baina, era berean, beti ere kanpoan gertatzen denari begirik kendu gabe, testuinguru ezberdinen arteko uztartzea lortuz. Horren adibide, azken urte horretan garatu diren erakusketak: Yto Barrada nazioartean ospe handia lortu duen artista gaztearen estatuko lehenengo banakakoa izandakoa, edota Arenzaga, Imaz, Intxausti, Monton eta Peral, Leioako Arte Ederren Fakultatean ia orain dela 30 urte ikasi zuten bost artista *mid career* horien lanak bildu zituena aipagarri. Baina erakusketak politika horrez gain, instituzio honen interesa beste hainbat espaziotara ere zabaltzen da: sorkuntza espazio eta tailerrak artistentzat, erresidentzia programa ezberdinak, artean espezializatutako liburutegi berritzailea eta punta-puntako komisario eta artistek gidatutako komisariotza programa ere aipatu beharrekoak dira, besteak beste.

2011tik zain egon ostean, 2016a iritsi da eta baita pasa ere

Hala ere, eta nahiz eta urte honen buruan garatutako programa eta ekintzek Euskal Herriko arte esferara haize berriak

ekarri, pausoak banan-banan eta bi aldeetara ongi begiratu eman beharrekoak dira. Izan ere, Tabakalerak, instituzio publikoa izanik, politikarien nahi eta komenentzien uretan nabigatzen du, eta, horretan, bere norabidea brast batean alda daiteke. Kalostraren adibidea oraindik presente dugu horretan.

Eta instituzioez ari garen honetan, eta instituzio bat, definitzioraz eraikin jakin bat izateaz haratago, interes publikoa duen funtzioaren bat burutzen duen erakundea dela gogoan izanik, 2016. urte honetako kronika ezin idatz liteke Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzari eta hori garatzeko sorturiko Donostia 2016 Fundazioari aipurik egin gabe.

Bost urte pasa ziren kultur hiriburutzaren lehia Donostiak irabazi zuela jakin zenetik, eta ezin esan daiteke, une hartatik gaurdaino, proiektua polemikatik inoiz urrundu denik, berriz ere politikarien interes eta komenentziak tartean. 2016ko ditxosozko urtea iritsi, eta proiektuaren inguruan sorturiko itxaropen eta kuriositatea unean-unean igo besterik ez zen egin inaugurazio egunera arte, irekierako ekintza zentrala izan zen zubiko espektakulua gauzatu eta, horrekin batera, herritarrek Donostia 2016 proiektuan zuten itxaropena lurrrera erori arte.

Beste makroproiektu baten aurrean ginen, eta, gainera, urtebeteko epe erabat murriztekoa hau. 366 egunetan gauza asko gertatuko zirelako sentsazioa zegoen airean, bai kulturari zegokionez, eta baita arteari zegokionez ere. Eta inaugurazio egunaz geroztik, neurri handi batean hala izan da; inizatiba partikularretatik bultzatutako proiektuentzat inoiz baino diru laguntza gehiago egon dira, aurretik sorturiko beste inizatibei ere arnasa pixka bat gehiago emateko balio izan du, eta Donostia 2016 Fundaziotik ere hainbat ekintza eta ekimen berri burutu dira –batzuk interesgarriagoak besteak baino–: aipatzeko, Labore proiektua edota erresidentzia artistiko ezberdinak.

Azkenak, hala ere, oraindik amaitzeke daude artikulua hau idazterakoan, 2016ko urtea amaitu ez den honetan. Arnasari eutsirik, denbora astiroago doalako sentsazioa izateko, ito

gabe, ordea, ekimen horrek bere baitan edo kolaborazioan dakartzan azken aktibitate eta ekintzetan parte hartzeko aukera dugu oraindik; eta aprobeitua ditzagun horiek 2016 amaitu eta pasa aurretik, etorkizunaren iragarle ez garenez, ezin jakin 2017ak zer dakarkigun eta. 🍷

Komunikazioa, Informazioa, Teknologia eta Euskara gaur

Zeharo garai interesgarrietan bizi gara Euskal Herrian komunikazio, informazio eta teknologiarri dagokienez.

Bi ñabardura egingo nizkioke hala ere baieztapen horri. Batetik, behin baino gehiago adierazitako ideia da garai interesgarriona, eta neurri batean ohituta gaude jada. Ohikoak egin zaizkigu garai interesgarriok. Bestetik, agerikoa den lege, *interesgarria* eta *gure gustukoa* ez dira beti sinonimoak, batzuetan hala izan daitezkeen arren. Ustez txinatarra den esaera hori ere sarri ekarri ohi dugu gogora.

Edozelan ere, Informazio eta Komunikazioaren Teknologia asko, azkar eta sakon aldatzen ari dira, eta baita euskal gizarte garaikidea ere. Areago, mediatikoki saturatutako gizarte bezala egun Euskal Herria batez ere Komunikazioa dela argudiatu daiteke, ez soilik IKTen perspektibatik, baizik eta gizarte, kultura eta hizkuntzari dagokienez.

Perspektiba sozialari erreparatuta, 2016 honetan dagoeneko badakigu gure gizarte praktika eta instituzio guztiak, komunikazioaren gizarte teknologiekkin batera, ispilu joko batean bezala eraldatu direla. Hein horretan, komunikazio tresna berri eta ez hain berrien garapen, hedapen eta erabilerak euskal herritarren bizi munduan eta eguneroko praktiketan izan dituzten eraginak (eta alderantziz) kontuan hartzea ezinbestekoa zaigu. Baina baita determinismo teknologikoarekiko eta unean uneko moda terminologiko-kontzeptualekiko distantzia jartzea ere.

2016a eraldaketen sakontze urtea izan dela esan dezakegu. *On line*-ko sare sozialen erabilerak eta oro har Interneten

bidezko irakur-ikus-entzunezkoen kontsumoak goraka jarraitu du plataforma ezberdinetan, eta komunikabide tradizionalagoen (irratia, telebista, prentsa idatzia...) digitalizazio, bateratze multimedia (eta korporatibo) eta arretaren fragmentatze prozesuek aurrera jarraitu dute.

Prozesu horiek ez dira jarraituak, zuzenak eta koherenteak izan; alderantziz: etenduraz betetakoak, desorekatuak eta dinamikoak izan dira. Hala, ezin dugu esan *on line*-ko sare sozialen popularizazioak eragin zuzen eta zehatz bat izan duenik euskal gizartean, euskal gizarteak *on line*-ko sare sozialetan eragina izan duela kontuan hartu gabe. Era berean, Euskal Irrati Telebistaren eta euskal gizartearen arteko harremanak ez dira soilik ekosistema osoaren transformazioaren ezaugarri bilakatu diren aipatutako prozesuen ondorioz eraldatu, baina prozesu horiek ezinbestekoak dira egon diren eraldaketak ulertu ahal izateko.

51. Durangoko Azokako Gogoetaren Plazan Marijo Deograciasek gidatutako ‘Telebista, gaur eta bihar’ mahai-inguruan, ekosistemaren ideia behin baino gehiago erabili zuen Andoni Aranburu EiTBko Estrategia eta Komunikazioko Zuzendariak, baina harrigarria egin zitzaidan ekosistema gugandik (kasu honetan EiTBtik) kanpoko zerbait bezala adierazten zela, «merkatu» edo «inguru» edo «eguraldi» esan ohi dugun zentzu horretan. Gure eraginetik eta eragiletzatik at dagoen zera kanpotiar hori, alegia, aitzakia edo arrazoi iturri bezala funtzionatu dezakeena, baina non guk berez ez dugun ekintzarako gaitasun handiegirik, ez bada erreakzioarena eta ozta-ozta bizirautearena.

Lerrootan, ekosistema *kanpoko zera bat* ez dela defendatu nahi dut, zeinak guri eragin bai baina guk hari eragiten ez diogun. Aldiz, aurrerago ere aipatutako ispilu jokoari izaera dialektiko eta dinamikoa aitortu nahiko nioke. Zentzu horretan, (euskal) ikus-entzunezko ekosistemaren baitan gertatzen ari diren eta gertatzen jarraituko duten aldaketak, (euskal) gizarte garaikideen alor sozio-teknikoak, ezin ditugu jada barru-kanpo klabeaz aztertu. Arretaren fragmentatzea, bateratze

multimedia, digitalizazioa... ez dira meteorologia, gizarteen baitako prozesu konplexu eta interesgarriak baino (bigarren paragrafoan aipatutako zentzuan), non eragile garen.

Komunikazio eta informazioarenak, teknologia oro bezala *gizarte teknologiak* diren heinean, gizarteen baitan aztertu beharrekoak dira. Eta alderantzizkoa ere egia da: ezinezkoa zaigu egun eremu bat bestetik bereizita aztertzea.

Hori agerikoa zaigu, adibidez, euskararen egoerari erreparatzerakoan. Hizkuntzaren ikuspegitik begiratuta 2016an komunikazio eta informazioaren gizarte teknologien eta komunikabideen garrantzia erabat inskribatuta aurkitu dezakegu euskalgintzako askotariko eragileen diskurtsoan. Gauza jakina bihurtu zaigu hedabideak, *on line*-ko sare sozialak eta 'Internet' (horrela erabiltzen baitugu sarri, 'Internet') garrantzitsuak direla, edo izango direla behintzat etorkizunean euskararen erabilera eta normalizaziorako.

Zoritxarrez, oraindik erakunde eta eragileen euskararen eta komunikazio eta informazioaren teknologien inguruko formulazio diskurtsibo eta praktikoa gehienak herabe, kontserbakor eta konformaerrazak dira, eta gazteekiko adierazten den ardura baten edo gehiagoren inguruan artikulatuta ageri ohi zaizkigu. *Gazteak*, noski, gizartearen etorkizunari buruzko kezka asko eta itxaropenen bat bildumatzeko konstrukto soziodemografiko ustez neutro bezala agertzen zaizkigu, kanpotik aztertuak eta bideratuak izan behar duten 'besteak' bezala.

Oso gaurkoa, oso urtekoa, oso unekoa iruditu zait Edu Lartzaguren ekabenduaren 9an *Berria* egunkarian argitara ekarri duen 'Txakurrik ez, gazterik ez, zaharrik ez' artikulua, non belaunaldi eta adinen arteko kanpo-barne irudikatzeak gatazka klabeaz azaltzen diren 'adinkeria' edo adinaren araberako diskriminazioa mahaira ekartzeko.

Informazio, Komunikazio eta Teknologiarekin lotuta agertzen zaizkigu belaunaldien arteko ezberdintasun, ezin ulertu eta gatazkazko iruditeria eta antsietate berriak. Duela hiru urte luze, 2013an, egin nuen doktore tesiko landa lanean

ere hala azaltzen ziren adin-taldeen arteko mesfidantzak, kezkak, esperantzak, mespretxuak eta mirespenak. Beti elementu objektibo edo objektibagarrietan oinarrituta (pantaila-interfaze-plataformen erabilerak, zaletasunak, praktikak, (ez)gaitasunak), baina beti elementu subjektibo edo subjektibagarrietan ardaztuta («guk bai baina haiek ez dute kriteriorik», «engantxatuta bizi dira», «konformakorragoak dira», «pazientzia gutxiago daukate», «makinei erabat lotuta daude», «ez dute telebista itzali ere egiten»...).

Ispilutzeak bitara funtzionatzen du belaunaldi eta adin-taldeekin egituraketan: praktika, erreferentzia eta mundu ikuskerak komunak bilatzen dira partaidetza antolatzeke, baina aldi berean 'beste' belaunaldi eta adin-taldeekiko distantzia eraiki behar da, bestetasuna bilatu norberetasuna aurkitzeko. Ezaugarri objektibo eta subjektiboekin gauza bera gertatzen da: praktika eta ohitura sozio-teknikoetan eraldaketak egitate objektiboa dira (Whatsapp, adibidez, Euskal Herriko historiaren puntu zehatz batean agertu zen eta historikoki zabaldu zen gure gizartean), baina aldaketa horiek ez datoz kanpotik emanda eguerdiko euria bezala; guk geuk hartu eta moldatu ditugu, geure egin. Hala, gazteek hartu zuten agian gurean Whatsapp lehen aldiz, baina egun ez da gazteen afera. Gizarte praktika horrek, informazio eta komunikazioaren teknologia horrek, 'gazteena' etiketa galdu egin du, zuhaitzak udazkenean hostoak nola.

Zorionez edo zoritxarrez, baina, IKTak *teknologia berriak* ez diren bezala, gizarte teknologien afera ez da *gazteen asunto* bat. András Kornai ikerlariaren arabera, XX. mendean ikusi dugun munduko hizkuntzen desagertze erritmoa geldotu beharrean azeleratu egingo da Interneten aroan, ekosistema digitalak eskaintzen dituen esparru eta aukera guztiak baliatzeko masa kritiko eta kapitala hizkuntza gutxi batzuek (%5ek, Kornairen arabera) soilik erdietsiko dutelako (orain arte ikusi gabeko potentzia bat eskuratuz); beste hizkuntza guztiak (maila ezberdinetan) diglosia egoera digitalera kondenatuak izango dira lehenengo, eta desagertpena gero. Hori

horrela izan nahiz ez, XXI. mendea euskararentzat mende interesgarria izango da, horretaz ez dago zalantzarik.

Gorka Salcesek arrazoia du arnaguneen kontzeptua problematizatzen duenean. Adibidez: egun, 2016an, zer esan nahi du hizkuntza erabiltzeak? Komunikabideen kontsumoari eskaintzen dizkiogun denbora aurrekontuak ikusita, ez al genioke garrantzi handiagoa eman behar hiztunei (eta hartzaileei) erabilera esparruak eskaintzen dizkieten espazio mediatikoei? Zentzu horretan, agian arnaguneetatik arnaguneetara igaro gara, eta gure espazio linguistikoak porotsuagoak, sarkorrakoak eta zeharkatuagoak bihurtu dira: ingelesak, gaztelaniak, frantsesak eta beste erdarek zeharkatuak, bai; baina baita euskarak ere. Bestalde, Euskal Herria eleanitza da, eta euskal herriko biztanlerik eleanitzenak euskal hiztunak dira, maila guztietan: etxeko eta eskoletako hizkuntzetatik hasi eta lan munduraino, ez dago erdara bat behintzat ez dakien euskaldunik egun.

Berriro ere: nola hitz egin kulturaz, hizkuntzaz 2016an, komunikazioa, informazioa, teknologia aipatu gabe. Eraldaketak ekarri dituzten arazo eta aukera berriak ez dira 'natibo digitalenak' edo 'gazteenak': euskal gizarte osoarenak dira, heldu, nagusi, gazte zein ume. Agian gure erreperitorio kontzeptualak eguneratu beharko genituzke euskara *on line*-ko sare sozialetan presente dagoen honetan (eta, hortaz, alde-rantziz). Adibidez: zer da 'irakurtzea' edo 'ahozko hizkera' 2016 amaiera honetan? Iradokigarria da Euskal Hedabideen Urtekarirako iruzkindu nuen Maik Gibsonen 'Assessing Digital Vitality' artikulua, zeinen arabera euskara hizkuntza 'bizi' bezala koka dezakegun (hizkuntza nagusien oparotasunaren eta digitalki momifikatutako ondarezko hizkuntzen artean). Euskara sarean ere hartu, eman, negoziatzen da. Koldo Diaz Bizkarguenagak Deustuko Unibertsitatearekin argitaratu berri duen *FaceGUK* liburuan dioen bezala: «egoteko eta egi-teko» gune berriak eta gureak zabaldu zaizkigu.

On line-koa, *on line*-z kanpoko; idatzia, ahozkoa... bat bestea bustitzen du, badakigu jada. Hor datza gaur gure

ekosistema. Hor gara, orain, eta ziurrenez hemendik aurrera. Jauzia emana dago, emana dugu. IKTen eta sare digitalen planoan bagaude. Bagara.

Orain geure burua euskaratik eta euskaraz pentsatzea, esatea, idaztea, egitea tokatzen zaigulakoan nago.

Horretan ari gara. 🍌

Hiru [d'] accord-e

Hiru akorderekin eraikitako kanten arima ferekak ulertzen dituen gorputz batek, hitzak aukeratu eta horiek ordenatuz, nola deskribatu dezake musika?

Musika kritika Euskal Herrian galbahe profesional espezi-fikorik ez duen diziplina izanik, musikaren inguruan idazten duenarentzat erronka handia da zentzumenen erotikaren bidez jasotakoak paper batean idaztea. Are gehiago, kritika idaztea ez da batere esker oneko lana musika kritikari zilegitasun eskasa aitortzen zaion euskal musika kritikariarentzat, haren ardura baita, ezaugarri subjektiboei jarraiki, sormen lan baten dohainak gorestea uztan jasotako beste hainbat lanen artetik. Kritikariak bi modutara egin dezake: lehena gustuko dituen lanak aipatu eta isilpean gorde ditzake gustuko ez dituenak. Bigarrena, sinpleki, kontrako ariketa egitea da. Jaki-na, kritikari batek koherentea izan behar du bere jardunean.

Euskal Herrian musika kritika hedabide espezializatu zein orokorretan argitaratzen den arren, 2015eko azaroan zuzeneko kontzertu-elkarrizketa akustikoan «hemen ez da musika kritikarik» esan zuen Gorka Urbizurekin bat datoz asko. Baieztapen horrek oraindik ere 2016an bueltarik izan ez duen eztabaida utzi zuen mahai gainean: euskal musika kritika kultur iraupenaren aldeko militantzia ariketa da, edo euskal musikaren kalitate-neurria hartzen lagundu dezakeen tresna?

Aukeraketa boterearen estigma kritikarena bada ere, kazetaritzak dauka erakusleihoan zer jarri erabakitzeke aukera. Hari horri tiraka, nabarmena izan da iaz hasitako ibilbideari aurten ere grinatsu eusteko hedabideek egin duten esfortzua: Arrosa sarean, irrati pribatuetan, irrati publikoetan, egunkarietan,

aldizkarietan, atari digitaletan zein Euskal Herriko telebista kate publiko eta pribatuetan izan dute musikariek tokia. Kopuruz lotsagarriki eskasak diren saio espezializatueta zein orokorretan egon dira. Haatik, sortzaile guztiek ez dute pisu berdina izan, eta, tamalez, 2015eko urrian Kanaldude telebista katearen eta Radiokultura irratiaren elkarlanari esker jaio zen *Hertzetan* saioak 2016an amaitu du ibilbidea, hamar saiorekin ehundutako musika artxibo lana utzita. Euskal musika, oraindik ere, espazioak betetzeko eduki kultural legez jotzen da, ikus-entzunezko piezak lotzeko tresna izan beharrean, alegia, iragarkietan, karetan edota trantsizioetan erregularki erabilia izan beharrean. Horrela, bada, bi dira ondorioak: batetik, euskal musikaren erabilera ez dago normalizatua, eta, bestetik, kritikaren eztabaida airean egon arren, egitatea da euskal gizartea musikarekiko kritikoa dela.

Folklore: pop kolore, rock ohore

Espazioak betetzeko eduki kultural legez hartzen dena, ares-tian, espazioak hartzeko borrokarako tresna zen. Euskal musikak izaera kolektibo nabarmena zeukan giza taldeen arteko lotura indartzeko ahalmena zeukan heinean; horregatik, sistema politikoa eraldatzearen aldekoak ziren letrekin elikatutako abestiek nitik kolektibora egiteko adina energia zeukaten. Hau da, musikak eraldaketarako kolektibo politikoa sortu eta borroka indartzeko gaitasuna zeukan. Euskal herritarren gogoan dira Kortaturen *Sarri*, *Sarri* edo tankerako rock kantak, zeinak, gaur egun, ereserki bilakatzeaz gain, gure herriko folklorearen parte ere badiren ohiturak eta nortasuna biltzen baitituzte.

2016ko musika uztak erakutsi digun bezala, orduko errealitatea itzulbiratu dugu, eta entzuleriak nahiago du kolektibotik nira bidaia egiten duen musika entzun, halaber, sortzaileak ere garai batean baino lerratuago baitaude tankera horretako letrekin lan egitera. Gainera, 2016an igarri dugu abestien edukiak ez duela zertan kolore melodikoa mugatu,

hau da, barren sentimentalak askatzen dituzten abestiek ez daukatela zertan abiadura motelik izan. Dagoeneko, *Harro* izeneko azken diskoarekin pop rock esperimentazioaren euskal abangoardia dela erakutsi duen Zea Mays taldeak nabarmendu digu hori, adibidez. Baita Grises, Kometa, Rural Zombies edota Belako taldeek ere.

Egoera horretara nola heldu garen ulertzeko, atzera begiratu behar dugu eta bi bide egon direla definitu. Batetik, kolektibotik partikularrera aldaketa egin duten taldeak daude, eta, bestetik, partikularretik kolektiboari beti kantatu diotenak.

Lehenengo taldeari dagokio Jon Eskisabelen eskutik datorrigun adibide borobila. Izan baitira oholtzara igotzearen poderioz euren melodiekin batera letren gaietan ere eboluzionatu dutenak. Gaztelupeko Hotsak zigilupean argitaratu du Bide Ertzean taldearen ibilbidea biltzen duten *Zutaz kantatzeko* liburuia eta aldeztatik argitaratugabeak ziren 14 abesti biltzen dituen CDa. Liburuaren orrialdeetan herri baten egoera soziopolitikoaren aldaketetatik edaten duen artea erakutsi digu Eskisabelek. Musikaz gain, literatura eta antzerkia barne hartzen ditu liburuan erakutsi dizkigunak, eta agertzen diren diziplina guztiak lotzen dituen haria musika da: gaztetxeetan jotzen zuten Deabruak Teilatueta taldea izatetik, antzokiak hartu zituen Bide Ertzean izatera.

Bigarren taldeak urteak atzera letra intimistak idazten zituztenek tokirik bazutela erakusten duen arren, lehenengo taldekoen aldean euren publikoa nabarmenki murriztagoa zen. Era berean, egia da errealitateak buelta eman duela, eta gaur egun arrakastaren gailurrean daudenak dira barrura begiratzen dutenak. Urtearen amaieran BIDEhUTS kolektiboaren zigilupean *Epilogo bat* diskoa argiratu duen Anari sortzailea izan daiteke horren adibide. Azken lana artefaktua ere bada; izan ere, literaturan bagina legez, diskoa paratesuaren analisisa egin gabe ezin daiteke esentzian ulertu.

Diskoak artefaktu bezala ulertu zituztenak Kerobiako taldekideak ziren. 2014an Badok atarian argitaratutako elkarriketan «ez dugu magiarik aurkitzen» azalduta desagertu

zirenak, bi urte igaro ondoren, Anticontinente izenpean itzuli dira. Esentziari fidel, niaren ardatzean jarraitu arren, erraiak asebeteak dituen gitarra akustikoa protagonista duen lan soilarekin itzuli dira.

Jo-[h]an edo itzuli

2016a musika itzuleren urtea izan da. Aitor Ibarra *Auo* abeslariaren hitzetan, Etsaiak taldeko «naufragoak» batu dira EtsaiakEroak taldean, horregatik itsasoan joan edo itzuli ez dakiten horien izena jarri diote Baga Bigak kaleratutako diskoari. Hastapenetan Bide Ertzean taldeari lotuta egon zen Labrit bakarlari usulbidarrak hamalau urteko isilunea eten du *Zortzi* izena duen diskoa kaleratuta. Samplerretatik edaten duten zazpi kantek aldarrikapen elektronikoa irmoa egiten dute. Alta, Aitor Etxebarriak, *El_Txef_Ak*, urteak daramatza Euskal Herrian musika organikoa ez den edozerk barreiatzen dituen aurreiritzi ezkorren kontra egiten. Paradoxikoki, Bergarako eszena ere ederto ezagutzen duen gernikarrak arrakasta handiagoa izan du nazioartean etxean baino. Hala ere, laudorioak jasotzeko tenorea iritsi zaio; aurten kaleratu du, Franco diktadorearen agindupean Gernika bonbardatu zuteneko 79. urteurren gomuta omentzeko ikuskizunaren soinu banda. Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika edota Mursegoren lanak biltzen ditu *Markak (Gernika 2016)* emankizunak, eta ikuskizunera-ko Ander Mujikarekin batera landu du Etxebarriak musika.

Hiru urte atzera, *Ez da amaiera* agindu zuen Garik, eta hitza bete du: bandarekin itzuli da Gari & Maldanbera formatuan *Estutu* izeneko diskoa aurkezteko. Legazpiarrak baino urtebete gehiago Eibarko boskote batentzat: lau urte behar izan ditu Kokein taldeak *Lurpekhariä* azaleratzeko. Horien bien bitartean dantza egin dute etorkizun ezjakina sinetsarazi ziguten Willis Drummond taldeko kideek. Atsedena behar zutela iragarri bazuten ere, hilabete batzuetara jantzi zituzten tresnak *Tabula rasa* diskoaren emaitzan ezinbestean eragina

duten aldaketekin: Rafa Rodrigoren lasaitasuna Joseba B. Le-noirren berehalakotasunak irentsi du, eta ekoizle batekin lan egin dute, hots, taldetik at dagoen norbaiti kantik lantzeko aukera eman diote estreinakoz. Heldutasun ezagunari eutsi diote, batez ere gitar sendoak besarkatzen dituen geruzak ehuntzeko. Musikari handien traza hartu behar zutela espero izan du audientziak taldearen jaiotzatik. Erosotasunez erantzun diote entzuleriari; maisutasunez eta garrantzi handia duten gaiei helduta. Jauko Barik, Keike edo Berri Txarrak-ek egin bezala, Willis Drummondek ere genero berdintasunari egin dio abestia. Errazena kantua egitea da, ez ordea musikatzen diren hitzekin egunerokotasunean koherenteki jotkatzea. Erabat beharrezkoa da historikoki maskulinoa den musika munduaren markoan genero berdintasunaz hitz egitea, oraindik lehenengo pertsonan bizitako egoera bereizleak gertatzen baitira: jack bat konektatzen ote dakiten galdetzen zaie, teknikan lan egiten zein salmenta arduetan ari badira ez zaie behar besteko meriturik aitortzen edota femininotzat jotzen diren ezaugarrien arabera epaitzen dituzte, edertasun, hauskortasun, zaugarritasun eta babesgabetzaren arabera.

Balia [...]

2016an feminizazio prozesua betean bizi du Euskal Herriko musika sektorea. Marko heteroarautuan emakumeek historikoki jasan dituzten lan baldintzen izaeratik edaten duen hitzak sobera ondo definitzen du gaur egun musikariek bizi duten egoera: talentudunak izan behar dute, denbora eta espazioan malgutasunez aritu behar dira, erabateko konpromisoa eskatzen zaie (izan ere, ezustekoren bat gertatuz gero berehala erantzun behar baitute), sistema ekonomikoarekiko zaugarriak dira, ez baita ziurra euren lanagatik oinarritzko beharrak asetzeko adina diru jasoko dutenik, eta, azkenik, lanaren fruitutik jaiotzen dena eurek zaindu behar dute. Posibleki, azken ezaugarri hori begi kolpe batez atzemateko errazena da, eta

ezbairik gabe musika sektorearen feminizazio prozesua identifikatzeko giltza da. Euskal musikariena sekula ez da izan ogibide eroso, eta ezinegona areagotu besterik ez da egin, urteak baitaramatzagu diskoetxeen krisiari so eginez. Garai batean, enpresa-aterki berak biltzen zituen prozesuak; baina, gaur egun, sarri askotan, musikariak lotu behar du diskoa kalera-tzeak eta oholtzaratzeak berekin dakarren ekintzen multzoa: grabazioa, masterizazioa, banaketa (fisikoa eta digitala), prentsa kudeaketa, marka estrategia, *booking*-a eta *management*-a.

Zea Mayseko Aiora Renteriak ETB1eko *Ahoz aho* saioan aipatu zuenez, talde hasiberrientzat musika munduan murgiltzeko modurik gomendagarriena ez dator autoekoizpenaren eskutik. Aldea sinplea da: diskoetxe batek diskoaren ekoizpen gastuak bere gain har ditzake, baita promozioa egin; hala ere, kopiak (zenbait kasutan) taldeak ordaindu behar ditu, eta egindako obraren gaineko jabetza kontratuaren arabera izan ohi da. Autoekoizpenaren bideari jarraiki, taldeak dena ordaindu behar du, eta promozioa euren esku geratzen da; haatik, taldeak sormen lanaren erabateko kontrola daukan arren, zer egin dezake hasiberria denak merkatu masifikatuaren aurrean jotzeko aukeraren bat lortu ahal izateko? Horrela, bada, 2016an *Do it Yourself* filosofia eta jarrera politikoak indarra galdu duela agerikoa da; are gehiago, musikan murgildu nahi duten hainbat sortzailerentzat autoekoizpena, hautu bat baino, aukera bakarra bilakatzen baldin bada.

Bilorik gabe esan dezakegu: 2016an oso zaila da musikatik bizi ahal izatea. Zenbaitek musika eta marka egiteaz bizi diren arren, ez da gehienek bizi dutena. Kasu askotan, sortzaileak oinarrizko beharrak asetzeko beste ogibide bat izan beharko du, eta horrek musika aisialdian egitera behartuko du. Denbora eskasiak prekarizaziora bultzatzen ditu sortzaileak, eta asteburuko musikari bihurtu. Marko horretan, musika maite dutenek amildegiaren begiei so egin behar izaten diete, bi aukera dituzte: artisauaren bidea hartu eta gizentzen ez duen pasioarekin gorputza elikatu, edo seguru asko iraungitze data izango duen egile ibilbideari ekin.

[...] bideak

Gasolina erosteko adina diru irabaztea premiazkoa da errepidean bizitzeko. Bidea egin bitartean, eguzkiarekin ezkutatetara jolastu ohi du musikariak; egunez, trasteak kotxean sartu eta zuhaitz artean jarraitzen diote elkarri, ondoren, eguzkiaren berotasun, indar eta argitasunak bat egiten dute oholtza gainean, jaisterakoan alde egiteko orduak beharko dituen kiskalitakoaren usaina utzita. Musikariekin batera dira teknika arduradunak zein salmenta arduradunak. Horiek ere krisia pairatzen dute eta horien ukitua ere badauka musikariaren markak.

Euskal Herriko alde batetik bestera dabiltzanak jo ahal izateko aukera izan dute zenbait plazatan. Kultura instituzional eta industrialari lotuta handiagotu eta areagotu dira jaialdiak Euskal Herrian: Bilbo BBK Live, BIME edota Kutxa Kultur Festibalak inoiz baino jende gehiago batu dute 2016an, eta inoiz baino presentzia handiagoa izan dute bankuek. Hirurak Last Tour International enpresaren babesean daude. Hondarribia, Getxo, Gasteiz eta Donostiak fidelki jarraitu dute euren urteroko Jazz zita ospatzen: aldaketa handirik gabeko jaialdi egonkor eta esker onekoak izan dira laurak. Estilo horretan apustu sendoak argitaratu dira aurren: Big Boy talde zumaiarrak *Zapasalto* bigarren disko bihurria kaleratu du, eta, Starblues taldeak *Gu geu*. Nabarmena, baita ere, azkenek zigilukide dituzten Neighbor lehen bikote orain trioaren *Hau* bigarren diskoa; altxor sarkorra.

Euskal Herriko alde batetik bestera dabiltzanak berotasuna eskaini dieten plazak ere aurkitu dituzte. EHZ festibalak 2016an ere pentsamendu kritiko eta musikalerako esparrua dela erakutsi du. Usopop festibalak europar aniztasunaren euskalduntzea erakutsi digu. Sei kordadun Bidasoaren mitoiari jarraiki, Berako herria eta haren Ertz jaialdia euskal musika eszenaren ezinbesteko oinarri bilakatu dira. Donostian, Ez Dok Amaitu kolektiboak eta Zaldibiko Haizetxeak sortu dute hainbat talde babestu dituen aterkia: Pelax, Physis VS Nomos,

Liher edota Eraul tartean. Bilbon, euskal iruditerian oraindik ere aurreiritzi eskasak pizten dituen rock-indie-low-fi estiloaren aldeko apustuak irabazi du, eta Cuatrobarbas ekimenaren esku doan Yellow Big Machine taldearen tankerakoek irabazi dute partida. Sortzaileen plaza eta hausnarketarako topagunea izango den Biba! jaio da baita ere. Aurten bete-betean egonkortu den Basauriko MAZ jaialdiak euskal musika estiloen entsaladaren arteko zubilana egin du, eta 2016an zazpiak bat egin ditu oholtza gainean. Gasteizen Triangelu ekimena jaio da eszena indartzeko asmoarekin.

Euskal Herriak plazak sortzeko gaitasuna daukan arren, nola lor dezake musikak espazioak bete ditzan?

Galdera horren erantzuna gertu dagoela ematen du Durangoko Azokan jasotako hiru hari elkarren artean lotu eta horietatik tiratzean. Ruper Ordorikaren hitzak dira: «Talentu handia dabil hemen. Nik sentitzen dut eskaintza dela handiago eskaria baino. Gauza gehiago egiten da, entzuten dena baino eta irakurtzen dena baino. Eta ez dut esaten gehiago soilik numerotan, baizik eta baita kalitatean ere». Bere izaite hutsarekin musikan jarduteko ahotsa lantzea oinarrizkoa dela gogoratzen duen Beñat Axiariren azalpena erromantizismorik gabekoa da dioenean sortzaileek Frantzian daukaten intermitentzia estatusak Hegoaldekoaren begietan oso ona ematen duela, baina emanaldi asko egin behar direla eta horiek ordainpekoak izan behar dutela erregimen administratibo hori lortzeko. Parez pare zuen Aizpea Goenagak arnasa hartu eta zalantza izpirik agertu gabe erantzun zion Axiariri: «Euskal Herrian behar duguna da kultur mekanismo guztiak koordinatuko dituen aterki bat».

Atertu bitartean, musikak tabernetako bozgorailuetatik zeharkatzen ditu euskal rocka hil den edo bizirik dirauen eztabaidatzen dutenen gorputzak. 2017ari begira, euskal rockaren ustezko heriotzaren inguruan eztabaidatzea baino erronka handiagoa dauka euskal musikak; musikaririk ez balego ez bailegoke zertaz eztabaidatu. 🍷

Mugiarazteko eszenak. Emozioak eta antzezlanak

Badira memorian arrastoa uzten duten antzezlanak. Gogoratzearekin soilik gorputzean erreakzioa sortzen da. Antzokiaren iluntasunean, isiltasunean ezinegona piztu dizuten lan horiek dira. Denbora pasatu ahala, eszenak fotograma giza zure buruan gordeta geratzen dira. ATX Teatroaren *Fakiu* antzezlanak adibide argia da. Iñaki Ziarrustak zuzenduta, Fredi Paiaren testuarekin, ATX Teatroaren antzezlanak eguneroko biolentziaren gaia modu desberdinetan jorratzen du, publikoaren eskutan utziz antzezlanaren amaiera. Belen Cruzek, Sandra Fernandez Agirrek eta Gabriel Ocinak osatzen dute antzezle taldea. Agertokian hiru pertsonaiak estetika deserosoarekin agertzen dira; boterea irudikatzen du batek, botere exekutatzailerak besteak eta boterearen indarkeria pairatzen duena hirugarrenak. Gizarteak eta sistemak berak eragiten duten biolentziaz dihardu *Fakiu* antzezlanak. Zoritxarrez, taularatutako eszena batzuk ohikoak egiten zaizkigu, epaiketa bat, esaterako. Baina bada indarkeria mota bat gizartean isilpean gordetzen dena, adin txikikoen kontrako indarkeria. Etxeko isiltasunean gertatzen dena eta isiltasun paktua izaten duena. *Fakiu* antzezlanean bada gai hori mahai gainean jartzen duen eszena gogor bat. Gizon heldua, aita, osaba... haurrarekin jolasean, bortxatzen. Aldamenean, emakume helduaren ezinegona, sufrimendua. Eszenak ikusleen isiltasuna eta tentsioa lortzen du, mina. Hori guztia aktoreen partitura fisiko ikaragarriarekin. Iñaki Ziarrusta zuzendariaren hitzetan, «Teatro da, ez gaitezen erratu»; baina teatroak badu gizartearen astintzeko boterea, eta hori bera da *Fakiu* lanak egin duena.

Ttantaka Teatroak, Iban Cotroneo idazle italiarraren *Muxua* obran oinarrituta, izen bereko lana ekarri du euskarara. Benetako gertakari bat du oinarrian emankizunak: Kalifornian gazte batek beste gazte bat erail zuen, gay zelako eta maitasun proposamenak egin zizkiolako. Fernando Bernuesek zuzendu du, Mireia Gabilondo, Haritz Morras eta Ander Iruretagoienak jokatu dutelarik. Sexu joera, identitate sexual, bullyinga, homofobia, eskolako botere harremanak... gure gizartean oraindik ere sufritzen ditugun egoerez dihardu antzezlanak. Gizarte homofobo batean bizi gara, ekainaren 28an ortzadarrrez janzten bagara ere. Jatorrian hiru bakarrizketa ziren eta elkarrizketa bilakatu dituzte, nahiz eta taularatzeko orduan hiru aktoreek ez duten kontakturik; ikuslegoarengana zuzentzen dira zuzenean, eta horrek gertakaria izugarri indartu egiten du. Antzokitik hunkituta atera ginen, nork ez du eskolan horrelako eszenarik bizi izan?

Bere estiloari jarraituz, Marie de Jongh taldeak *Amour* antzezlanaren taularatu du aurten. Irudi eta keinuz kontatzen digute istorioa, gauza txikien irakurketa sakona egiten dute. Istorio nagusia bi emakumeren arteko amodio harremana da. Maitasunaren bila dabiltzan umeak agertzen zaizkigu oholtzan, jolasean. Baina denborak zentzua galdu eta zahartu egiten dira. Maitasuna da antzezlanaren ardatza, nahi duzunarekin askatasunez. Jokin Oregik sortu eta zuzendu du antzezlanaren. Oholtzan Javier Renobales, Ana Martinez, Ana Meabe, Pablo Ibarluzea eta Anduriña Zurutuza aktoreak. Irudi aldetik oso antzezlan landua, maskara lan dotorearekin, hori guztia Pascal Gaigneren musikaz lagunduta. Begietatik sartzen den antzezlanaren baina istorioan baduela mamia, elkar maite duten emakume biren istorioa. Antzokiko besaulkietan adin guztietako ikusleak. Helduek proposamenaren plastikotasunaz hitz egiten dute eta iloba gazteak argi azaltzen digu, «izeko, ez dozu ondo ulertu, bi neskek elkar maite dabe baina ezinezkoa izan da elkarrekin bizitzea, eta orduen handiak egiten direnean bai musu ematen dabe». Zerbait esatearren, bukaeran beharbada emakumearen

askatasunaren gaineko zalantzak geratu zitzaizkigun; baina gaia behintzat oholtzara eraman dute, eta ikuslego guztientzat, gainera.

Durangoko Karrika antzerki taldeak *Zapoi* antzezlanaz gozatzeko aukera eman digu. Krisi ekonomikoaren ondorioz, antzerki konpainia batek antzokia okupatu eta bere gotorleku bilakatzen du. Antzezlanak ez du Karrikaren egoera islatzen; izan ere, Durangoko San Agustin aretoan egoiliarak dira. Talde handia da, amateurra baina ekoizpenean eta sormenean beti ere aurretik doan antzerki konpainia. Hamazortzi urteko ibilbidea du Karrika taldeak, eta hogeiki ekoizpen baino gehiago taularatu dituzte. Herri ekimenetik sortutako kolektiboa dugu. Talde eredugarria, herriko antzokian egiten dute lan. Hara, herriko antzokian esan dugu bai. Eredu hori Euskal Herri osora zabaldu beharko litzateke. Teatroan daude, momentu askotan lan egiten dute, beharrezkoa dutenean, sortzaileak dira; baina herriarekin lotura estua dute, herriaren parte dira, alegia. San Agustin aretoa urteko 365 egunetan irekita dago, teatroa egunero bizirik. Durangoko Karrikak *Zapoi* kalerako sortu eta gero, aretoko bertsio bilakatu du aurten. Kritika soziala dakar antzezlanak. Hamabi aktore taula gainean, kulturaren ikuskeraz eta merkantilizazioaz ez daude ados eta, horregatik, antzokia barrikadaz betetzen dute. *Zapoi* konpainia bat da, bertako partaideak groteskoak dira. Denek dute tararen bat, eta horrek ahalbidetzen du egunerokotasunetik aldentzea. Horretaz baliatuta, euskal antzerkigintzaren egoeraz gogoeta eta berba eta barre egiten dute. Bizi-bizirik dagoen taldea da Karrika, taula gainean botatako hausnarketak entzuteko modukoak dira, barrenak mugitzen baitituzte. Baina gurean proiektu handiak baztertzen dira, eta *Zapoi* bezalako konpainiek ez dute lekurik gure kultur ekosisteman.

Lau adibide dira horiek memorian arrastoa utzi didatenak. Beste asko ere izango dira. Baina horiekin lortu dut bereziki hausnartzea eta bizirik gaudela sentitzea. Zer gehiago eskatu behar diot bada teatroari...

Arrakasta edo fenomenoa

Duela bost urte, Bilboko Arriaga Antzokian ikusi genuen *La omisión de la familia Coleman* antzezlanaren Argentinako Timbre 4 taldearen eskutik. Liluratuta geratu ginen antzezlan hark zekarren proposamenarekin, egiteko formarekin eta familia hark ordubetean eman zigun denarekin, guztia. Hasieran, Argentinako etxe batean antzezten zuten lan hau. Obra bera hain justu bertan sortu zuten inprobisazioen bitartez, eta, arrakastaren ondoren, etxe hura ohiko antzokietako kutxa beltzera eraman zuten. Mundu osoan zehar ibiliak dira. Buenos Airesen hamabi urtez izan dira kartelean. Komedia dramatiko perfektua, familia baten hausturak, espazio intimo eta komunak, eguneroko familiarartekoen ezinegonak... Artedramaren *Etxeoak* antzezlanak lan hura ekarri zidan gogora. Familia baten ezinegonak eta ohikoak izan daitezkeen gertaerak absurdora eramana. Edonor ezin da gure etxean sartu, eta Artedramaren proposamenean Maddik Mamadou maite du, baina Euskal Herrira etortzeko debekua du.

Argentina eta Euskal Herria, antzeko sinismen eta beldurak, amankomunean asko dugu. Gertu sentitu nituen antzezlan batean eta bestean azaleratzen ziren sentimendu eta emozioak. Baina bada ezberdintasunik. Argentinan antzezlan bat hamabi urtez egon daiteke bizirik. Gurean, ordea, hogeit hamar emanalditik gora egitea antzezlan baten bizitza ona izatearen sinonimoa da. 44 emanaldi egin ditu Artedramak urte erdian *Etxeoak* antzezlanarekin. Iparraldean Luhuson abiatu zuen bira eta Bilboko Kafe Antzokian bukatu. Kuantitatiboki neurtuta, urte erdian 44 emanaldi euskara hutsez zazpi lurraldeetan zehar antzeztea kontuan edukitzeko moduko zenbakiak dira. Baina gurean ez dago antzerki egonkorrik. Fenomenoak dira, eta arrakastaren fenomenoak bultzatuta emanaldi kopuruak gora egiten du eta, noski, ikusle kopuruak ere, inork ez baitu urteko antzezlanaren ikusi gabe geratu nahi. Fenomenoak gizartean gertatzen diren eta behatuak izan daitezkeen edozein gertaera, jarduera edo ekintzak dira.

Antzerkia komunikazio ekintza da, sortzaile eta hartzailearen artekoa. Ez genuke bi urtean behin Artedramak sortzen duen fenomenoaren zain egon behar, urtero ehunka fenomeno gertatzen baitira antzerkian; merezi dutenak, mugiarazten gaituztenak, aho zabalik uzten gaituztenak, hausnarketarako bidea zabaltzen dutenak. Kakotxen artean eta aho txikiarekin hobe, euskal antzerkia loraldi batean dagoela ematen du. Sortu dira sare berriak, euskaraz soilik sortutako antzezlanak taularatzen ditugu, istorio propioak, lengoia berriak, sentimenduz eta emozioz beteak, estetika ezberdinen proposamenak, ikusleengan arrastoa uzten dutenak, azken finean. Auzokideari gomendatzen dizkiogun lanak dira, baina tentuz ez bagabiltza galdu egin ditzakegunak, begiak zabaldu eta ixten ditugunerako obra horiek taulatik desagertu daitezke-eta. Antzerki egonkor baten beharra dugu, transmisioa egiteko beharrezkoa izango dena. Fenomenoak fenomeno dira, baina argi asko dira antzoki batek dituenak; ez ditza-gun, beraz, itzalez bete.

Urte historikoan jaio nintzen, 1975ean

1975 urtean jaio nintzen. Bai, Arias Navarrok espainolei Francisco Franco hil zela esan zien urtean. Ikastolako kumeak gara. Bertan hasi ginen antzerkia maitatzen. Ikastolan sortu genuen Gilkitxaro antzerki taldea. Garai horietan gazte koadrila batek osatzen genuen taldea. Helburu nagusia antzerkia egitea zen, euskara hutsez beti, antzerkiaz gozatzea, antzerkian ikasiz jolastea. Gogoan dut lehen antzezlana: Gabriel Arestiren *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Magdalenaren seme santua*. Hamasei urte genituen. Angel Zelaieta euskara eta literatura irakasleak, gure antzerkirako zaletasuna eta pasioa ikusirik, Gabriel Arestiren antzerkiak irakurtzea proposatu zigun. Baita erronka bota ere, astean behin euskarako ordua antzezlana atontzeko erabiltzea. On-do aprobetxatu genituen ordu haiek eta hilabete gutxitan

muntatu genuen antzezlan. Agian momentu hartan ez genuen testua ondo ulertu, baina gozatu ederra hartu genuen.

Horrela abiatu genuen antzerkiaren pasioa, gaur egun mantentzen duguna. Gure azken antzezlanean, *Adarretatik zintzilik*, atzera begira jarri gara, jaio ginen urtera, komedia sentimental eta kronika nostalgikoa eginez. Antzerkiaz zintzilik geratu ginen lehen antzezlan harekin. Horregatik, pasioz jaso dut *Arestiren antzerkia, nazioa* saiakeraren argitalpena. Aresti poeta ezagutzen dugu, oso ondo aztertua izan da, tesiak idatzi izan dira eta hainbat liburu. Bere literatura dramatikoa, ordea, ez da hainbeste aztertu eta horretan sakontzen du argitaratu berri den *Arestiren antzerkia, nazioa* saiakerak. Arestiren ustez, antzerkia herria hezteko baliagarria zen, edo hizkuntza lantzeko. Jendea dibertitzeaz gain, antzerkia herria egiteko baliagarria zen. Saiakeran, Karlos del Olmok Arestik idatzi zituen sei antzezlanak aztertu ditu. Karlos del Olmoren ustetan, «Arestik sei lan horietan antzerkia irauli nahi zuen». Kriseilu taldearekin, 1960ko hamarkadan Bilbon, euskarazko antzerkigintza berri bat egiten saiatu ziren. Arestiren ikuspegi politikoaren azterketaz gain, teatroak eta idatzitakoak ikertzen ditu saiakerak.

Oholtzako gure lehen esperientziak Bilboko Cortes kaleko prostituzio etxe batera eramán gintuen. 1962an idatzi zuen Arestik drama laburra. Gizon aberatsa prostituta on batekin maitemindu eta harekin ezkontzea erabaki du. Urteak pasatuta, ikusle gisa ikusi genituen *Harrizko Aresti hau, Kaio luma zikina* eta *Gabrielen lekua* ikuskizunak. Argi dut zein urteetan jaio nintzen, 1975 urtean, Gabriel Aresti hil zen urtean.

Antzerki arina, denbora laburreko esperientzia bizia

Azken urtean teatro arinez bete zaizkigu txoko guztiak. Agudo, bizkor, azkar gozaten diren istorio txikiak. Mikro teatro, antzerki laburra edo arina, ezaugarri bereziak dituen proposamena da. Iraupena aipagarri da, normalean 15-20

minutuko pieza izaten da. Proposamena teatrotik kanpo egi-
ten da. Leku berean hiru edo pieza gehiago aurkezten dira,
ez ohiko lekuetan, elizako ataria, etxeko ataria, gela txikia.
Ikusleak bere plana egin eta batetik bestera ibili da, istorio
txikiez gozaten, aktoreen arnasa eta begirada gertutik bizi-
tzen. Ia aktorearen musua jasotzeko aukera duzu, ezaugarri
nagusietako bat gertutasuna delako. Bakarra edo guztiak
ikusteko aukera duzu arratsalde batez, zale batentzat teatro
festa ikaragarria da. Gure lurraldetik kanpo aspaldi jarri zen
martxan. Azken urteetan gurean ere ugaritu egin da.

Gizartean bizi dugun erritmoaren isla izan daiteke teatro
forma hau. Dena arin eta bizkor bizi beharrean gabiltza, eta
horregatik proposamen honek gero eta jarraitzaile gehia-
go ditu. Bizi garen postmodernitatearen adibide izango da.
Mezu laburrak arinago heltzen dira hartzailearengana, 140
karaktereen munduan murgilduta gaude, pankartaren aroan,
titularren garaian, esloganen unean, aspaldi baztertu geni-
tuen manifestuak.

Aitortu beharra dago hogeitun minututan ehunka karakte-
re eta mezu zabalduta dezakeela sortzaileak. Antzerki forma
honek egun berean pieza bat baino gehiago ikusteko aukera
eman ohi du. Arratsalde batean pieza bera hiru bider eskai-
ni eta emanaldi bakoitzean hogeitun ikusle bildu badira, atera
kontuak: arratsalde batez 60 ikusle, zenbakietan murgilduta
euskarazko antzerkian hori garaipena da.

Esaterako, aurreko kotxe bateko atzeko eserlekuan beste
bi lagunekin pieza bat ikusteko aukera izan genuen, hiritik
buelta ematen genuen bitartean. Bikote ziren gidaria eta ko-
pilotua ziren aktoreak, eta ikusleak, berriz, kotxe atzeko
jarlekuetako hiru bidaiariak.

Piezak ez zuen ezer berririk kontatzen: bikote baten arteko
gorabeherak, nahiko simple eta aurrez asmatzeko modukoa.
Dena dela, aitortu behar dut bidaia zirrargarria izan zela.
Auto txiki batean hiru ikusle ezezagun isilik eta pega-pega
eserita, eta milimetro gutxira aktoreak. Mugimenduan ze-
bilen pieza. Semaforo gorria gelditu, berdea aurrera. Poluzioa

nagusi den hirian aurrera eta atzera ibili gara drama ibiltarian planeta berotzen genuen bitartean, garai batean industriak kutsatzen zuen tokietan eta fabrikak zeuden paretik pasatuz, auto batean antzerkia bizi genuen bitartean. Pieza horren gakoa esperientzia zen, bizitakoa, ez aktoreek kontatutakoa. Sentimenen bidez atzematen dugu eta giza ezagutzaren funtsa da. Hori bilatzen dugu teatroan, esperientziak, gure bizitzak zentzua izan dezan bizi beharreko pasadizoa.

Sortzailearentzat erronka bikoitza da antzerki arina, artificio gutxirekin eta denbora mugatuan pieza borobila taularatzea. Aurten pieza borobilak ikusteko aukera izan dugu: Erriberako atari eder batean aktoreekin batera sentitu eta begiak itxita istorioa entzun egin dut, bertako soinuak berriatik sartu eta beste mende batean kokatu naute, eta labanak odolik ez badu ere beldurra sentiarazi dit. Fokuaren argia kulunka ibili da hego haizeari esker. 🍷

Itzulera

2014. urte hondarrean, Gai-jartzaile Eskolarekin hasi ginean, atsedenaldi bat hartzea erabaki nuen eta plazan ari-tzeari utzi. Ez da lehenengo aldia; duela zortzi bat urte ere egin bainuen gauza bera, egurasteko.

Urte eta erdian asteburuak libre, saiorik ez agendan, buru nekagarri. On egiten dute halako aldiek, nahiz eta hau luze samarra izan den. Hain luzea, non gai-jartzailletza betiko uzteko arriskua izan dudan.

2016ko maiatzean deia Lankutik, ea Zamudioko jaietan gaiak jarriko nituen. Ezezkoa emanaz gero agian betiko izan zitekeela pentsatu nuen. Ez neukan pisuzko arrazoirik baiezkorako, eta alderantziz ere ez. Bertigoa. Gai-jartzailletza eta bertsogintza betiko utzi? Baietz esan nuen, egingo nuela. Gerora pentsatu dut: minutu batean hartutako erabaki batekin nabil berriz plazan. Taxuzkoa ote da jarrera hori? Ondo egin al nuen?

Estatistikak begi kolpe batean

Bertso saio baten osteko berriketaldian esan zuen bertsolarietako batek: «Saioetako entzulearen batez besteko adinak gora egin du azken urtean».

Hurrengo saioetan ez nuen begia larregi zorroztu behar izan egia zela ikusteko. Baziren gazteak saioa entzuten, bai-na alde nabarmenez 40 urtetik gorakoak ziren gehiengoa.

Bertsolarien beraien adinak ote du zerikusia? Ez da erraza bertsolari berriak ateratzea; koktel berezia behar da, non

talentua, karisma, lana eta gogoia nahasten diren. Eta bertsolari ugari bere lekua egin nahian! Atera dira zenbait –Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martin, adibidez–, baina ibilbide luzea duten bertsolariak dira biak ere, 30 urte laster beteko dituzte.

Esango nuke formatua bera hasi dela krak egiten entzule gaztearentzat, antzoki eta pilotalekuko saioak ‘zaharrentzako’ lekuak direla. Gazteak beste leku batzuetan daude: txapelketako saioetan edo berariak antolatutako emanaldi ‘freskoetan’.

Ez dakit antzoki eta frontoiko jaialdia dekadentzian dagoen –hori bera esan nuen duela urte mordoia eta hara!–, badakidana da oraindik ere euskal kulturaren hartzaile jakin batentzat babesleku izaten jarraitzen duela, non, lan astearen bukaeran, ez zaion eskatzen parte hartze aktibo bat, non ematen baitzaion euskarazko produktu kultural on bat eta hizkuntza-komunitate bateko partaide izateko aukera, ahalegin estra bat egin beharrik gabe. Ez dezagun gutxietsi aukera hori, kontsumo pasiboarena nolabait esateko, baina erreparatu diezaiozun besteari ere, joera konfirmatzen bada.

Mahai-inguruan

Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus gidatzeko aukera izan nuen Jakinek eta Martin Ugalde Foroak antolatutako mahai-inguru batean. Esan nahi dutena baino esango ez duten bi lagun; batzuetan ez dute erraz jartzen lana, zorrotzak dira, zehatzak. Bejondeiela. Gozatu ederra hartu nuen, ondo atera baitzen.

Bertsolariaren langintza eta ogibidea, gainerako kultura adierazpenekin eta egileekin duten harremana, feminismoaren eta generoaren gaia, txapelketak, plazako jarduna..., hainbat gai landu genituen ordu eta erdian. Bideoz ere grabatu zen, baina baldintza bat jarri zieten bertsolariak antolatzailerei: aste pare batez soilik ikusi ahal izatea sarean mahai-ingurua. Bertsolarien gauzak.

«Bertsotan ibiltzeko bezala bertsoetatik bizitzeko ongi jakin behar da neurtzen bai metrikak eta bai patrikak», izan zen Arzallusen esaldietako bat. Horrek narama hurrengo hausnarketara. Gutxi dira bertsoetik soilik bizi diren bertsolariak; bestalde, sumatzen da beste formatu batzuetan saiatzeko ahalegina, entzule bereiziago ('bereizi', adi, ez 'berezi') baten aurrean. Formatu horiek normalean izaten dira txikiak, entzule talde txikiagoen aurrean egitekoak. Horrek, nahitaez, garamatza aurrekontuetara eta bertsolariak jasoko duen ordainsarira. Eta ez dakit hor bertsolari 'profesionala' ez ote den galtzaile aterako.

Gerta liteke, bertso gintza aurrekontu murrizteko formatu txikiko saioetan barreiatzen baldin bada, bertsolari profesionala desagertzea. Ugariagoa izango da plaza, baina kalitatean gal dezakegu. Hipotesia da.

Hauskor

Saio pare bat on, Iurreta eta Errenteria, eta beste pare bat kaskar samar, Ermua eta Durango. Azken bi horiek zulo beltza egin didate urdailean. Ez ziren saio txar-txarrak izan, baina kontrolpetik ihes egin zidaten.

Gorroto ditut ostiral gauak plazarako. Goizeko zazpietan jaikita lanerako, lan eguna egin, saioaren prestaketarekin jarraitu, 22:30ean saioa hasi. Egun osoa saioa buruan bueltaka. Azkenean, mihi puntatik erortzeko 200 lagun aurrean. Aitzakia ematen du.

Aste osoa sentipen txar horrekin, ez duzula gehiegi landu saioa, huts egin duzula, eta hurrengo astean berriz daukazula beste bat, eta gogorik ez egiteko. Laborri hori uxatzeko botika bakarra dago: hurrengo saioa ona ateratzea. Baina gero eta pisuagoa ez ote den sentipen hori, gainera datorrenean. 25 urte plazan gai-jartzaile gisa. Ez dut pentsatu nahi bertsolari batek zer sentitu behar duen. Edo musikari batek. Edo idazleak. Euskal artistak oro har. Ala neu naiz makala?

Xilaba

Hain justu Trumpek jo duenean
mailuarekin iltzea,
Marine Le Penek amestu ote
du Frantzia zuritzea?
Hiztegitatik kendu ote du
Rajoyk erabakitzea?
Normala ote da poliziak
senegaldar bat hiltzea?
Neri tokatu zait muga ertzean
sortu eta handitzea,
ta ikasi dut igurtziz gero
deusezten dela klixtea...
Gure herri honek badaki zer den
mututuei aditzea
ta harresiak atxeman arren
zubigintzan aritzea.

Hau izan zen Sustrai Colinak bota zuen agurra Xilabako finalean, txapela Amets Arzallusekin buruz burukoan jokatu eta irabazi ondoren. Ez dakit beste agurrik ote zeukan txapela ez irabazita. Agur osoa da, aldarri indartsua, bertso nazionala, txapelaren aipamenik ez, eskertzarik ez, une berezietarako pentsatutakoa, txapelketa nagusiko finalean kantatuta jendeak luzaz gogoratuko eta kantatuko zukeena. Xilabako finalean kantatu zuen baina, herrialdeko txapelketa batean. Antzematen ez diodan zerbait adierazi nahi du horrek? Garaion larritasuna, agian, maila guztietan? Deiadarra gu guztiontzat?

Bestalde, gauzatu egin da bertsogintzatik hainbeste saihesten saiatu zirena: txapelketak dira bai bertsolarientzat bai bertsozaleentzat egon beharreko lekua –honetan ez naiz ados Amets Arzallusek mahai-inguruan esan zuenarekin, alegia, txapelketak ez daukala zentralitaterik bertsogintzan. Nire ustez, badu. Baina ez dakit hori txarra den-. Jaialdiak indarra galtzen ari diren honetan, eta beste zerbait sortu artean, txapelketa da jendea erakarri eta pizten duena. Lehen bezala orain, imajinatzen dut. Agian hori ez da nahi genuena, baina horixe da daukaguna.

Ulises Itakan dago

Xabier Amurizak bat-bateko bertsogintza utziko zuela iragarri zuen. Horretan ere aitzindari. Ez batari ez besteari ezer eman edo kendu gabe, aldea dago bertsolariak bertsogintza ofizio edo afizio izan duen. Bertsolari historiko askok beste lanbide baten osagarritzat izan dute bertsolari lana. Amurizaren ogibide nagusia izan da baina. Eta aldi txarrak ere igaro ditu. Orain oso modan dagoen kontzeptua, 'artista prekarioarena', Amurizak hurbiletik bizi izan du. Lotsatu egin behar genuke sarri gure artistek bizi duten tratua eza-gututa. Eta Amurizaren ogibidea izan denez, logikoena zen ogibidetik erretreta hartzea, bestelako zeregin maiteagoetan –idazketan, Amurizaren kasuan– murgiltzeko.

Durungaldeko bertso eskolatik deitu zidaten, Amurizak Bilboko Bidebarrieta liburutegian egin behar zuen erreztaldia-
ren aurkezpena egiteko. Ohorea niretzat. Besteak beste, lau lagun, Beñat Gaztelurrutia, Unai Iturriaga, Eneko Abasolo eta Igor Elortza zebiltzan antolaketan. Igartzen zitzaien nahi bat, egun hartan eta hurrengoetan, esker ona erakusteko.

Zein ongi bizi zen Ulises da Amurizak eman zigun erreztaldia-
ren izenburua, antza bere idazlanetik ateratako entresaka. Ez dut esango publiko guztientzat denik, baina han egon ginenok gozatu genuela esango nuke. Nik asko. Surrealismo kostunbrista moduko bat zeukan Xabierren testuak, uneka Felliniren *Amarcord* gogorarazten zidana. Estoizismoz erreztatua, ez musika ez bestelako gehigarrik, soilik Amurizaren ahots orain grabe, orain inpostatua.

Erretreta zorionsua eta emankorra opa diot Amurizari, merezi du.

Xalbador

40 urte Xalbador hil zenetik. Zer bertsolari handia galdu genuen! Odolaren mintzoa gainbegiratzuz, esango nuke pare-parean daudela haren bertsoak eta prosazko pasarteak.

Mendian galdu direneri izeneko sortan idatzi zuen:

Gauza triste bat publikatzeko kantatzerat naiz abian;
horra zer berri zabaldu zaukun berriki Euskal-herrian:
laguntza faltak berekin duen pairamenaren erdian,
hiru gizonek beren bizia galdu dutela mendian.

Gaur-gaurko gaia da, zinez, bidean hil diren etorkinena. 1973ko bertso horietan Xalbadorrek errukia eta justizia sena erakutsi zituen. Ez zen pertsona indiferentea.

Eta ezin kendu burutik, halaber, Eneko Dorronsorok egin-dako dokumentalean, *Xalbador, izana eta izena* lanean, nola kontatzen duen Xalbadorren alabetako batek, Henriettek, aita eman zion tratu ankerra banandu zenean, zeinak gogorazten digun bertsolari mitikoak ere bazuela alde gizatiarra. Eta ezinbestekoa iruditzen zait, gure erreferentziak ezagutu eta 'bizi' nahi baditugu, haien ertz guztiak ezagutzea, bestela ipuin batean biziko gara euskaldunok, edozein taberna zulotan *Xalbadorren heriotzean* doinu hordiz abesten dugun bitartean.

Xalbadorren heriotzean. Kontatu zidaten Meñakan, domekako mezan eta urteurrena ospatzeko, Leteren kanta kantatu zutela azken gisa. Pentsatu nuen: «Oraindik bada Euskal Herririk, Meñaka eta Urepele batzen dituen herria existitzen da oraindik». Gero ohartu nintzen Meñakan eta inguruetan Martin Orbe zebilela apaiz. Pertsonen garrantzia.

Europa bat-batean

Kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketa egin da aurten, *Europa bat-batean*. Egia esan, ez dut batere jarraitu, bertsozale zarratuaren rola bete dut: ez zait nirea ez den ezer interesatzen. Aldiz, gogoan dut *Hitzetik hortzera*-n lanean nenbilela, barrutik bizi izan nituela *Ahozko inprobisazioa munduan* izeneko jardunaldiak, aurtengoaren aurrekaritzat jo ditza-kegunak. Bada, orduan, barru-barrutik bizita, sumatu nuen

Euskal Herriko, Kubako, Georgiako, Sardiniako, Menorkako inprobisatzaileen artean halako lotura eta elkartasun estu bat, Euskaldunako azken ekitaldian publikora hedatu zena.

Irratian

Elkarriketa egin dit irratian Maite Bidartek. Bertsolaritzak eman dizkidan unerik onenak aipatzeko eskatu dit. Ez naiz kapaz izan une gogoangarri bat bereizteko. Erantzun dut edo erantzun nahi izan dut, gutxi gorabehera: «Hotza naiz saioetan, saioa kontrolpean izatea atsegin dut. Agian horregatik ez ditut emozio larregiz bizi oholtzako uneak. Bertsolaritzak eman didana da satisfakzio jarraitu bat». Egia da.

Era berean, igartzen dut urruntze mailakatu bat, desatxiki-mendu gozo bat. Jada ez ditut ezagutzen bertsolari gaztetxoek izenak, haien begiradetan sumatzen dut begirunea edo, bestela, burlaize diskretu bat. Gai-jartzaile zahar bat naiz! Agian laster saio gutxi batzuetan ariko naiz, XXI. mendeko Aranalde bat bezala, atzamarra goratzen eta nire gai luzeak ematen.

Gustatzen zitzaidan Aranalde. 🍷

Bakarrizketa konfesionala - «Eta hau norbaiti interesatzen zaio?»

Urteari atzera begirakoa egiteko proposamena egin zidaten. Gogoangarrienak iruditzen zitzaizkidan gertakariak aipatzeko aukera eman zidaten zinema ardatz hartuta. Baina pentsatzen jarrita, akordura etorri zaizkidan momentuak gutxi asko neure larrutik bizi izan ditut. Gertakizun hauetan guztietan izan dut nolabaiteko presentzia.

Esan gabe doa garrantzitsuagoak izan diren eta sakontzea mereziko luketen ekimenak jazo direla gurean, urtean zehar. Esaterako, asko pentsatu gabe badatozkit hainbat gogora: Moriartikoak 2017an estreinatuko den filma errodatzen ari dira, Koldo Almandozen *Sipo Phantasma* film bitxia nazioarteko zinemaldietan biraka dabil, Aitor Oñederra animatzailearen *I said I would never talk about politics* film laburrak buruak egurtzen ditu, *Tarzan ez zen horren guay* Bego Viciarioren Balerdiren obrari egindako berrikusteak bezala. *Las chicas de Pasaik* bikotearen hainbat lan jostagarri daude labetik atera berriak. Zinema jaialdi saldoa egin da eta zinemari buruzko hausnarketa gunen antolatuetan, atzera begirakoak, zuzendariekin hitzaldiak eta sari banaketak.

Egia esatera, zilborrari begirako bizitza izateak, edo denborarik ezak, edota, isilean, lurrazpiko ekintzaileen artean gelditu gabe lanean aritzeak ez dit ikuspegi zabalagoetarako betarik ematen.

Agian ez dut nahikoa tresna edo argitasunik ikuspegi orokorreko azterketetan galtzeko. Hortaz, neuretik eta kartografia murritzean harat-honat mugituta ondorengo lerroetara ekartzera noana.

2016. urtea kulturaren urtea izan da. Maiuskulaz jarriko nuke aukeran. Behintzat, Donostiaren periferian bizi garenoi hori sartu digute burezurrean. Eta urrea balio zuten momentuak bizitzen ari ginela, historikoak, aditzera eman digute medioetatik. Futbolari adina tarte eman diote momentu puntualetan gertaera zenbaiti, eta horrek zer pentsatua ematen du. Nire inguruan, mugetatik sorkuntzari emana bizirauten duenari entzun diot ziniko esaten: «Zer gertatuko da horren kulturala ematen ez duen hurrengo urtean». Fokua kulturaren jartze horrek ez duela luzapeneko minuturik ekarriko, partida azkar amaitutzat emango dutela arbitroek. Agian hainbat interesatuk eutsiko diotela *kapitalean* 'ekarpen kulturalak' egiten. Gutxika dirua xahutuz doan arte.

Eta umezurtz geratzearen sentimenduekin utziko al gaituzte bakean azkenean. Bozgorailuek utziko ote diote jada erakusketa eta ekitaldi kulturalak futbolaren garrantzi berdinarekin emateari. Mundua bere horretara bueltatuko al da behintzat 2017an. Eta berriz izango al gara inguratzen gaituztenen begietara lehenagoko bohemioen azaleko, alferrak, ipinkeriatan eta erakundeen dirua zurrupatzen...

«Ni han izan nintzen»

Baina esan beharra dut, «Ni han izan nintzen». Ni 2016an Donostiako ekitaldi kultural baten barnean egon nintzen. Horietako zorioneko bat izan naiz. Erakusleihoetara ekarri dutenetako bat. Beldurra ematen duen ikusezintasunetik salbatu duten aukeratuetakoko bat. Ni Moriarti ekoiztetxeak aukeratu ninduen, esan gabe doa egun Euskal Herrian dagoen produkzio etxerik aktiboenak, Donostiaren inguruko neure ikuspegia eman nezan. Eta animazioaren bitartez Isabel Herguera maisuaren ondoan. Zorionekoa ni, aukeratua izateagatik... eta ez da txantxa. Eta Isabel eta biok Donostiaren inguruko gaia bilatzen genbiltzala, behin eta berriz esaten genuen topikoetatik aldendu behar genuela, postal kutsutik,

ederkeria inozotik... Baina azkenean gure filmean Kontxako badia ageri da eta danborrada. Eta ematen du ezin zitekeela beste modu batera izan.

Eta *Kalebegiak* proiektuak bere baitan biltzen dituen film laburren bilduman ere urgainera etortzen da Donostiaren irudi bukoliko turistiko hori. Ezinbestean argitara etortzen da topikoa. Ezin ezabatu ahalko balitz bezala. Fikziozko terrorea, benetako prekaritatea, iragan hurbileko bortizkeriaren irudikapen begibakarra eta sexu esplizitua egonik ere, iruditzen zait turistei eskaintzen zaien paketea geuk oso barneratua dugula.

Filma egin eta loriaz gozatu!

Egotea eta ez egotea; izatea eta ez izatea. Aurten zinema eta emakumea gaiak elkarrekin nola uztartzen diren hausnartzea helburu zuten hainbat bilkuratara gonbidatu naute.

Gaiak harrapatzen nau bete-betean. Azken urteetan etxera bueltatu da nire sorkuntza proiektua, eta asmoa filmak herri txikiko lau hormen barrutik egitea da. Eta zirkunstantzia horietan errespetu gehiago diot, zerbait esatekorik izanda ere, egitea lortzen duenari. Egunerokoak erraz bakartu zaitzakeela uste dut eta anonimatura lerrotu behin sona pixka bat lortu arren. Edo behintzat aparteko lana egin behar da, alerta egoera mantenduz, bizitzak eramaten zaituen inertzietatik aldentzeko.

Bilkura horietako batean zinema ekoizteko diru laguntzak ematen dituen erakunde publikoak galdetzen du zergatik ez dagoen gizon adina emakume dirua eskatzen, eta are gutxiago diruaren onuraduna denik. Datuen arabera, zinema ikasle emakumezkoak gizonezkoak bezainbeste direnean.

Eta zure artean zalantza egiten duzu zure bizitza desordenatuaren erakargarritasunaz. Zein maldan gora egiten den proiektuak aurrera ateratzea, eskatzen duzun diru horren zatitxo bat besterik ez duzunean poltsikoratzen eta filmaren

karga hilabete luzeetan gainera etortzen zaizunean Sisifonekatua legez... Jende arruntaren bizitza zikloak (oporretara joan, umeak hazi...) bateraezina ematen duenean filmak ontzearekin. Noski, derrigorrez eskatzen baitu horrek 'benedetako' ofizio batekin konbinatzea.

Baina ez pentsa horretan. «Zortekoa zara zure proiektua diruz lagundu eta aurrera ateratzeko bidean jarri dizutelako». «Filma egin eta loriaz gozatu!». Ahalmen guztiak borborka dituenik ezagutzen duzu, baita filma egiteko sakrifiziozko ardura beregain hartuko lukeenik ere, eta hala ere bere proiektua ez da aukeratuen artean egon oraindaino.

Erakundeari harrigarria egingo zaio epaimahaikideen artean parekidetasuna egonda zergatik urtero emakumezkoen emaitzak hain eskasak diren. Eta barneko ahotsak esango dizu: «Agian oso ohituak gaude gizonezkoen begietatik bizitza ikusten. Hori dugu normaltzat joa. (Esan nahi baita gizona, heterosexuala, zuria)». Errazagoa da beti ziurtasuna erakusten duten proiektuak diruz laguntzea (profesionalenak diruditenak), gero beti film berdinak egiten amaitzen bada ere, zaldi irabazleari bazka emanaz urtea joan eta urtea etorri.

Katebegi horretatik kanporako ikuskerek apurto egiten dute araua. Eta eremu labainkorrean sortzea eskatzen du, erreferentziak asmatzea, arriskatzea. Imajina dezaket proiektu horiek ez datozela ekoiztetxe indartsuen sostenguarekin. Film bihurtzen direlako potentzialitatea ez dela neurtzen erraza. Arrarotasunaren eremu lausoan sartzen direla. Dossier itxura dutenean ere intuizioz osatutako idazkien itxura izango dute. Osatugabeena.

Aurrera ateratzea lortzen badute, nazioarteko zinemaldietan filmak zabaltzeko erakundearen plataformak aukeratuak izatekotan, eurentariko bat egongo da uztako paketeen. Arriskua pieza batekin hartzen da, dimentsioz gaindiko arrarotasunean ez erortzeko edo.

Eta, agian, erakundeak bere buruari galdegin beharko lioke: «Ba al dago interes berezirik zinemagintza anitzaren aldeko apustua egiteko? Desberdintasunean oinarrituko dena. Egiteko

modu estandarizatuak babestu ordeztu, lagundu egingo duena proiektu txikiek arnas har dezaten kostatuta. Talentua babestuko duena. Egile potentzial guztien *mapping*-a eginez eta ez bakarrik hasiberriena, etorkizuneko promesa deituri-koena. Ikusezin dirautenena ere bai. Esatekorik duen ororena.

Esperimentazio gunea den film laburren hizkeraren esplo-razioaren emaitzak eman diezaiokeelako hemengo zinema-tografiari indarra, osasuna (industriari gehitxo esatea da) eta bertoko zinema sendotzeko bidea. Hanka sartzeak beregain hartzeko moduko babesgunea izan behar luke erakundeak, baldin eta etorkizuneko zineman harribitxiak egongo badi-ra»... Baina isilik jarraituko duzu, inguruan dituzun emaku-me prestatuagoen ekarpenak entzuten.

Eta bai, gremioko jendea ezagutzeko balio izan dute bilku-rek, konplizeak egiteko beta ematen dute toki horiek. Pentsa daiteke sortuko direla filmak egiteko beste moduak, agian taberna zuloetan itxiko ez diren proiektuak. Eta, nolana ere, positiboa dirudi erakundeak emakumeen presentzia eskasaz arduratuta egoteak. Eta intentzio onak izateak arazoaren sorreraren bila abiatzeko.

Baina, bilkura horien amaieran, galdera maltzurra etortzen zait. Benetan nork mantenduko du bizirik gai hau, ezpada buru gainean kristalezko sabaia nabaritzen duten horiek. Edo nola egin, horren harrapatzen zaila dirudien arazo ikusezina gizarteratzeko. Eta mezuak galdutako gudalekuaren tanke-ra izan ez dezan. Fede oneko edonor ere uxatuko lukeena...

Batzuetan ematen baitu emakumeoi taldeko terapia egiteko baimena ematen digutela bilkura horietan. Nola egin jendar-tean beste aldarre batekin eragiteko, ez akademikoagoa baizik oldarkorragoa, apurtzaileagoa? Zaharkituak dauden, errepi-kakorrak diren zinema egiteko moduak, historiak kontatzeko ikuspegiak seinlatu eta gure sorkuntzarekin boikotatzeko?

Uste dut hurrengo urtean ere bukle berean sartuta izango garela. Eta okerrago, ikusezintasunetik aske garen heinean utzi egingo diogula kolektiboaz beharrezko hausnarketak egiteari. Akitu aurretik paso egin. Izan ere, denborak ez badu

sorkuntza mimatzeko beste ematen, nola galdu testuinguruaren izaera utopikoan? (aldaketan uste sendoa ez duen mezuak, dakarren frustrazioak, eragiten duen atzera pausoa).

Alfertutako begi andana

Donostiako Zinemaldian ikusi dut Gianfranco Rosiren *Fuecoammare* dokumentala. Zintaren amaierako irudiak ezin gogorragoak dira. Migratzaileak zekartzan itsasontzi prekarioaren sotoa filmatzen du zuzendariak, soinurik gabe. Han egon zirenek bizirik zirauten bitartean pasatutakoak igartzen ditu ikusleak. Irudiak eserlekuetan geunden guztion burezurretan kateatu dira. Ez dakit noiz arte.

Lampedusaren eguneroko erretratua egin digu aurretik. Italia hegoaldean kokatzen den uhartea erakusten digu bertoko hainbat biztanle jarraituta. Samuele mutil koskorrak zuhaitzen adarretan tiragomak begiz jotzen ditu punteria zorrozteko, eta bere berritsukeriak aise sartzen gaitu kresal usaina duen parajea. Pietro Bartolo medikuari esplikatzeko dio, hitzari laguntzeko esku keinuak tarteko, aurkitu berri dioten begi alferraren eritasuna. Harekin begiratzeko esan dio okulistak eta beste begia tapatu. Ordura arteko bere mundua eraikitzen zuten trebetasunak galdu egin zaizkio bat-batean. Eta ikusten ikasten ari da...

‘Begi alferraren’ metafora erabiltzen du Rosik Europako biztanleon alferkeria erakusteko, heriotzari hanka egiten datozenen aurrean.

Egunero bere lanbidean ikusten dituenak ikusita, etsita dagoen medikuak ezinbestean barre egiten die gizontxoaren burutazioei. Eta puntu horretan, film osoan gehiagotan gertatuko ez den bezala, batera ikusten ditugu uharteko haurra eta medikua. Hortik aurrera ez dago loturarik hain toki murriztean gertatzen diren bi errealtateentzat.

Uharteko biztanleak aspalditik datozen ohiturei segika bizi dira, jaunari muin egin, irrati lokalera deitu maite dituztenei

zorion agurrak bidaltzeko... Migratzaileek itsasoak dirudien zuloa gainditzea dute helburu, lurra ukitzeko euren itsasontzi prekarioekin. Gorputzean duten ikara baretu, bizitzen jarraitzen dutela frogatu.

Kamera, filmaren bukaeran, iritsi ez den itsasontziaren so-toan sartzen da. Ikusi nahi ez, baina bazegoela bagenekiena erakusten digu horrela. Oso luzea egiten den momentuan.

Irakurri diot zuzendariari, azken irudiak filmatu zituenean akituta, amaitutzat eman zuela filmaketa. Ordurako berrogei itsasontziren erreskatean parte hartu zuen, gorriak bizitzen ari zirenekin egona zen. Hala ere, ez da kameraren ikuskeran gurekiko haserrerik nabari, lortzen du film guztiak duen txikitasunarekiko maitasun hori koreografiatzea. Gertutasunetik aritzea. Film zatien muntatzearen bitartez leziorik ematen ahalegindu gabe. Ez itaunketarik. Ez «hau guztia gertatzen da zure etxe alboan eta ez duzu ezer esatekorik?».

Dokumentala, edergarririk gabea, ikusleari ikusten uzten diona, artifizioaren bitartez aurrez eraikitako mezurik sartu gabe. Zintzoa, ezinbesteko. Aurtengo filmik onena da, dudarik gabe. Luze geratuko ahal zaigu buruan bueltaka...

Orainaren menpekoak

Baina orainaren menpe bizi gara. Eta etengabe ihes egiteko mehatxua egiten duen denboraren morrontzan, ezin tarte askorik eman ez ezeri eta ez inori. Garrantzizkoak ziruditen gauzen tokia ordezkoez erraz askoan hartzen dute abiada biziko gurpil zoroan.

Eta zorabio horrekin kutsatuta-edo, konturatzeke berriz bueltan etortzen da herriko ezkilak jotzeko urteko eguna. Eta denborarekin dugun harremana alteratua izateagatik, *paroiak* egiten ditugu santuak agertzen diren aldiro.

Baina aurtengoan Santa Ageda bezperako egunean zinez gelditu eta koplak zaharrek dakartzaten hitzak astiroago entzuteko astia hartu genuen. *Beti bezperako koplak* izena jarri


zion Maialen Lujanbiok koplen berrikusketatik ernaldu zen haziari. Gero animazio zinemako proiektu apal bilakatu zena. Beti bezperatik hitz egiten omen delako santa eskean, baserriko maizterrari lehenengo eta gero aldamenekoei lausengu eginez. Inoiz eguneratzen ez diren intentzio onak ekarriz. Ez delako intentzio onak gauzatuko diren eguna sekula iristen...

Beti bezperako koplak kopla zaharren ikustaldi kritikoa dira. Koplako lerro bakoitzari punta zorroztu zaio egunero bizi ditugun gaiez aho bizarririk gabe aritzeko. Lehenagoko koplek ekarritako tradizioarekin mailua sortuz.

Gero, Bego Vicario animatzaile eta irakasleak kopla horien aitzakian bildu gintuen bere ikasle ohi eta egungoak, eta kopla bakoitzari geuretik irudiak jartzeko mandatua egin zigun. Mandatu oparitu. Eta emaitzak, bere deserosoan, orainaldiko joerak gaitzen ditu. Anakronikoa da. Baina hauts itsaskorra uzten du burmuinean. Eta hori baliotsua da orainaren menpe bizi garen honetan. 🍷

H28





(KAZETARITZAREN)
JOKO ZIKINAK
RIO 2016







• "Zentsura"
Akrilikoa mihise
zuriaren gainean.
Donostia, 2016.

biktima hitza biktoriatik dator

VICTOR EUSA arkitekto Nafarroako Junta
Karlistako Buruzagiak goiz guztiz erabaki
tzen du nor biziko den gaur eta nor ez

KULTURA

XABIER ZIGA margolari torturatua eta
Gerra-Kontseiluan epaitua biziko duzu
sekulako isuna pagatuko badu

ZINEGOTZI

Inork inoiz ez du proposatu Eusaren obra
arkitektoniko ugaria suntsitzea, baizik eta
15000 biktimen familiak iraintzen baititu

ZIENTSURA

Eusak eraiki Eskolapioetako kapera
margotuko du Zigak zorraren kitatzeko
artista zaharrak bere burua
autoerregulatuko du honetakoan

ZINEGOTZI





LIBURUAK

133 Euskal liburugintza 2015
Joan Mari Torrealdei

Euskal liburugintza 2015

Joan Mari Torrealdei

Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziaduna

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere aurreko urteko liburu emaitzak aurkeztu eta aztertu nahi ditugu. Errepikatuaren poderioz, dagoeneko nire irakurleak badaki 1976an hasi nintzela azterketa mota honetan, eta geroztik ez dugu hutsik egin.

Urtetik urtera saiatu gara hobetzen, azterketak fintzen eta informazio-iturriak zehazten. Gogoratze aldera esan dezagun lege gordailua dela urtea markatzen duena, eta urtearen barruan arakatzen duguna ISBN duen titulua dela. Bildu, ISBNdunak baino gehiago biltzen ditugu, eta horietako batzuk aurkitu ahal izango ditu interesatuak urteko katalogoan, bertsio digitalean.

2015eko ekoizpenak, gure bilketan, 2.353 titulu eman ditu, ISBNdunak. Aurreko urtean baino 189 titulu gehiago esan nahi du horrek; 189 titulu eta 20.753 orrialde gehiago. Baina kasu, hazkunde handiena ez du izan paperezko liburuak, analogikoak, digitalak baizik: digitala 104 titulutan hazi da, eta analogikoa 85etan bakarrik. Nobedadeen hazkundera ere azpimarratzeko modukoa da, 359 titulu gehiago. Berrargitalpena, aldiz, indarra galduz doa: aurrekoan baino 170 titulu gutxiago pasatu dira berriz inprimategitik. Itzulpena, bere aldetik, indartuz doa: 93 titulu gehiago itzulpen baitira lehen edizioan.

Titulu-kopuruaren tamaina dela eta, bada alderik iturri batetik bestera. Elkarren ondoan hiru agente informatzaile

jarri ohi ditut, nireaz gain: Conecta, Euskadiko Editoreen Elkartearentzat eta Espainiako Editoreen Elkarten Federazioarentzat lan egiten duena; eta PEEL gisa laburtu dugun *Panorámica de la edición española de libros* delakoa, estatu mailan ISBNko informazioa biltzen duena. Begiratu hutsak erakusten du alde handia dagoela hiruron artean, baina batez ere haien bien eta gurearen artean. Urtero ematen da aldea, nahiz eta ez aurtengoa bezain nabarmena ez.

Gure informazio iturriak hauek dira:

- Argitaletxe eta argitaratzaileak zuzenean informaturik jasoa: %42.
- Liburutegien bidez eskuratua, Koldo Mitxelena eta Donostiako Udal Liburutegiari esker bereziki: %16,6.
- ISBN, ELSN eta EIPS arakatzuz inguratua: %31,7.
- Eta beste bideetatik jasoa (Internet, Biblioteca Nacional espainiarra eta beste): %8,7.

Informazio iturri horiek guztiak erabat fidagarriak dira? Ez dakit. Batzuk ehuneko ehun, hori bai, eta beste batzuk ez dakit. Ehunetik ehuneko fidagarritasuna izateko modu bakarra badakigu zein den, argitaletxeen informazioa zuzenean eskutik eskura jasotzea, liburua bera edo fitxa teknikoa. Horixe lortzen saiatzen gara urtero, argitaratzaile guztiengana joz, espresuki datuak eskatuz; baina zenbait editorialen axolagabekeriak ez du izenik, aintzat hartu ere ez baitute egiten eskaria. Diru laguntza kobratzeko baldintza balitz, baietz erantzun! Edizio profesional bezala ez dute maila handirik erakusten.

ekoizleak eta ekoizpena

Lehen taula honek bistaratzen duen egoera jada aipatu dugu. Nabarmentzekoa da, berriz esan, informatzaile batetik bestera dagoen aldea: Conectak baino 574 titulu gehiago ematen dugu eta PEELe baino 1.131 gehiago, ia-ia beraiek ematen dutena beste hainbeste. Posible al da? Sinesgarria al da? Bakoitzak bere iturrien azterketa beharko luke egin. Guk gurea eginen dugu, zertan esanik ez.

<i>Urtea / Iturria</i>	<i>PEEL</i>	<i>Precisa / Conecta</i>	<i>Joan Mari Torrealdai</i>
2000	1.425	1.589	1.682
2001	1.326	1.621	1.642
2002	1.342	1.588	1.752
2003	1.487	1.576	2.014
2004	1.904	1.584	1.910
2005	1.793	2.094	2.108
2006	1.525	1.710	1.878
2007	1.552	2.009	2.207
2008	2.156	2.094	2.636
2009	2.040	2.022	2.419
2010	1.852	2.006	2.218
2011	1.809	1.942	2.333
2012	1.810	1.985	2.102
2013	1.396	1.812	1.850
2014	1.632	1.882	2.164
2015	1.222	1.779	2.353

Argialetxe nagusien ekoizpena: 1.488 titulu

<i>Argialetxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrargitalpenak</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Santillana-Zubia	285	–	285	12,–
Elkar	158	123	281	12,–
Edelvives-Ibaizabal	179	4	183	7,7
Ikaselkar	47	100	147	6,2
Susaeta	73	47	120	5,–
SM-Ikasmina	118	–	118	5,–
Anaya-Haritza	98	16	114	4,8
Erein	81	30	111	4,7
Edebé-Giltza	77	–	77	3,3
Ttartalo	43	9	52	2,2
<i>Guztira</i>	<i>1.159</i>	<i>329</i>	<i>1.488</i>	<i>62,9</i>

Aurreko urtean baino 189 titulu gehiago osatu dute aurten lehen hamar argialetxeen artean. Emaizta osoaren gaineko proportzioa ere handitu egin da iaztik hona bost puntutan: %62,9.

Ekoizle gehien-gehienak errepikatu egin ohi dira, aurten ere bai; baina bada joera bat ezarian-ezarian ezartzen ari dena, eta handitzen. Kanpoko ekoizleen esku hartzeaz ari naiz. Ekoizpen osoan bat edo beste gehitzea ez da garrantzizko berez, baina lehen ekoizle nagusien artean euskal jatorrizko eta erdal jatorrizkoen proportzioa zein den

gutxienez esanguratsua da. Iaz erdiz erdi zeuden batzuk eta besteak. Aurten sei dira kanpokoak eta lau bertokoak: Santillana-Zubia, Edelvives-Ibaizabal, SM-Ikasmina, Anaya-Harritza, Edebé-Giltza, Susaeta, alde batean; eta, bestean, Elkar, Ikaselkar, Erein, Ttartalo.

Gaien arabera bertoko eta kanpokoaren arteko jokamolde diferentziatua gero ikusiko dugu zehatzago. Bi hitz orain ekoizpen orokorrari buruz, beti ere hamarren arteko unibertsoan: ekoizpenean 1.488 tituluetatik %40 da kanpokoek ekoizia, iaz baino gutxiago; iaz %45,4 zen. Bertokoaren produkzioak %60 suposatu du. Nobedadeetan, kanpokoak dira txapeldun, diferentziaz: 71,6 versus 28,4. Berrargitalpenaren ikuspegia guztiz bestelakoa da, %20,6 da kanpokoena, eta bertokoena %79,4. Ez al da esanguratsua?

Zifra gutxi horietan agerian daude batzuen eta besteen ahulguneak eta indarguneak. Aurrerago diferentzia horietan sakondu nahi dugu, gaietan murgilduz.

Argitaratzaileen tipologia

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	78	1.034	44,-
Kanpoko argitaletxeak	55	864	36,7
Argitaratzaile publikoa	41	118	5,-
Elkarte, talde, fundazio...	77	112	4,8
Irakaskuntzakoa	20	173	7,3
Besterik	17	52	2,2

Euskarazko liburuaren argitaratzaileen unibertsoa heterogeneoa da oso. Parte hartzen dute kanpokoek eta bertokoek, argitaratzaile komertzialek eta bestelakoek, pribatuak eta publikoak, handiek eta txikiek, irakaskuntzakoek, talde edo elkarte izaeradunek, besteak beste.

Bost multzotan zatitu ohi dut unibertso hori, ustez tipo bakoitzak baduelako aski osagarri batean identifikatzeko eta aldi berean besteengandik bereizteko aski elementu ere bai. Bertsio digitalean zabaltzen dugu argitaratzaile mota

bakoitzaren ezaugarriak zein diren, zenbat ekoitzi duten eta zein liburu mota den nagusi multzo bakoitzean. Analo- gikoan –paperean alegia–, gure arreta nagusia bertoko eta kanpokoek ekoizpenaren analisisian jarriko dugu.

Bertokoak eta kanpokoak merkatu berean

Azterketa honen bertsio luzean, Jakin digitalean, alegia, tipolo- giaren azalpenak luzeago irakur daitezke. Orain, bertoko eta kanpokoek jokamoldean jarri dugu arreta. Labur-labur esan dezagun bertoko eta kanpokoek artean egiten dugun bereizketa ez dela geografikoa. Editorialaren kokagune geo- grafikoak erabakigunea noren esku dagoen markatzen du, eta horrek badu garrantzirik, horren arabera aldatzen baitira batzuek eta besteek gure ekosistema editorial eta kulturean duten inplikazioa, hezkuntza curriculumean duten eragina edota euskal edizio industriari suposatzen dutena. Hortxe dago gakoa, hain zuzen.

Elkarrekin loturiko hiru taula erabiliz adieraziko dugu bi edizio-mota horien portaera gai eremuetan.

Lehen taulak zifra absolutuetan agertzen du mota bakoit- zaren indarra edo pisua.

Bigarren taula etzanean irakurri beharrekoa da, gai eremu- ka, hau da, gai eremu bakoitzean zein den pisua besteekiko alderaketan.

Eta hirugarrenak, zutikako edo bertikalak, argitaletxe ba- koitzaren barruan ekoizpena non mamitu den adierazten du.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>Balio absolutuak</i>			
	<i>Bertoko</i>	<i>Kanpoko</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	990	837	526	2.353
HI	310	608	72	990
HG	334	204	43	581
GG	65	8	234	307
HL	240	9	34	283
ZT	18	2	83	103
AL	16	6	48	70
Besterik	7	–	12	19

Bertokoek kanpokoek baino titulu gehiago eman dute argitara, 2015ean 153 titulu gehiago.

Gai eremuak banaka begiratzuz ere bertokoen zifrak altuagoak dira sailez sail, salbuespen nabarmen batekin: haur eta gazteentzako ikasmaterialgintzan oso goitik daude kanpokoak, 608 versus 310.

Lehen taulan balio absolutuetan eman duguna ehunekoetan azaltzen dugu bigarrenean, ekoizpenean bakoitzaren pisua argiago ikus dadin.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>% horizontalak</i>			
	<i>Bertoko</i>	<i>Kanpoko</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	42,-	35,5	22,5	2.353
HI	31,3	61,4	7,3	990
HG	57,5	35,-	7,5	581
GG	21,-	2,6	76,4	307
HL	84,8	3,1	12,1	283
ZT	17,5	1,9	80,6	103
AL	22,8	8,5	68,7	70
Besterik	36,8	-	63,2	19

Ekoizpen osoan 6,5 puntu aurretik jarri da bertokoen lana, baina aldeko proportzio hori pikutara doa hezkuntzako ikasmaterialetan: 30 puntuko diferentzia hartzen dute kanpokoek. %31,3 bakarrik suposatzen du bertokoen ekoizpenak gai eremu (bidenabar esan) hain sensible horretan. Gure herriaren etorkizunerako horren garrantzia ikusi nahi ez duena itsua da.

Bien arteko lehian, gainerako gai eremu guztietan aurretik doa bertokoena, proportzio handitan.

Taula horrek bistaritzen du besterik ere: esaterako, gai eremu jakin batzuetan ez bertokoen eta ez kanpokoek lana izan dela nagusi baizik eta gainerakoena, hala nola, giza eta gizarte sailetako liburuetan edo zientzia eta teknika sailetakoetan, eta aisia liburuetan ere gainerakoek esku dagoela proportzio handi bat.

Hirugarren taulak dakarren azterketa bertikalak bestelako irakurketa proposatzen du. Editorial mota bakoitzean, izan bertoko, izan kanpoko, gai eremu bakoitzak zenbateko pisua duen, alegia.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>% bertikalak</i>	
	<i>Bertoko</i>	<i>Kanpoko</i>
Ekoizpen osoa	100,-	100,-
HI	31,3	72,6
HG	33,7	24,3
GG	6,5	0,9
HL	24,2	1,-
ZT	1,8	0,2
AL	1,6	0,7
Besterik	0,7	-

Goazen bertokoekin. Bertoko editorial pribatu eta komertzialek egiten duten lana hiru gai eremutan nagusitzen da: hezkuntzako ikasmaterialak, haur eta gazteen liburugintza eta helduen literatura.

Kanpokoen emaitzak non kokatzen diren badakigu jada: hezkuntza materialetan eta haur eta gazteentzakoetan, ez beste inon.

Gainerako eremuetan bertokoen presentzia handiagoa da.

Arazoa zehazte aldera, azpimarratu behar da lehentasunen proportzioak garrantzi berezia hartzen duela:

- Hezkuntza materialetan bertokoek beren ekoizpeneko %31,3 titulu kokatu dituzte. Eta kanpokoek euskaraz produzitu duten guztiaren %72,6 hezkuntza material horietan agortu dute.
- Haur eta gazteentzako materialetan are titulu gehiago ekoiztu dute bertokoek: %33,7. Eta askoz gutxiago kanpokoek: %24,3.

Bai batak eta bai besteak euren produkzioaren parte handi bat haur eta gazteen liburu motan pilatzen dute, bai, baina proportzio oso desberdinetan: bertokoen produkzioaren %65 suposatzen du liburu mota horrek, eta kanpokoen ekoizpenaren %96,9. Kanpokoen kasuan, horrek ozenki salatzen du gainerako gai eremuetan duten ausentzia.

Taula hirukoitz horrek begien bistan uzten duen arazoetan larriena nire ustez zera da, hezkuntza proiektu gehienak (euskarazkoak, erdarazkoak zer esanik ez!) inportaziokoak direla, horien curriculuma Euskal Herritik kanpo diseinatzen dela.

Horrek dakarren soka luzea da oso, euskal geografiaz, euskal historiaz, ikuspegi euskaltzaleaz, Euskal Herriaren zatiketa administratibo-politikoaz edo euskal curriculum propio eta beregainaz...

Hezkuntza proiektu gehienak inportaziokoak dira, horien curriculumak Euskal Herritik kanpo diseinatzen da. Horrek dakarren soka luzea da

Eta txarrena: errealitate hori egonkortua dago jada, egun argitan gertatzen ari da, eta euskalgintzak, sektoreak, alderdi politikoek eta administrazioek arreta minimoa jarri gabe.

Eskaintza editoriala

Edukietara igaro aurretik, 288 eragile editorialen lanaren emaitza kuantitatiboak aurkeztuko ditugu sailtxo honetan. Zenbat titulu argitaratu dituzten, horietako zenbat diren nobedade edo berrargitalpen, itzulpenaren pisua zenbatekoa den. Oraintxe bertan, paperean, gaingiroki azalduko dugu, eta bertsio digitalean askoz ere luzeago eta sakonago, urtetik urterako eboluzioa ondo markatuz.


Urte bakarreko informazioa ez dugu eman nahi, uste baitugu datu isolatua urteen perspektiban kokatuz gero bere balioa hobeto interpreta daitekeela. Esaterako, aurtengo titulu kopurua nola ulertu behar da XXI. mendean, edota nobedadea, edo berdin itzulpena.

2.353 titulu

Titulu asko edo gutxi den, gehiegi ala ez, hori beti irakurlearen iritzira utzi ohi dut. Mende berriko bilakaera kontuan hartuta, altuenetako datua da, hori bai. Gailurra 2008an jo zuen ekoizpenak, eta aurtengoa bigarrena da.

Orduan ez bezala orain, proportzio berean ez behintzat, osaera bikoitza du kopuruak: liburu analogikoari zor zaionaz gainera, liburu digitalaren ekarpena. Ez da gutxiestekoa:

%26,5 da, 623 unitate. Digitalaren ekarpenagatik ez balitz, analogikoaren kopurua ez litzateke duela bost edo hamar urtekoa baino handiagoa.




Beste zenbait urtetan ez bezala, aurten titulu gehiago publikatu dira bai digitalean eta bai paperean, nahiz eta hazkundearen zati handiena digitalari zor zaion: analogikoan 85 titulu egin dugu gora, eta digitalean 104.

Urtea / Liburu mota	Analogikoa	Digitala	Guztira
2005	2.095	13	2.108
2006	1.870	8	1.878
2007	2.169	38	2.207
2008	2.529	107	2.636
2009	2.177	242	2.419
2010	1.966	252	2.218
2011	2.109	224	2.333
2012	1.954	148	2.102
2013	1.667	183	1.850
2014	1.645	519	2.164
2015	1.730	623	2.353

Nobedadeak eta berrargitalpenak

Hurrengo grafikoan irakur daitekeenez, ekoizpenaren mugimendua parez pare jarraitzen duena nobedadea da, urteko lehen edizioa. Ohikoa da hori munduko edizio guztietan. Normala da liburu berriak lehentasuna izatea, sorkuntzak, nobedadeak, lehen edizioak. Kontua da zein proportziotan. Hau

da, zein da proportzio egokia nobedadeen eta berrargitalpen edo berrinprimatzeen artean. Gurean, lautik hiru nobedade izan ohi da, eta lautik bat da berrargitalpena. Inguru horretan egonkortua bide dago bien artekoa, urtea joan eta urtea etorri.



Urtea	Nobedadea	Berrargitalpena
2000	70,4	29,6
2001	76,1	23,9
2002	72,3	27,7
2003	72,2	27,8
2004	75,7	24,3
2005	71,9	28,1
2006	71,5	28,5
2007	71,-	29,-
2008	71,-	29,-
2009	71,-	29,-
2010	75,5	24,5
2011	72,5	27,5
2012	69,-	31,-
2013	69,-	31,-
2014	75,-	25,-
2015	84,-	16,-
<i>Batez beste</i>	73,-	27,-

Nire gusturako, egia esan, grafikoak markatzen duen berrargitalpenaren eboluzio lerroa behegi dago. Alegia, berrargitalpenak indar gehiago beharko luke, edizio frantsean gertatzen denaren antzera edo. Berrargitalpenak zein liburu motatan duen indarra eta zeinetan ahulezia ikusirik, gure edizioa normaltzetik urrun dagoela esan daiteke. Edo

beste modu batera esanda, diglosia islatzen duela hainbat alorretako berrargitalpenaren eskasiak. Nobedadeak engaina gaitzake, baina jaio orduko hiltzen den liburuak ez du kulturaren ekosistema luzarora aberasten.


Ekoizpen tematikoa

Edizioaren muinean gaude, euskaraz zer publikatzen den jakin nahirik.

Produkzio tematikoa zortzi gai sailetan banatu ohi dugu urtero: 1) hezkuntza eta irakaskuntzako liburuak; 2) haur eta gazteentzako liburuak; 3) giza eta gizarte zientzietako liburuak; 4) helduen literatura; 5) zientzia eta teknika alorreko liburuak; 6) aisiako liburuak; 7) orotarikoak; eta 8) erlijio-koak. Sail hornituenak sei dira, eta horietara mugatuko dugu azterketa.

Banakako analisietara igaro aurretik ikuspegi globala erakuste aldera, hona hurrengo grafikoa eta laukia, eduki bera bi modutan bisualizatzeko. Hementxe ikusten da inon baino hobeto zein alorretan daukan indarra gure argitaratzaileen lanak.

Berrargitalpenak indar gehiago beharko luke. Bestela esanda, diglosia islatzen du hainbat alorretako berrargitalpenaren eskasiak



<i>Gai multzoa</i>	<i>Zenbaki absolutuak</i>	<i>%</i>	<i>2015/2000</i>
Hezkuntza/Irakaskuntza	990	42,-	+ 94,4
Haur eta gazteentzako liburuak	581	24,8	+ 56,5
Giza/Gizarte zientziak	307	13,-	+ 20,-
Helduen literatura	283	12,-	+ 10,5
Zientzia/Teknika	103	4,4	+ 74,5

Datu orokor horiek zehaztasunez hornituko ditugu gai multzoak banaka estudiatzean: titulu kopurua, ekoizpen-par-
tea, urteko eboluzioa, itzulpenaren eta berrargitalpenaren
pisua, orrialde kopurua, eta beste.

Hezkuntza eta irakaskuntza: 990 titulu

	2011	2012	2013	2014	2015
<i>Hezkuntza/Irakaskuntza</i>	742	740	566	713	990
Ekoizpenaren %	31,8	35,2	30,6	33,-	42,-
Urtetik urtera %Δ	35,1	-0,1	-23,5	25,9	38,8
Itzulpenen % (1. edizioan)	18,8	22,1	25,1	10,6	13,6
Berrargitalpenen %	37,8	45,6	49,4	39,5	15,6
Orrialde kopurua	89.025	89.005	67.946	61.964	99.079
Orrialde kopurua liburuko	125,5	126,2	130,9	126,5	100

Titulu kopuruak, hasteko, nabarmen gora egin du. Bero-
ri da azken aldiko gorena, alde handiz. Hazkunde horretan
faktore erabakitzailea liburu digitala da. Liburu mota horrek
%33,3 suposatzen du, hirutik bat. Neurri handiengan, gaine-
ra, kanpoko argitaletxeen lana da: %78,7. LHko materialetan
gehiena (222 titulu) eta gero DBHkoetan (102 titulu) gauzatu
da liburu digitala hezkuntza sailean.

Liburu mota hau da –urtero bezala, bestalde– produkzioan
pisu handiena duena, aurten batez ere: %42.

Aurtengo berrargitalpenaren pisu eskasak begietara jotzen
du. Digitalaren pisu handiak esplika dezake berrargitalpena-
ren txikia. Baina, hala eta guztiz ere, ez dut uste guztiz espli-
katzen duenik, analogikoa ere hazi egin baita bai titulutan
eta bai orrialde kopuruan, inoizkorik altuen.

Lehen edizioiko itzulpenak ere pisu txikia du. Ezin dut si-
netsi %13,6 bakarrik denik itzulitako liburua. Gertatzen da

erdal jatorriko liburu askotan kamuflatu, mozorrotu edo ezkutatu egin ohi dutela jatorriko marka, eta moldapen edo beste gisa batera aurkezten dutela. Jatorrizko liburuak aztertutik jabetzen da bat honetaz: osoki ez bada neurri handi batean erdarazkoa dutela ama mozorroturiko testu horiek. Ez dakit zergatik jokatu ohi duten horrela, itzultako liburuak merkatuan izen onik ez duelako, baimen administratiboak lortu ahal izateko edo auskalo zergatik. Edozein modutan ere, ez zait jokamolde ondradua iruditzen.

Barne sailkapena

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	2,2
Hezkuntzaren antolakuntza.....	0,5
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	2,5
Lehen Hezkuntza.....	65,4
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	25,5
Besterik.....	3,9
	%100

Lehen Hezkuntzan pilatzen da produkzioaren erdia ondo pasata, ia hirutik bi: %65,4. Eta lautik bat DBHn: %25,5.

Haur eta gazteentzako argitalpenak: 581 titulu

	2011	2012	2013	2014	2015
<i>Haur/Gazte</i>	666	603	599	605	581
ekoizpenaren %	28,5	28,7	32,4	27,9	24,8
Urtetik urtera %Δ	1,2	-9,4	0,6	1,-	-0,4
Itzulpenen % (1. edizioan)	66,3	76,9	78,6	62,6	69,-
Berrargitalpenen %	39,3	33,8	35,-	28,-	24,2
Orrialde kopurua	48.960	44.686	46.566	39.123	31.144
Orrialde kopurua liburuko	78,7	75,2	80,1	68,5	53,6

2014tik hona titulu gutxi batzuk galdu ditu, orrialde dezente ere bai, eta ekoizpen osoan pisua ere bai (%24,8). Digitalak pisu gutxi du (%9,1) argitalpen mota honetan, aurten behintzat.

Itzulpenak pisu handia du beti haur eta gazteentzako argitalpenetan. Aurten %69 da itzultakoa. Asko. Berrargitalpena,

aldiz, ez da iristen lautik batera, nire ustez gutxiegi. Merkatua ez da zabaltzen, antza.

Giza eta gizarte zientziak: 307 titulu

	2011	2012	2013	2014	2015
Giza/Gizarte	383	280	244	358	307
ekoizpenaren %	16,4	13,3	13,1	16,5	13,-
Urtetik urtera %Δ	-8,3	-26,8	-12,8	46,7	-14,2
Itzulpenen % (1. edizioan)	17,3	27,4	20,7	23,7	28,6
Berrargitalpenen %	6,7	8,9	6,9	4,4	5,5
Orrialde kopurua	75.012	54.627	45.579	57.239	55.534
Orrialde kopurua liburuko	227,3	218,5	227,8	225,3	244,6

Liburu mota honek gizarte esparru handia hartzen du bere baitan, filosofiatik hasi eta geografia edo historiaraino, soziologia, etnologia edo hizkuntzalaritzatik barrena. Mundu oso bat. Eta hori guztia elikatzeko 300 titulu dauzkagu euskaraz. Eta urtero ia titulu guztiak berriak dira, argitalpenak ez baitu batere indarririk. Ez du lur hartzen, ez errorik sakontzen argitalpen mota honek. Gure diglosia kulturalaren seinale, nire irudiko.

Aurten pittin bat behera egin du tituluetan eta orrialdeetan. Digitalak badu presentziarik, zehazki %26.

Barne sailkapena

Filosofia eta psikologia.....	5,2
Soziologia. Estatistika. Politika. Ekonomia.....	31,-
Zuzenbidea. Administrazioa.....	7,5
Etnologia. Etnografia.....	3,-
Edertia. Hirigintza.....	18,5
Filologia. Hizkuntzalaritza.....	15,8
Geografia. Historia.....	16,5
Besterik.....	2,5
	%100

Barne sailkapen honek unibertsitateko fakultate zerrenda ematen du, jakintza sail edo eremuak oro. Eta euskarazko ekoizpenak 300 titulurekin erantzun nahi dio horri. Hutsaren

hurrengoa. Eremurik osotuena soziologia, politika eta ekonomiarena dira, guztiaren %31, eta titulutan ehun inguru, ez gehiago. Huskeria. Diglosia.

Helduen literatura: 283 titulu

	2011	2012	2013	2014	2015
<i>Helduen literatura</i>	308	279	254	301	283
ekoizpenaren %	13,2	13,2	13,7	13,9	12,-
urtetik urtera %Δ	-3,7	-19,4	-8,9	18,5	-6,-
Itzulpenen % (1. edizioan)	23,7	23,-	25,5	29,-	27,5
Berrargitalpenen %	22,-	20,7	24,4	21,9	17,6
Orrialde kopurua	50.802	49.031	43.041	44.224	36.053
Orrialde kopurua liburuak	187,4	195,3	187,9	204,7	206

Literatura liburuak behera egin du; ez da gainbehera, baina bai eroria. Unitate batzuk galdu ditu, orrialdeak ere bai eta bere pisua ere jaitsi egin da bi puntu.

Digitalak pisua hartu du literaturan, olerkian bezala narritaban: %38,1. Itzulpenaren pisua ohikoa da, aurtien %27,5. Eta, nire ustez, ahulgunea berriro ere berrargitalpenean dago, %17,5 bakarrik baita. Iruditzen zait liburu honek ere bere oinarri soziala ez duela zabalitzen, merkatu berririk ez duela lantzen, sortzen edo aurkitzen.

Literatura liburuak behera egin du; ez da gainbehera, baina bai eroria. Unitate batzuk galdu ditu, orrialdeak ere bai eta bere pisua ere jaitsi da bi puntu

Generoka

Eleberria. Ipuina.....	62,2
Olerkia.....	17,6
Antzerkia.....	0,3
Herri-literatura. Bertsoa.....	2,1
Miszelanea. Kronika. Saioa.....	12,5
Besterik.....	5,3

%100

Behin berriz errepikatu eta azpimarratu behar da egoera bera, narratibaren nagusitasuna: %62,2, gainerako generoak urruti utziz. Euskal literaturan ez da beti berdin izan, baina modernitatean egonkorra da hierarkia hori, balioen aldaketak gorabehera.

Gainerakoak

Gainerakoen artean daude aipatuko ditugun zientzia edo teknikakoak eta aisiakoak, eta dentsitate gutxi dutelako bazter utziko ditugun erlijio liburuak eta orotarikoak.

Zientzia eta teknika: 103 titulu

	2011	2012	2013	2014	2015
Zientzia/Teknika	131	115	79	85	103
Ekoizpenaren %	5,6	5,4	4,2	3,9	4,4
Urtetik urtera %Δ	-28,4	-12,2	-31,3	7,6	21,1
Itzulpenen % (1. edizioan)	17,2	20,7	19,-	22,8	36,-
Berrargitalpenen %	11,4	7,8	6,3	7,-	5,8
Orrialde kopurua	15.375	12.859	10.392	12.279	9.325
Orrialde kopurua liburuko	170,8	167	189	227,4	158

Duela dozena bat urte orain baino maila altuagoan baze-
goen ere, azken urteotan apalxeago dabil liburu mota hau.
Iaztik hona, hori bai, hazi egin da titulutan. Baina ez orrial-
detan, agian liburu mota honen %42,7 liburu digitala delako.
Esan gabe doa liburu digitalak pisu handiena zientzian eta
teknikan duela; eta ez da harritzekoa, liburu motaren ezau-
garriak kontuan izanik.

Itzulpenaren tamainak gora egin du aurreko modu aski na-
barmenean, %36raino. Aspaldiko altuena. Aldiz, jaitsi egin
da berrargitalpena, eta ia-ia hutsaren hurrengo da, %5,8.
Liburu hau ere, oker ez banago, urte bakarreko lorea da, jaino
eta hil urte berean.

Eskasia arazo ez balitz, eremuen arteko banaketa propor-
tzionatua da, eta egokia litzateke. Ongi banatua dago, baina
eskas, hori da gakoa.

Zientzia zehatzak. Natur zientziak.....	28,2
Medikuntza.....	24,2
Ingeniaritza. Teknologia.....	22,4
Zientzia eta teknika aplikatuak. Industria.....	21,3
Besterik.....	3,9
	%100

Aisia liburuak: 70 titulu

Musika.....	13,5
Argazkia.....	19,-
Jolasa. Jokoa. Kirola. Atletismoa.....	14,8
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	10,8
Kosko literatura. Aisia.....	41,9
	%100

Liburu mota honek kuantitatibo eta kualitatiboki arazo larriak ditu: titulu gutxi, lautik bat itzulia, argitalpenik batters ez.


Modernitatearen ikur den aisiak euskaraz ez du tiradizo handirik, antza denez. Diglosiaren beste seinale bat. Liburu mota hori erdaraz kontsumitzen dugu, horra. 🍷

2015eko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	605	25,8
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Museoak	24	1,1
— Haur eta gazteentzako argitalpenak	581	24,7
1. FILOSOFIA	16	0,7
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	16	0,7
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	10	0,4
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia moralak. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauez besteko erlijioak	10	0,4
3. GIZARTE ZIENTZIAK	1.110	47,1
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia. — Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	120	5,1
	990	42,-
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	38	1,6
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	38	1,6
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	59	2,5
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritza	59	2,5
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	127	5,5
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	116	5,-
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	11	0,5
8. FILOLOGIA. LITERATURA	337	14,3
— Hizkuntzalaritza. Filologia	48	2,-
— Literatura. Literatur generoak	289	12,3
9. BIOGRAFIA. KONDAIRA. GEOGRAFIA	51	2,1
— Biografiak	13	0,5
— Kondaira. Geografia	38	1,6
GUZTIRA	2.353	100

GOGORATU ENTZULE,
2016KO KANTARIK ONENAK
ENTZUTEN ARI GARELA
ETA...

PATXI BAZTARRIKA&THE SOULBRAKERS
TALDEAREN "IRISMENA" DISKOTIK
"TXANTXANGORRIA NAIZ" KANTAREN
COVERRA ENTZUN OSTEAN...



...BATUAK (EZEN EZ BILDUAK),
HIRUROGEIKO HAMARKADA IRAULI ZUEN
BIKOTE DONOSTIARRAREN TXANDA DA.
JOHN SARASOLA ETA PAUL SAIZARBITORIA,
DONOSTIARRAK BIAK, REMIXEZ ETA
COVERREZ OSATUTAKO DISKOA
EMAN DUTE ARGITARA.

DONOSTIAN, ZUZENEAN ETA
EUSKARA BATUAN GRABATU DA
DISKOA ETA VINILLO TEMPOREN
MERKATURATU DA.

BERTAN AURKITUKO DITUZU,
HONAKO KLASIKOTZARRAK!:
"HATXEARI BALADA",
"NIK BATUAZ, ZUK ZERGATIK EZ?",
"EUSKALKI ZUREA, EZIN ZAITUT MAITE",
"LILI IN THE SKY WITH DIAMONDS",
"LEKEITIOAK I ETA II (BATUAZ)", ETA
"EUSKALTZAIN ARRUNTAREN
KOPLAK" BESTEAK
BESTE...

AURKEZPEN BIRA NAZIONALA
IRAGARRI DUTE 2017RAKO:
ANTIGUO, ALTZA, HERRERA,
GROS, EGIA (BUKOWSKI),
ETA MARTUTENE.
ORAINDIK LOTZEKE
ZUBIETA ETA
IGELDO.



ZUGAZ/
art

Jakin^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943 21 80 92
Fax. 943 21 82 07
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

